


# Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Plana 2025-2028

Martxo 2025



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Berrikuntza Sozialaren eta  
2030 Agendaren Plana  
2025-2028

# aurkibidea

---

|           |   |    |
|-----------|---|----|
| <b>01</b> | <b>Sarrera</b>  | 6  |
| <b>02</b> | <b>Testuinguru globala: gure egungo mundua eta datorrena</b>                                    | 10 |
| <b>03</b> | <b>Atzera begira: balantzea eta ondorio nagusiak</b>  | 16 |
| <b>04</b> | <b>Aurrera begira: zergatik eta zertarako Berrikuntza Sozialeko eta 2030 Agendako Plan bat?</b> | 20 |
| <b>05</b> | <b>Irismena, esparru orokorra eta printzipioak</b>  | 24 |
|           | 5.1 Irismena  | 25 |
|           | 5.2 Esparru orokorra  | 25 |
|           | 5.3 Printzipio inspiratzaileak  | 26 |
|           | I. Lankidetzako gobernantza   | 26 |
|           | II. Politiken koherentzia   | 27 |
|           | III. Genero-ikuspegia   | 27 |
| <b>06</b> | <b>Planaren jarduera-ardatzak</b>   | 28 |
|           | Pertsonak erdigunean eta kultura demokratikoa   | 30 |
|           | Hazkundera eta ongizatea berrikuntza sozialaren bidez   | 30 |
|           | Eraldaketa energetikoa, jasangarritasuna eta hiri-garapena                                      | 30 |
|           | Bizikidetzak, giza eskubideak eta gobernantza demokratikoa                                      | 31 |
|           | Autogobernua eta nazioarteko proiektuaren haztea  | 31 |
|           | <b>6.1 1. ardatza: Kultura demokratikoa eta komunitate-sena indartzea eta sustatzea</b>         | 32 |
|           | 6.1.1 Kultura demokratikoaren gaineko komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalkundera           | 33 |
|           | 6.1.2 Herritarren parte-hartze eta deliberazio-prozesuak bultzatzea                             | 34 |
|           | 6.1.3 Zeharkako esparru estrategikoa eta arau-esparru bat garatzea                              | 35 |
|           | 6.1.4 Gobernu irekiko proiektua garatzea, OGP Euskadi 2025-2028 Planaren esparruan              | 36 |
|           | <b>6.2 2. ardatza: Garapen jasangarriko helburuak lortzea 2030 Agendaren bidez</b>              | 36 |
|           | 6.2.1 18. GJHa (kultura- eta hizkuntza-aniztasuna) konfiguratzeko                               | 38 |
|           | 6.2.2 GJHen komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalkundera                                     | 40 |
|           | 6.2.3 Herritar anonimoen inplikazioa  | 41 |
|           | <b>6.3 3. ardatza: Nazioarteko proiektuak</b>   | 42 |
|           | 6.3.1 Akordioak nazioarteko eragileekin   | 42 |
|           | 6.3.2 Akordioak tokiko eragileekin  | 46 |

---

|       |  |    |
|-------|--|----|
| 6.4   | <b>4. ardatza: Berrikuntza sozialaren eta 2030 Agendaren arloan gainerako erakunde eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturekin partekatzen diren proiektuak</b> | 47 |
| 6.4.1 | Proiektu partekatuak berrikuntza sozialaren, kultura eta kalitate demokratikoaren politikaren eta sustapenaren, eta inklusio-politiken arloan                    | 48 |
| 6.4.2 | Proiektu partekatuak zerga-lehiakortasunaren, talentua erakarri eta atxikitzearen, kontratazio/erosketa publiko arduratsuaren eta jasangarritasunaren arloan     | 49 |
| 6.4.3 | Proiektu partekatuak klima-aldaketaren, elikadura jasangarriaren eta landa-eremuaren nahiz lurraldearen garapenaren arloan                                       | 50 |
| 6.4.4 | Garapenerako lankidetzako proiektuak   | 51 |

|           |   |    |
|-----------|---|----|
| <b>07</b> | <b>Gobernantza-eredua</b>   | 52 |
| 7.1       | Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Forotik, Hub Euskadi 2030-Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Forora | 53 |
| 7.2       | Hub Euskadi 2030-Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroa  | 55 |
| 7.2.1     | Osoko bilkura   | 55 |
| 7.2.2     | Gobernantza Batzordea   | 57 |
| 7.2.3     | Lantaldeak eta esperimantazio-laborategiak  | 60 |
| 7.2.4     | GJHen aldeko Euskal Aliantza  | 63 |

|           |   |    |
|-----------|---|----|
| <b>08</b> | <b>Planaren ezarpena eta koordinazioa</b> | 68 |
|-----------|---|----|

|           |   |    |
|-----------|---|----|
| <b>09</b> | <b>Planaren jarraipena eta ebaluazioa</b> | 70 |
|-----------|---|----|

|           |                                |    |
|-----------|--------------------------------|----|
| <b>10</b> | <b>2025eko Kudeaketa Plana</b> | 74 |
|-----------|--------------------------------|----|

|           |   |     |
|-----------|---|-----|
| <b>11</b> | <b>Eranskinak</b>   | 82  |
| 11.1      | Berrikuntza sozialaren, kultura eta kalitate demokratikoaren politikaren eta sustapenaren, eta inklusio-politiken arloko proiektu partekatuen fitxak                | 83  |
| 11.2      | Zerga-lehiakortasunaren, talentua erakarri eta atxikitzearen, kontratazio/erosketa publiko arduratsuaren eta jasangarritasunaren arloko proiektu partekatuen fitxak | 96  |
| 11.3      | Klima-aldaketaren, elikadura jasangarriaren eta landa-eremuaren nahiz lurraldearen garapenaren arloko proiektu partekatuen fitxak                                   | 102 |
| 11.4      | Garapenerako lankidetzako proiektu partekatuen fitxak   | 107 |

---

## Sarrera



*Herri gisa, garapen demokratikoaren eskutik soilik egin dezakegu aurrera.  
Horrela soilik bermatuko ditugu jendearen askatasuna eta duintasuna.*

*Balio horiengatik, bere indarra etengabe elikatzen duen herrialde sendo bat nahi dut.*

*Horretarako, arau eta erakunde sendoak dituen sistema bat behar dugu;  
baita herritar konprometituak ere.*

*Bestela esanda, demokraziaren oinarria ez da estandar formal guztiekin bat datorren sistema bat soilik, baizik eta, batez ere, gizartearen beraren kultura demokratikoa.*

*Erakunde sendo eta eraginkorrak behar ditugu; gizarte zibil aske eta autonomo bat; eta gaitasun kritikoa, ardura eta komunitate-sena duten herritarrak.*

*Etengabe berritu behar dugu gure erakunde-sistema eta, aldi berean, komunitate-sena sustatu.*

*Datozen urteetan, eta munduko hainbat aldetatik demokraziaren aurka datozen oldarren aurrean, irmoki egin behar dugu lan demokraziaren alde.*

*Demokrazia biziberritzen inbertitzen dugun guztia askatasunean, giza duintasunean, ongizatean eta justizia sozialean inbertitzen dugu.*

Imanol Pradales Gil Lehendakaria, inbestiduraren osoko bilkura, 2024ko apirilaren 20an.

Dokumentu honetan, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren 2025-2028 aldiko Plana jaso da. Plan honek zuzenduko du Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzaren jarduera, Komunikazioko eta Berrikuntza Sozialeko Idazkaritza Nagusiaren barruan.

Idazkaritza nagusi eta zuzendaritza bakoitzak dituen eginkizun orokorrez gain, Komunikazioko eta Berrikuntza Sozialeko Idazkaritza Nagusiari dagozkio Eusko Jaurlaritzaren komunikazio eta publizitate instituzionaleko estrategiaren zuzendaritza eta koordinazioa, ikerketa eta berrikuntza soziala, eta 2030 Agendaren garapena.

Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzak, bestalde, eginkizun hauek ditu:

- a) Berrikuntza sozial eta politikorako proposamenak egitea.
- b) Berrikuntza sozial eta politikoaren arloko proiektuak eta ekimenak sustatzea, esperimentazioa eta ikaskuntza bultzatuz.
- c) Ezagutza aurreratua eta hausnarketa-prozesuak sustatzea zuzendaritzarekin zerikusia duten gaietan.
- d) Unibertsitateekin eta beste erakunde sozial eta kultural batzuekin lankidetzaren sustapena eta erakunde horien eragina hobetzea.
- e) Euskadin kalitate eta kultura demokratikoa sustatzea.
- f) Beste erakunde eta eragile batzuekiko elkarlana sustatzea, lankidetzazko gobernantza, herritarren parte-hartzea eta ekintza komunitarioa indartzeko.
- g) Sentikortzeko eta prestakuntzako programak sustatzea eta gauzatzea, bai herritarrentzat, bai haien zerbitzura dauden langileentzat, herritarren artean elkartegintza, herritarren parte-hartzea eta komunitatearen garapenerako lankidetzaren praktika pribatuak edo publiko-pribatuak sustatzeko.
- h) Herritarren eztabaida-prozesuak bultzatzea, eta herritarrek prozesuetan zenbateraino parte hartzen duten aztertu eta horri buruzko txostenak egitea, beharrezkoak diren hobekuntza-mekanismoak proposatzeko.
- i) Agertzen ari diren eztabaida publiko eta gai berrien jarraipena egitea.
- j) Sail arteko koordinazio- eta jarraipen-estrategiak bultzatzea, trantsizio sozialaren eta 2030 Agendaren arloan Jaurlaritzaren ekintza bateratua izan dadin.
- k) 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programan, sail arteko, erakunde arteko eta gizarte-erakunde arteko lankidetzaren dinamizatzea, eta programari jarraipena egitea.
- l) Trebakuntza- eta hausnarketa-prozesuak bultzatzea.
- m) Lehendakartzaren Zerbitzu Zuzendaritzarekin koordinatuta, euskararen erabilera normalizatzeko planean finkatutako helburuak zehaztea eta horiek ezartzeko eta ebaluatzeko behar diren ekimenak garatzea.



- n) Lehendakaritzako langileak euskalduntzeko eta hizkuntza normalizatzeko prozesua koordinatzea, Lehendakaritzako Zerbitzu Zuzendaritzarekin lankidetzan, eta euskararen erabilera sustatzea, dagokion euskara-unitatearen bidez, hizkuntza-normalizazioaren arloan eskumena duten organo zentralekin lankidetzan.


Sarrera honen ondotik datozen orrialdeetan, eta hurrengo urteetarako plangintza jaso aurretik, gure oraingo testuinguru orokorrari eta datorrenari buruz gogoetatzeko ariketa bat egin da; atzera ere begiratu da, orain artean egindako lana eta ateratako ondorio nagusiak aztertzeke; eta, azkenik, etorkizunari erreparatu zaio, zehaztu nahi baita zein diren Berrikuntza Sozialeko eta 2030 Agendako Planaren zergatia eta zertarakoa eta zer printzipio inspiratzailek gidatu behar duten planaren definizioa eta garapena.

Kontuan hartuta berrikuntza sozialak eta 2030 Agendak bere-berezkoa dutela lankidetzan sustatu beharra, dela gobernuaren baitan, dela administrazio artean eta, jakina, baita lurraldeko askotariko eragile ekonomiko, sozial eta kulturalekin, prozesu horretan guztian funtsezkoa da gobernantza, lehen, orain eta beti. Horregatik, planaren definizioaz harago, dokumentu honetan puntu espezifiko batean jaso da gobernantza-eredua zein den.

Azkenik, Planaren ezarpenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko epigrafeak eta 2025erako Kudeaketa Plana jasotzen dira.

---

## **Testuinguru globala: gure egungo mundua eta datorrena**



Nazio Batuen 2023ko iraileko GJHen goi-bileran, NBEren Eragin Handiko Ekimenak jarri ziren abian, aurrerapen eraldatzailea posible dela erakutsi eta lidergoa eta inbertsioa mobilizatzeko, 2030era arte aurrerapen hori hedatzeari begira. Eragin Handiko Ekimen horien artean daude: elikadura-sistemen eraldaketa, trantsizio energetiko justua, konektagarritasun digitala, kalitatezko hezkuntza, babes soziala eta enplegu duina, eta ekintza klimatikoa eta biodibertsitatea. Era berean, ezarpenerako kritikoak diren bost ingurunetan zentratzen dira ekimenak: finantzaketa, teknologia, gaituntza eta gaitasunen garapena, merkataritza, eta datuak eta jarraipena.

Ekimen nabarmenetako bat Local 2030 da, GJHak toki- eta lurralde-mailan ezartzen laguntzeko. Local 2030ek elkarlana errazten die tokiko gobernuei, gizarte zibileko erakundeei, sektore pribatuari eta NBEren sistemari. Tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu, tokiko eragileek aukera izan dezaten GJHak egokitu eta beren lurraldeetan aplikatzeko. Hala, ekimen globalak tokiko ekintza zehatz eta eraginkor bihurtzen direla ziurtatzen du. Elkarlan hori funtsezkoa da gainerako ekimen guztiek benetako eragina izan dezaten, lurraldeetatik; izan ere, GJHen ezarpena testuinguruari hobeto egokitzea eta esanguratsuagoa izatea ahalbidetzen du, eta mundu-mailan balioa ematen zaio lurraldeek gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren arloko erronkei erantzuteko daukaten gaitasunari.

2024ko irailean, Nazio Batuen Etorkizunaren Goi Bilera funtsezkoa izan zen munduaren garapenaren norabidea birdefinitzeko. Goi-bilera hartan, munduko liderrek Etorkizunerako Ituna onartu zuten: gobernu arteko akordio bat, besteak beste, garapen jasagarria, bakea eta segurtasuna, lankidetzat digitala eta gobernantza globalaren eraldaketa jorratzen dituen. Itunak alde anitzeko sistema biziberritzea du helburu, eta gaur egungo erabakiak oraingo nahiz etorkizuneko belaunaldien onerako izango direla bermatzea.

Etorkizunerako Itunean, Etorkizuneko Belaunaldiei buruzko Adierazpena sartu zen, non azpimarratzen baita egungo belaunaldien erantzukizuna dela, erabakiak hartzean, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan ez jartzea. Erabakiak hartzeko orduan gazteak kontuan har daitezela sustatzen du Adierazpen horrek, eta etorkizuneko belaunaldientzako ordezkari berezi bat sor dadila, munduko politiketan haien interesak aintzat hartuko direla ziurtatze aldera. Gainera, Itun Digital Globalak printzipio batzuk ezartzen ditu etorkizun digitala inklusiboa, segurua eta gizakian zentratua izateko, besteak beste, konektibitatea, datuen pribatutasuna eta desinformazioaren aurkako borroka jorratuz.

2017an jada, garapenari buruzko Europako Adostasunak irmoki azpimarratzen zuen ezen pobrezia desagerraraztea dela Europako garapen-politikaren helburu nagusia. Dokumentu horrek argi aitortzen zuen lotura estuak zeudela ekintza horretako elementuen artean.

Elementu horien artean daude garapena, bakea eta segurtasuna, laguntza humanitarioa, migrazioa, ingurumena eta klima, bai eta zeharkako elementu batzuk ere, hala nola gazteria; genero-berdintasuna; mugikortasuna eta migrazioa; energia jasangarria eta klima-aldaketa; inbertsioa eta merkataritza; gobernantza ona, demokrazia, zuzenbide-estatua eta giza eskubideak; konpromiso berritzailea garapen bidean dauden herrialde aurreratueneekin; eta nazioko baliabideen mobilizazioa eta erabilera.

Dokumentuak ondorioztatzen zenez, garapen jasangarriari eta 2030 Agendari dagokienez abangoardian dago Europa, bere kanpo-politiken nahiz besselako politiken bitartez.

Illo horretan, lurraldeen garrantzia funtsezkoa da akordio horiek ezartzeko orduan, toki- eta lurralde-mailan biltzen baitira gaitasunak, eskumenak eta errealitatearen ezagutza. Hala, eragile anitzeko eta maila anitzeko lankidetzatik, 2030 Agenda benetan eraldatzailea egituratu daiteke.

Elkarrizketa eta nazioarteko akordioak –tradizionalki estatuak gidatuak– higituta dauden honetan, beharrezkoa da alde anitzeko esparruak berreraikitzea, eta demokratikoagoak, anitzagoak eta herritarren errealitateak hurbilagoak izan daitezela. Birmoldaketa global horretan, lurraldeek eginkizun aktiboa betetzeko ahalmena eta erantzukizuna dute; ebidentziaren bidez, tokikoa eraldatzeko eta mundu-mailan jarduteko gaitasuna erakutsi behar dute, kohesio soziala eta guztiontzat oparotasuna sortuz, eta etorkizuneko belaunaldientzat jasangarritasuna bermatuz.

Bestalde, Mario Draghiren “Europar lehiakortasunaren etorkizuna - Lehiakortasun-estrategia bat Europarako” txostenaren arabera, Europak mende hasieratik izan du kezkabide hazkundearen motelaldia, eta hazkunde-tasak goratzeko hainbat estrategia egin diren arren, joera ez da aldatu.

Orain arte, hazkundearen moteldura eragozgarritzat hartzen zen, baina ez arazotzat; geopolitika egonkorreko mundu batean, ez zegoen zertan kezkatu, nahiz eta Europak beste herrialde batzuen mendekotasun gero eta handiagoa izan. Baina Europar Batasunaren oinarriak kolokan daude: aurreko mundu-paradigma desagertzen ari da, egonkortasun geopolitikoa txikitzen ari da, eta mendekotasun horiek ahulezia bihurtu dira.

Era berean, aldaketa teknologikoa azkar ari da bizkortzen eta Europak ez du posizionamendu ona; hain zuzen, neurri handi batean sektore teknologikoan dauden diferentziei zor zaie EBren eta AEBren arteko produktibitate-aldea.

Gainera, Europar Batasunaren oraintsuko historian, lehen aldiz, hazkundeak ez du izango biztanleriaren gehikuntzaren sostengua. Ekonomia digitalizatzeko eta deskarbonizatzeko, BPGaren % 5 inguru handitu beharko litzateke

Europako inbertsio-kuota, azken aldiz 60ko eta 70eko hamarkadetan ikusitako mailetaraino.

Egoera horren aurrean, Europak ez badu lortzen produktiboagoa izatea, zer izan aukeratu beharko du: teknologia berrien lider, klima-erantzukizunaren argi gidari edo munduko jokalekuko aktore independente. Ezingo du finantzatu bere gizarte-eredua. Laburbilduz, erronka existentziala da.

*“Europaren funtsezko balioak oparotasuna, ekitatea, askatasuna, bakea eta demokrazia dira, ingurune jasangarri batean. Europarrak beti oinarrizko eskubide horien onuradun izango direla bermatzeko existitzen da Europar Batasuna. Europak jada ezin badizkie eman bere herritarrei –edo batzuk besteren aurka jarri behar baditu–, galdua izango du bere izateko arrazoia (...)*

*Erronka horri aurre egiteko modu bakarra haztea eta produktiboagoak izatea da, gure ekitate- eta gizarteratze-balioak zainduz. Eta produktiboagoak izateko modu bakarra Europa erabat aldatzea da (...)*

*Irmo sinetsi behar dugu aurrera egitea lortuko dugula. Iraganean ez da inoiz izan gure herrialdeen eskala hain txikia eta eskasa, erronken muntaren aldean. Eta norberaren iraupena aspalditik ez da halako kezka ohikoa. Erantzun bateratua emateko arrazoiak ez dira inoiz izan hain sinesgarriak, eta batasunean aurkituko dugu eraberritzeko indarra”.*

Ilido beretik, “Europa, merkatu bat baino gehiago” txostenean, Enrico Lettak ibilbide-orri bat planteatzen du Europako 2024-2029ko ziklo politiko eta instituzional berriarentzat, Europako ekonomia eta lehiakortasuna eta herritarren ongizatea indartzeko.

Enrico Lettaren hitzetan, *“Jaques Delorsek bultzatu zuenean, etorkizun zen mundu batekin ametsetan geunden, Berlingo Harresia erori ondoren zetorren Europarekin. Oztopo gutxiagoko eta demokrazia gehiagoko Europa batekin. Azken urteotan, ohartu gara ez dugula ziurtatuztat eman behar amets hori, eta kontuan hartu behar dugu bizi garen munduaren alde borrokatu behar dugula”.* Horri dagokionez, inbertsio bateratua indartzeko eta burokrazia murrizteko deia egin die herrialde kideei; COVIDaren aurkako txertoen erosketa bateratuaren, berreskurapen-funtsen edo energia eskuratzeko eredu antzekoak erabiltzea proposatzen du.

Horri gure gizartean dagoen populismoaren erronka gaineratu behar zaio. “Populismoari mozorroa kentzea: mehatxu iraunkor baten modalitateak, agertokiak eta erantzunak” ekitaldi politikoan ondorioztatu zenez (haren sustatzaileak Europako Batzordea eta populismoaren kausak eta ondorioak aztertzen dituzten DEMOS, PaCE, POPREBEL proiektuak izan ziren, EBk finantzatuak), gizartearen nahigabeak, populismoak eta konpromiso politiko-

rik ezak dakarte populisten aldeko babesa, eta arazo horiei ekinez saihesta daiteke gobernantza populista; hots, gizartea onen eta txarren artean banatzen duen mezu bat, balio demokratikoen aurkako eraso eta gutxiengoan eskubideekiko mespretxua bereizgarri dituen. Populismoari lotutako albiste faltsuei aurka egitea, hezkuntza zibikoan inbertitzea eta herritarrak politikagintzan inplikatzea dira erantzuteko modu batzuk.

Bizi dugun testuinguruan, beraz, nabaria da herritarrek lotura ahulagoa dutela politikarekin, administrazio publikoarekin eta are komunitatearekin ere. Urruntasun hori tarteko, herritarrek desafekzio handiagoa sentitzen dute politikari eta erakundeei lotutako guztiarengana, eta, aldi berean, komunitate-sentimendua ere ahultzen da.

Antzeko zerbait gertatzen da 2030 Agendarekin; izan ere, gaur egun, mar txan da desinformazioan oinarrituz hura belztu nahian dabilen kanpaina bat.

Ikusi dugu gorroto-diskurtsoek edo 2030 Agendaren aurkako diskurtsoek eragin nabarmena izan dezaketela gizartearen kohesioan, bizikidetzaren bake-tuan eta gizarte bidezkoago eta jasangarriago baterantz aurrera egiteko bidean, eta, beraz, orain badakigu garrantzitsua dela diskurtso horiek agerian uztea.

Gaur-gaurkoz, narratiba suntsitzaile horiei aurre egitea da gure erronka, eta etorkizun inklusiboagoa eta jasangarriagoa eraikitzea. Horretarako, garrantzitsua da ondo informatuta egotea, errespetuzko elkarrizketa sustatzea, askotariko iritziak entzutea, sare sozialak arduraz erabiltzea eta konponbide eraikitzaileekin konpromisoa hartzea, gizarte gisa ditugun erronkei aurre egiteko.

Desinformazioaren aurkako borroka, gainera, pentsalari kritikoak sustatu eta egia indartzeko aukera bat da. Egoera horren aurrean, Euskadik garapen jasangarriko helburuen alde egindako apustu sendoa azpimarratu behar da.



---

## **Atzera begira: balantzea eta ondorio nagusiak**





2016ko azaroaren 24an, orduko lehendakariak, Iñigo Urkullu Renteriak, 2030 Agendarekiko euskal konpromisoa aldarrikatu zuen.

2018ko apirila ezker, Eusko Jaurlaritzak urtero aurkeztu du, Legebiltzarrean eta Nazio Batuen Erakundearen, borondatezko jarraipen-txosten bat, EAeko 2030 Agendaren eta hartutako konpromisoen garapenaren autoebaluazioa egiten duena.

Agenda globalean 2016tik egindako lanaren jarraipen gisa, 2021eko ekainaren 20an 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onartu zen, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sustatua, GJHekiko sailarteko eta erakundearteko konpromisoa dinamizatzeko, koordinatzeko eta bultzatzeko. Programak lau lehentasun-ardatz finkatu zituen: (I) Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa; (II) Koordinazioa eta lankidetzako gobernantza; (III) Lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa; eta (IV) Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak.

Halaber, 2020-2024 legegintzaldiaren amaieran, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritzak bederatzi liburuko bilduma bat atera zuen argitara, zeinetan aldi horretan 2030 Agendari dagokionez egindakoak deskribatu eta aztertzen diren; eta, trantsizio sozialaren eremuan, jarduera hauek egin ziren:

(I) *Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa* ardatzaren esparruan, dibulgazio-jarduera ugari egin dira, hala nola liburuxkak, urteko informazio- eta dibulgazio-kanpainak, baliabide pedagogikoen sorrera, prestakuntza-ekimenak eta partaide-tza- eta inplikazio-jardueretan funtsezkoak diren erakundeekin elkarlana.

(II) *Koordinazioa eta lankidetzako gobernantza* ardatzean, nabarmengarriak dira Euskadi 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroaren sorrera, baita gizarteak parte hartzeko eta eragile anitzen lankidetzarako Guneak ere, harengandik eratorri baitziren GJHen aldeko Euskal Aliantza eta "2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako" Adierazpena, erakundeen eta gizarte-eragileen arteko lankidetzak-esparruak indartzen dituen, eta Nazio Batuen erreferentziazko foro nagusietan eta gaikako lantaldeetan partaidetza.

Azpimarratu behar da, orobat, Local 2030 Koalizioaren egoitza Bilbon ezarri eta "Now 2030 Basque Country. GJHen lokalizaziorako euskal konpromisoaren eredu" dokumentua onartu zela.

(III) *Lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa* ardatza, funtsean, zeregin hauetara bideratu da: borondatezko jarraipen-txostenak aurkeztea eta euskal aurrekontua

(IV) *Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak* ardatzean, 2030 Agendaren Lehenetasunen Euskal Programan jasotako zazpi proiektu adierazgarriei emandako bultzadaren jarraipena egin da: Ekitatea, Hezkuntzaren auzolana, Ekiola + Klima-Ondarea, Opengela, Osasun Global, Basque Ecodesign Center, Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak.

Gainera, hiru erronka identifikatu dira hobetzeko esparru gisa: (1) energia berriztagarriak, (2) erronka demografikoa eta (3) dibulgazioa.

1. Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumoa herrialdearen lehen mailako lehenetasun gisa ezarri da, eta funtsezkoa da ahalegin bateratua egitea konpromiso hori gizarteratu eta zabal dadin, klima-aldaketaren erronkari erantzuna emateko.
2. Erronka demografikoari erabateko lehenetasuna eman behar zaiola finkatu da, zeharkako eragina baitu 2030 Agendak bultzatzen duen eraldaketaren eta jasangarritasunaren alderdi sozialarekin lotutako GJHen gainean.
3. Oraindik ere funtsezkotzat jotzen da 2030 Agenda zabaltzeko ahaleginetan jarraitzea, gizarteak eduki behar duen informazio- eta inplikazio-maila hobetzeko.

Beraz, azken zortzi urteetan egindako lanak markatuko du zer bide hartuko duten Komunikazio eta Berrikuntza Sozialeko Idazkaritza Nagusiak eta Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzak legealdi honetan, GJHak lortzeko eta Euskadin 2030 Agenda ezartzeko egin den lanari jarraipena emateko. Gainera, gaur egun mundu osoan orokortutako krisi demokratikoaren testuinguruan, beste urrats bat egin nahi da sistema politikoak eta erakunde tradizionalak sortzen duten desengainu gero eta handiagoaren aurka borrokatzeko. Erakunde demokratikoen konfiantza berritzean eta komunitatearen identitatea indartzean bildu nahi da arreta, 17. GJHaren inguruan jada landu diren deliberazio-, partaidetza- eta aliantza-prozesuak irekiz, gure lurraldearen lehiakortasuna ere hobetzeko giltzarri gisa.

Bestalde, hasieran 2030 Agendaren parte ez izan arren, azpimarratu behar da zein ahalegin handia egin duen eta zer ausardia agertu duen Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak bere politika publikoak bat etor daitezen Agenda horretan zehaztutako erronkekin. Agendaren ezarpena bultzatu, eta ekarpen aktiboa egin du garapen jasangarriko helburuak lortzeko. Testuinguru horretan, bonu jasangarrien ekimena jarri zuen martxan. Hasierako jaulkipena, 2018an, 500 milioi eurokoa izan zen, proiektu berde nahiz sozialei lotutako bonuentzako esparru espezifiko baten babespean. Hala, finantzaketa jasangarriko estrategia bat finkatzea ahalbidetu zen.

Jaulkipen horien bidez lortutako diru-sarrerak ingurumen- eta gizarte-proiektuak finantzatzera bideratu dira. Hartara, finantzaketa arduratsua eta eraginkorra sustatu da lurraldeko ingurumen, ekonomia eta gizarte arloko erronkei erantzuteko. 2021ean, Finantzaketa Jasangarriaren Esparrua berri-


kusi eta eguneratu zen, ziurtatzeko bat zetorrela “Bonu Berdeen Printzipioekin” (GBP), “Bonu Sozialen Printzipioekin” (SBP), “Bonu Jasangarrien 2018ko Jarraibideekin” eta “LMAren Bonu Berdeen 2018ko Printzipioekin” (GLP).

Estrategia horren ondorioz, azken hiru urteetan zenbateko nabarmenak jaulki dira bonu jasangarrietan: 500 milioi euro 2022an, 700 milioi euro 2023an eta 600 milioi euro 2024ko otsailean.

2024ko bonu jasangarriak jaulkitzeko aukeratu diren proiektu hautagarriek garapen jasangarrirako funtsezkoak diren hainbat eremu dituzte jomugan, hala nola energia berriztagarriak (7. GJH), etxebizitza eskuragarria (1. GJH, 10. GJH, 11. GJH), hezkuntza eta osasuna (1. GJH, 3. GJH, 4. GJH, 10. GJH), aurrerapen sozioekonomikoa (1. GJH, 4. GJH, 10. GJH), enplegu-sorkuntza (1. GJH, 4. GJH, 10. GJH), uraren eta hondakin-uren kudeaketa jasangarria (6. GJH), kutsaduraren prebentzioa eta kontrola (11. GJH) eta garraio garbia (11. GJH).

---

## **Aurrera begira: zergatik eta zertarako Berrikuntza Sozialeko eta 2030 Agendako Plan bat?**



*Euskadin, demokrazian sinesten dugu eta demokrazian sakontzen jarraitu nahi dugu gizabidean aurrera egiteko. Batetik, pertsona oroaren duintasuna, askatasuna eta berdintasuna bermatzeko gai den sistema politiko bakarra delako, eta, bestetik, berezko dituen balioak (pluraltasuna, tolerantzia, errespetua...) eta beharrezko duen kultura (elkarrizketa, akordioak, besteen onartzea...) pertsonen arteko elkarbizitza oparorako egokienak direla sinesten dugulako.*

*Demokrazia arriskuan eta mehatxupean dago egun Europan. Munduko leku askotatik bere aurkako olatuak datoz eta indar antidemokratikoak gizartean babes handia lortzen ari dira. Arriskua ez da mugimendu faxista, xenofobo edo arrazistetara bakarrik mugatzen. Gizartea ulertzeko modu bakarra inposatu nahi duten pentsamolde politikoetara ere hedatzen da. Jarrera totalitario eta autoritarioek gizartearen aniztasuna ukatzen dute eta ez dute desberdina dena onartzen; pertsonen eta herrien askatasunaren aurka doaz.*

*Korronte hauen aurrean, Euskadin demokrazia indartzen, sakontzen eta hobetzen jarraitu nahi dugula aldarrikatzen dugu, eta horretarako lan egiteko konpromiso sendoa hartzen dugu, bai gure sistema demokratikoa etengabe berritu eta hobetzeko, eta bai euskal gizartearen kultura demokratikoa etika eta integritatearen gainean sustatu eta sendotzeko.*

Imanol Pradales Gil Lehendakaria,  
"Jarduera politikoan gizalegez aritzeko ituna", 2024ko abuztuaren 29a.

Lehendakariak bere hitzaldian aipatu zuen bezala, egiturazko aldaketak bizi dituen gizarte bat dugu aurrean, eta aldaketa horiei ezin zaie ez ikusi egin: Europan eta munduan gero eta handiagoa den oldar autoritarioak arriskuan jartzen ditu demokrazia liberalak, giza eskubideak, askatasuna eta duintasuna. Euskadin, polarizazio edo populismo handirik ez dagoen arren, badira autokritikaz landu beharreko zantzu kezkarriak.

Horren aurrean, argi izan behar dugu gizartearen aurrerapenak garapen demokratikoari lotuta joan behar duela, askatasun- eta duintasun-berme gisa. Garapen demokratikoa ez da soilik sistema formalen mende egongo: kultura demokratikoaren eta herritarren parte-hartze aktiboaren baitakoa ere izango da.

Erronka horiei aurre egiteko, akordioetan, errespetuan eta eztabaida lasaie-tan oinarritutako politika eraikitzailearen tradizioa dugu. Ezinbestean, erakundeekiko konfiantza indartu beharko da, zintzotasunez, erantzukizunez eta gardentasunez, eta giza duintasunean, demokrazian eta guztien ongian oinarritutako gobernantza baten alde lan egin beharko da.

Bide horretan, funtsezkoa izango da **elkarrizketa publiko demokratikora-ko** baldintzak sortzea; txikitatik kultura zibikoa sustatzea eta **memoria historiko justu eta zintzoa** transmititzea; eta arazo konplexuen konponbide sinplistei **gardentasunez eta partaidetzaz** erantzutea. Horretarako, berrikuntza politikoa eta lankidetzako gobernantza bilatzen dituzten estrategiak ditugu, baita demokrazia eta komunitate-sena indartu nahi dituztenak ere, guztia ere ikuspegi sormenezko, berritzaile eta lankidetzazko batekin.

2030 Agendak markatzen digu zer helburu handitara bideratu behar ditugun gure eginahalak: mundu jasangarri, justu eta diskriminaziorik gabeko bat, berdintasunaren, inklusioaren, justiziaren eta demokraziaren alde egiten duena. Baina, 17. helburuarekin, "egiteko modu" batzuk ere markatzen dizkigu: helburuak lortzeko aliantzak.


Gizarte gisa, ikasten ari gara ez dela nahikoa gauzak "beti bezala" eta bakar-ka egitea. Aurrera egin ahal izateko, erronka batzuek aldatzea, eboluzionatzea eta hainbat eragilerekin batera lan egitea eskatzen digute. Testuinguru horretan hartzen du garrantzia berrikuntza sozialak.

Plan honek bi alderditan azpimarratzen du kultura demokratikoa indartzea (zeinak lotura handia duen 16. GJHrekin: Gizarte justuak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea): helburu bat da, baina baita egiteko moduak aldatzeko tresna bat ere. Kultura demokratikoa indartzeko, beharrezkoa da komunitatearen eta parte izatearen zentzua handitzea, eta agerian uztea ezen elkarrekin gehiago eta hobeto egin dezakegula eta, batzuetan, elkarrekin jardun ezean lortuko ez dugula.

Alde horretatik, oso kontuan izan behar dugu tokikoa dena. Sortu zene-  
tik, 2030 Agendak lurralde bakoitzaren funtsezko eginkizuna aitortzen du.  
Munduko erronka askok mikromailetara aldatzea eskatzen dute. Era berean,  
gizarte bakoitzak, komunitate bakoitzak, bere errealitatea eta bere ezauga-  
rriak ditu, eta bere berezitasunetik heldu beharko die erronkei eta gauzak  
egiteko moduei. Horregatik, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren  
Plan honen barruan, garrantzi berezia du hizkuntza- eta kultura-aniztasunari  
buruzko 18. GJHa taxutzeko egiten ari den lanak, hartara lurralde bakoitza-  
ren errealitatera egokitu ahal izango baita 2030 Agenda eta, horrenbestez,  
GJHei egindako ekarpena.

---

## **Irismena, esparru orokorra eta printzipioak**





## 5.1 Irismena

Aurreko legegintzaldian bezala, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzak –Komunikazio eta Berrikuntza Sozialeko Idazkaritza Nagusiaren mende– eginkizun hauek ditu, besteak beste: erronka demografikoa, migrazioa eta Eusko Jaurlaritzako sailen arteko koordinazio- eta jarraipen-estrategien bultzada, Jaurlaritzak ekintza bateratua izan dezan trantsizio sozialaren eta 2030 Agendaren arloan, eta Agendaren elkarlan sozial eta erakundeartekoaren dinamizazioa eta jarraipena.

XIII. Legegintzaldi honetan, deskribatutako Europako testuinguruan eta Euskadin demokrazia indartzeko konpromisoa dugularik aurrean, beharrezkotzat jo da kultura demokratikoa indartu eta sendotuko duten berrikuntza sozialeko proposamenak egiteari eskaintzea Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzaren lanaren eta ahaleginaren zati handi bat. Horretarako bidea herritarren, administrazio publikoen eta eremu publiko-pribatuko eragileen parte-hartzean eta inplikazioan oinarritutako jarduera eta proiektu batzuk izango dira, haien bitartez askotariko ikuspuntutatik aztertu ahal izango baita problematika, bai eta proiektua gauzatzeko biderik egokiena zein den ere.

Esparru horretan, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planak jarduteko 4 ardatz ezartzen ditu: (1) Kultura demokratikoa eta komunitate-sena sendotzea eta sustatzea; (2) 2030 Agendaren bidez garapen jasangarrirako helburuak lortzea; (3) Nazioarteko proiektzioa; eta (4) Proiektu partekatuak.

## 5.2 Esparru orokorra

Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda mundu-mailako jokaleku batean planteatu zen. Lurralde bakoitzak bere egoerara egokitu behar du, eta bere politika publikoetarako esparru gisa erabili, garapen jasangarrirako helburuak (GJH) lortzera bideratu daitezten.

Eusko Jaurlaritzak konpromiso irmoa agertu du GJHekiko. Konpromisoa mamitzeko, Euskadi Basque Country 2030 Agenda eta 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa (Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren jarduera-plana) ezarri du, eta aktiboki lerrokatu ditu bere politika publikoak eta planak helburu horiekin.

Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Plana, beraz, 2030 Agendaren eta garapen jasangarrirako helburuen babespean sortu zen, Komunikazio eta Berrikuntza Sozialeko Idazkaritza Nagusiak eta Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzak legegintzaldi honetan izango dituzten jarduera-ildoak ezartzeko asmoz.

Aldi honetarako, lehendakariak 2014ko abuztuaren 29ko hitzaldian jada agerian utzi bezala, garrantzi berezia hartzen du 16. GJHari eman nahi zaion bultzada (“Gizarte justuak, baketsuak eta inklusiboak sustatzea, Euskadin kultura demokratikoa eta komunitate-sena sendotzeko eta sustatzeko palanka gisa”).

## 5.3 Printzipio inspiratzaileak

Printzipio hauek izan dira Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planaren inspirazio:

### I. Lankidetzako gobernantza

Lankidetzako gobernantzak Plan honen inspirazio-esparru gisa balio du; izan ere, haren helburua da askotariko eragileak (herritarrak, administrazioak, erakunde publiko-pribatuak) bilduko dituen lankidetzak- eta partaidetzak-eredu bat izatea oinarrian, hala ziurtatuko baita alderdi interesdun guztiek parte hartzen dutela, erabakiak hartzeko prozesuak gardenak direla, proiektuen diseinu eta exekuzioan inplikatzeko direla eta haietan erantzunkide direla. Ziur gaude lankidetzan aritzea oinarritzko lehiakortasun-faktorea dela eta behar-beharrezkoa izango dela gizarte gisa aurrez aurre ditugun erronkak gainditzeko.

Hori guztia bat etorri 17. GJHarekin, zeinaren helburu nagusia eremu publikoan, publiko-pribatuan nahiz gizarte zibilean aliantzak sustatzea den, zertarako eta 2030 Agenda haien guztien politiken eta jardueren erdigunean kokatzeko, eta 18. GJHarekin –kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren errespetuaren bitartez komunitatearen nortasuna indartzea eta ondarea zaintzea ahalbidetzeko buruzkoa– guztion artean garapen jasangarriari ekarpena egiteko.

## II. Politiken koherentzia

Berrikuntza sozialak eta 2030 Agendak eraldaketa sakonak eta iraunkorrak egin nahi dituzte gure gizartean, planetaren gainerakoa ahaztu gabe. Horretarako, funtsezkoa da politikak koherenteak izatea: horrela bermatuko da ahaleginak elkarren osagarriak izatea, zeharkako begirada izatea eta ondoriozko ekintzak elkarren aurkakoak edo beste eragile edo lurralde batzuentzat kaltegarriak ez izatea.

Hala, maila guztietako politika publikoak diseinatzen, martxan jartzen eta ebaluatzen direnean, giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegia txertatzea da politiken koherentziaren helburua. Horregatik, politiken koherentziaz ari garenean, bi alderdi ditugu hizpide: bata horizontala, erakunde beraren barruan gertatzen dena, eta bestea bertikala, hau da, eremu berak lantzen dituzten askotariko eragileen arteko koherentzia.

## III. Genero-ikuspegia

Plan osoa eta haren jarduketa guztiak sortu nahiz garatzean, ezinbestean agertu beharreko baldintzak dira desberdintasunak desagerraraztea, aniztasuna sustatzea eta ekitatea bermatzea.

Ilido horretan, printzipio inspiratzaile gisa, azpimarratu nahi da beharrezkoa dela, Plan osoa eraiki eta gauzatzean, genero-ikuspegia kontuan hartzen dela bermatzea, genero berdintasunari buruzko 5. GJHarekin bat etorritik, garapen inklusibo eta jasangarrirako funtsezko elementua den aldetik.

Gure ustez, berdintasunaren alde egiten duen plan bat, diskriminatzen ez duen plan inklusiboa izatetik harago, sendoagoa, osoagoa, eraginkorragoa ere izango da.

---


## Planaren jarduera-ardatzak



Datozen urteetan, ongizate eredu jasangarri, inklusibo eta berritzaile bat eraikitzea bideratuko da Euskadiren garapena. Horretarako, esparru estrategiko komuna ezartzen dute Euskadiko XIII. Legegintzaldiko 2024-2028 aldiko Gobernu Programak eta Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planak (2025-2028): haien helburuak eta ekintzak bat datoz, eta herritarren ongizatea, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta gizartearen eraldaketa indartzea bilatzen dute.

Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Plana hiru gai-ardatzetan eta zeharkako ardatz batean egituratzen da. Gobernu Programaren bost ardatz estrategikoak haien osagarri dira, eta hainbat jarduera-arlotan funtsezko sinergiak sortzen dituzte.

Ardatz bakoitzerako (zeharkakoa barne), eraginaren edo emaitzaren adierazleak ezarri dira, hurrengo 4 urteetan zenbateraino garatu edo lortu diren neurtzen lagundu dezaten. Bestalde, ardatz bakoitzean lan-eremu bat baino gehiago bildu da. Eremu horiek zehaztuko dute zein izango diren urtero-urtero zehaztu beharreko ekimenen ildo nagusiak. Azkenik, lan-eremu bakoitzak jardueraren adierazleak ere izango ditu, eta urtetik urtera jarriko da martxan, ekimen zehatzak definituz.



Jarraian, zehatz-mehatz azalduko da nola bat egiten duten XIII. Legegintzal-diko Gobernu Programak eta Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planak Euskadi berritzaile, jasangarri eta inklusiboa eraikitzeko estrategia komun batean. Bi planak estuki lotuta daude, eta ekitatezko garapena, eraldaketa soziala eta hazkunde jasangarria bultzatzen dituen ekintza-esparru koordinatu bat finkatzen dute.

## **1. Pertsonak erdigunean eta kultura demokratikoa**

Gobernu Programaren lehen ardatzak (“Pertsonak erdigunean”) ongizatearen agenda berri bat proposatzen du, oinarrizko eremu batzuk harturik xede, hala nola osasuna, hezkuntza, enplegua, etxebizitza eta gizarte-zerbitzuak. Ikuspegi hori bat dator Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planaren 1. ardatzarekin, kultura demokratikoa eta bizikidetzak bultzatzen baititu, gizarteratzea eta giza eskubideen errespetua bermatuz.

Era berean, ardatz hori Planaren 2. ardatzari lotzen zaio, hots, garapen jasangarrirako helburuak (GJH) lokalizatzea funtsezko alor batzuetan; adibidez, ekitatea osasunean, hezkuntzan eta enpleguan. Gainera, 4. ardatzak –zeharkakoa Planean– ikuspegi hori indartzen du, berrikuntza sozialeko ekimenekin eta zaintza-estrategia berriekin, Euskadin ekitate eta kohesio handiagoak izateko ekarpena eginez.

## **2. Hazkundera eta ongizatea berrikuntza sozialaren bidez**

Gobernu Programaren bigarren ardatza, “Hazkunde- eta ongizate-eredua”, ekoizpen-sarearen eraldaketan zentratzen da, berrindustrializazio jasangarri baten eta kalitatezko enplegua sustatzearen alde eginik. Ardatz horrek zuzeneko lotura du Berrikuntza Sozialaren Planaren 2. ardatzarekin, jasangarritasun ekonomikoa eta inklusio finantzarioa sustatzen baititu garapenerako motor gisa.

Gainera, Planaren 4. ardatzak politika horiek indartzen ditu, berrikuntza soziala ekonomiaren arloan sartzeko baitu eta, beraz, ekonomia soziala, ekin-tzailtza eta digitalizazioa sustatzen. Horrela, eredu ekonomiko erresilientea go eta jasangarriago baterantz doa Euskadi.

## **3. Eraldaketa energetikoa, jasangarritasuna eta hiri-garapena**

Gobernu Programaren hirugarren ardatzak (“Eraldaketa energetikoa eta jasangarritasuna”) klima-aldaketa arintzeko eta trantsizio energetiko ordena-

tua bermatzeko beharrari erantzuten dio. Horretarako bidea ekonomia zirkularra eta hirien berroneratzea bultzatzea da.

Ardatz horrek lotura estua du Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planaren 2. ardatzarekin, zeinak politika publikoetan integratzen baititu ingurumen-arloko GJHak, eta Euskadi berdeagoa eta jasangarriagoa sustatzen. Era berean, Planaren 4. ardatzak ekimen horiek laguntzen ditu, mugikortasun jasangarriko estrategia berritzaileen eta hiria garatzeko eredu adimendunen bitartez, hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren jasangarritasuna bateragarriak direla bermatuz.

#### **4. Bizikidetzak, giza eskubideak eta gobernantza demokratikoa**

Gobernu Programaren laugarren ardatzak ("Bizikidetzak, memoria eta giza eskubideak") gizarte-kohesioa indartu eta genero-berdintasuna, aniztasuna eta gisako balioak sustatu nahi ditu. Helburu hori guztiz bat dator Berrikuntza Sozialaren Planaren 1. ardatzarekin, azken hori kultura demokratikoan, herritarren parte-hartzean eta memoria historikoan zentratzen baita.

Gainera, Planaren 4. ardatzak funtsezko eginkizuna du arlo horretan, inklusiozko eta partaidetzako gobernantza sustatzen baitu, erakunde eta herritarren arteko lankidetzarako pizgarriak emanez, politika publikoetan konfiantza sendotzeko.

#### **5. Autogobernua eta nazioarteko proiektzioan haztea**

Gobernu Programaren bosgarren ardatzak ("Autogobernua haztea") estatutu-esparru berri bat finkatzea eta Euskadiren nazioarteko proiektzioa indartzea du helburu. Ardatz hori hertsiki lotuta dago Berrikuntza Sozialaren Planaren 3. ardatzarekin; izan ere, Euskadi nazioartekotzea eta GJHen berrikuntza eta lokalizazioan erreferente bihurtzea sustatzen du azken horrek.

Era berean, Planaren 4. ardatzak indartu egiten du esparru estrategiko hori, administrazio publikoa digitalizatzeko eta modernizatzeko neurrien bidez, tokiko eta nazioarteko gobernantza-eredu irekiak eta lankidetzakoak sustatuz.

## **6.1 1. ardatza: Kultura demokratikoa eta komunitate-sena indartzea eta sustatzea**

Mundu modernoa abiadura bizian ari da eboluzionatzen eta aldatzen. Gainera, dena global bihurtu denez eta elkarrekiko loturak gero eta handiagoak direnez, gure gizartearen arazoak gero eta konplexuagoak dira, lausoagoak, zehaztuga-beagoak edo ilunagoak, eta, zenbaitetan, kontrajarriak ere bai. Funtsezkoa da egungo arazoei eta erronkei ikuspegi holistiko eta bateratu batetik heldzea, eta, horretarako, administrazio publikoek gizartearen inplikazioa behar dute.

Hala ere, bizi garen garaietako beste ezaugarri bat da herritarrek lotura ahulagoa dutela politikarekin eta administrazio publikoarekin, baita komunitatearekin ere. Urruntasun hori tarteko, herritarrek desafekzio handiagoa dute politikarekin eta erakundeekin lotutako ororengana, eta, aldi berean, komunitate-sentimendua ere ahultzen da.

Horrek guztiak politika publikoak eta ekintza instituzionala pentsatzeko eta garatzeko moduak birformulatu behar izatera garamatza. Egoera horren aurrean, oinarritzakoa da euskal gizartearekin betidanik oso lotuta egon den elementu bat indartu edo berreskuratzea: auzolana edo ekintza komunitarioa. Herritarren parte-hartzea eta deliberazioa funtsezkoak izango dira gure garapenerako eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Horiek izango dira hobetzeko eta kultura demokratiko irmo eta sendoa duen gizarte bat eraikitzeke oinarriak. Lankidetzako gobernantzak izan behar du kultura horren euskarria, eta, aldi berean, lurraldearen lehiakortasunerako faktoretzat ere hartu behar da.

Garapen jasangarrirako 16. helburuaren (GJH) arabera, gainera, gobernuek, gizarte zibilak eta komunitateek elkarlanean aritu behar dute gatazkei konponbide iraunkorrak aurkitzeko eta parte-hartze inklusiboa sustatu behar da.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren helburuetako bat da berrikuntza politikoan eta lankidetzako gobernantzan sakontzea. Horretarako, beharrezkotzat jo da Lankidetzako Gobernantzaren Esparru Kontzeptuala definitzea. Lankidetzako gobernantza-esparru horrek esanahia, orientazioa eta koherentzia emango die Lehendakaritzak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako prozesu eta proiektuei. Era berean, demokrazian irmoago sakontzeko aukera emango du, bai eta askotariko eragileak bildu, sinergiak optimizatu eta inpaktua maximizatzea ere, Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legean xedatutakoaren ildotik halaber.

Proiektu horiek herritarrekiko harremana sakontzea, erantzunkidetasuna indartzea eta politika publikoetan gehiago parte har dezatela bilatzen duten prozesuak edo lan-ildoak izan daitezke, eta askotarikoak izan daitezke (adibidez, hor kokatuko da Euskadiko Klima Konferentzia, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak sustatua, zeina Trantsizio Energetikoaren eta Klima Al-



daketaren Legeari jarraikiz garatuko baita). Gainera, Lehendakaritza arduratuko da Eusko Jaurlaritzako sailek demokrazian sakontzeko sustatutako proiektuak ebaluatu eta ikuskatzeaz.

Lankidetzako Gobernantzaren Esparru Kontzeptuala abian jartzeko, eragile hauek biltzen dituen lantalde bat sortu da: Jaurlaritzatik Gobernantza Saila eta Lehendakaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arantzazulab eta Orkestra. Lantalde eragile horren hasierako erantzukizunak hauek izango dira, nagusiki: (1) Lehendakaritzaren Lankidetzako Gobernantzaren esparru kontzeptuala definitzea, Berrikuntza Sozialaren 2025-2028 aldiko Planaren lehenengo ardatzari erantzunez eta jarraikiz; eta (2) lan-eremuak adostea eta jarduteko esparru bat diseinatu eta abiaraztea (proiektuen portfolioa). Haien artean, Euskadin talentua kudeatzeko gobernantza-ereduaren definizioa nabarmenduko da. Guztia ere Eusko Jaurlaritzaren agenda estrategikoarekin koordinaturik (alegia, funtsezko eremuetan jauzi kualitatiboak emateko definitutako eraldaketa-ardatzekin).

**Inpaktu edo emaitzaren adierazle** hauek balioko dute ardatz hau monitorizatzeko:

- I.1.1: Konfiantza erakundeengan.
- I.1.2: Hauteskundeetako parte-hartzea.
- I.1.3: Gizarte eta politikako parte-hartzea.

Hurrengo urteetan garatuko diren lan-eremuei dagokienez, hauek zehaztu dira:

- 1.1 Kultura demokratikoaren gaineko komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalkundea.
- 1.2 Herritarren parte-hartze eta deliberaziorako prozesuak bultzatzea.
- 1.3 Zeharkako esparru estrategiko eta arauzko bat garatzea, kultura eta kalitate demokratikoa indartuko dituen, Europako esparruarekin bat etorriz, hainbat alor barne harturik, hala nola gobernu ona, gardentasuna, integritate eta eredugarritasun publikoa, kontuak ematea, eta lankidetzako eta komunitateko gobernantza.
- 1.4 Gobernu irekiko proiektua garatzea, OGP Euskadi 2025-2028 Planaren esparruan.

### **6.1.1 Kultura demokratikoaren gaineko komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalkundea**

Lan-eremu honek herritarrengan eragin nahi du, kultura demokratiko sendoa izango duen gizarte bat eta lankidetzako publiko-pribatuen bidez politika publikoen diseinuan nahiz ezarpenean inplikatu den komunitate bat eraikitzearen garrantziaz jabetu daitezen.

Horretarako, sentsibilizatzeko eta trebatzeko ekimenak eta eztabaida-foroak jarriko dira abian, baita beste ekimen irekiago edo dibulgaziozko batzuk ere; adibidez, kultura demokratikoa sustatzeko eta komunitate sendo bat eraikitzeke filosofia kontuan hartzen duten era askotako ekitaldi publikoak egitea.

Alderdi horretan, garrantzitsua da ondo informatutako herritarren parte-hartzea, ezagutza lortzeko aukera ekitatiboa eta gardentasuna sustatzea, desinformazioari egiazko informazioaren bidez aurre egin ahal izateko.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.1.1.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.1.1.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.1.1.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.1.1.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.

## **6.1.2 Herritarren parte-hartze eta deliberazio-prozesuak bultzatzea**

Herritarren parte-hartzea sustatzea funtsezkoa da, baldin eta gure gizartean jendea erakundeetatik gertuago egotea nahi badugu, eta loturak eta sinergiak sortzea, gaur egun nahiz etorkizunari begira agertzen zaizkigun erronkei erantzun holistikoak ematen lagundu dezaten. Herritarren parte-hartzeaz busti behar ditugu gure egunerokoa eta kudeaketa-moldeak.

Plan honen indarraldian, entzute aktiboko, herritarrek parte hartzeko eta deliberazio demokratikoko hainbat prozesu jarriko dira abian, iritzi desberdinak sortzen dituzten askotariko gai ei buruzkoak, herritarren iritzia zein den jakin eta hartutako azken erabakien aberasgarri izan litezkeen ekarpenak biltzeko.

Hauekin lotutako gaiak lantzea aurreikusten da:

- Kultura eta jasagarritasuna.
- Energia berriztagarriak.
- Belaunaldien arteko elkartasuna.

Eusko Jaurlaritzako sailekin lankidetzan egingo da hori guztia.

Jada ari gara bide horretan aurrera egiten, baina ibilbide luzea dugu aurretik. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu martxan jarri diren partaidetza-prozesuen jarraipena, balorazioa eta ebaluazioa egitea ere, emaitzak neurtu eta hobetu beharreko eremuak zein diren identifikatu ahal izateko.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.1.2.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.1.2.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.1.2.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.1.2.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera berezita.

### **6.1.3 Zeharkako esparru estrategiko eta arau-esparru bat garatzea**

Zeharkako esparru estrategiko eta arau-esparru bat garatuko da, kultura eta kalitate demokratikoa indartuko dituena, Europako esparruarekin bat etorriz, hainbat eremu barne harturik, hala nola gobernu ona, gardentasuna, integritate eta eredu-garritasun publikoa, kontuak ematea, eta lankidetzako eta komunitateko gobernantza, besteak beste, eta, ikuspegi barnehartzaile horretatik, demokrazia sendotzen duten ekintzak eta berme-mekanismoak instituzionalizatuko ditu, kasurako, Gardentasunaren Legea.

**Jarduera-adierazle** honek balioko du lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.1.3.1: Zeharkako esparru estrategiko eta arau-esparrua onartzea.

### **6.1.4 Gobernu irekiko proiektua garatzea, OGP Euskadi 2025-2028 Planaren esparruan**

Gizarte zibilarekin lan egitea da kontua, esku-hartze publikoa behar duten arazoei politika publikoen lehentasunezko zer arlotatik heldu nahi zaien zehazteko. Gaur egun, tokiko OGPko kideen planek kontuan hartzen dituzte generoa, inklusioa, gobernantza digitala, espazio zibikoaren babesa, baliabide naturalen kudeaketa, ustelkeriaren aurkako borroka..., beste eremu batzuen artean. Haietan esku hartu behar da hautemandako arazoetako batzuk gobernu irekiaren printzipioak aplikatuz konpontzeko.

**Jarduera-adierazle** honek balioko du lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.1.4.1: OGP Euskadi 2025-2028 Plana onartzea.

## **6.2 2. ardatza: Garapen jasangarrirako helburuak lortzea 2030 Agendaren bidez**

Eusko Jaurlaritzan bi legegintzaldi daramatzagu gure politikak eta programak garapen jasangarrirako helburuei lotzen, geure ibilbide-orria zehaztuz eta garatuz:

- Euskadi Basque Country 2030 Agenda (2017-2020).
- 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa (2021-2024).

### **Euskadi Basque Country 2030 Agenda (2017-2020)**

NBEk 2015ean zehaztutako 17 GJHei Eusko Jaurlaritzatik lehen erantzun bat emateko sortu zen Euskadi Basque Country 2030 Agenda.

Hasteko, Gobernu Programa eta politika sektorialak NBEk 2015ean zehaztutako 17 GJHen helburuekin eta jomugekin lerrokatzea eta haiei ekarpena egitea landu zen legegintzaldi horretan.

### **2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa (2021-2024)**

Hurrengo legegintzaldian, Eusko Jaurlaritzak beste aurrerapauso bat emateko apustua egin zuen, eta aurretik landutako lerrokatzeaz harago joateko helburua ezarri zuen. Ideia hori buruan, 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa jaio zen. Lehendakaritzatik Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sustatutako legegintzaldi-plan bat izan zen programa hori. GJHen aldeko

sail arteko eta erakunde arteko konpromisoa dinamizatu, koordinatu eta sustatzea zuen xede, eta lau lehentasun-ardatz ezarri zituen:

1. Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa.
2. Koordinazioa eta lankidetzaren gobernantza.
3. Lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa.
4. Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak.

### XIII. Legegintzaldirako planteamendua

XIII. Legegintzaldi honetan, bigarren ardatz honek bilduko du 2030 Agendaren bidez garapen jasangarrirako helburuak lortzeari buruzko jarduera guztia. Lehen aipatu bezala, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planak barne hartzen du ardatz hori, eta baditu beste ardatz batzuk ere, lehen 2030 Agendaren aterkipean zeuden zenbait alderdi nabarmendu edo aintzat hartzeko finkatu direnak.

Ardatzaren helburu nagusia da aurrera egitea: bai GJHen eta 2030 Agendaren ezagutzan eta dibulgazioan, bai euskal gizartea osatzen duten pertsona eta eragile guztien konpromiso partekatuan, Garapen Jasangarrirako Helburu horiek lortu, eta, era berean, GJH berri baten konfigurazioan aurrera egiteko, hau da, 18. GJHa: Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna.

**Adierazle honek** balioko du ardatz hau monitorizatzeko:

- I.2.1: Adierazle guztietatik, zer portzentajek agertzen duen joera ona<sup>1</sup>.

Hurrengo urteetan garatuko diren lan-eremuei dagokienez, hauek zehaztu dira:

- 2.1 18. GJHa (kultura- eta hizkuntza-aniztasuna) konfiguratzeko.
- 2.2 GJHen komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalkundea.
- 2.3 Herritar anonimoen inplikazioa.

<sup>1</sup> [https://www.eustat.eus/indicadores/id\\_1/ods.html](https://www.eustat.eus/indicadores/id_1/ods.html)

### 6.2.1 18. GJHa (kultura- eta hizkuntza-aniztasuna) konfiguratzeko

Pertsonak nahiz gizarteak garatzeko, 2030 Agendan hizkuntza eta kultura guztiak daudela eta aintzat hartzen direla aldarrikatu eta bermatu nahi duen helburua da GJH 18. Hala Euskadin nola planetako beste leku askotan, hainbat jarduera egiten ari dira hizkuntza- eta kultura-aniztasunari lotutako 18. GJHa txertatzeko.

Euskadin, GJH berri hori txertatzeko ekimena 2017 eta 2018 artean sortu zen, Hizkuntza Ondarearen Katedraren eskutik, eta orduz geroztik hedatzen jarraitu du lan-ildo horrek.

2023an, Eusko Jaurlaritzak 18. GJHa eduki espezifiko hornitzeko prozesu bat jarri zuen abian 2030 Agendaren esparruan. Horretarako, bi prozesu paralelo ireki eta haien baitan txosten bana egin zen, bata kulturaren oinarritua eta bestea hizkuntzan; gerora, GJH bakar batean bildu ziren biak ala biak. Lan horren emaitza 18. helburuaren zehaztapena eta hura lortzeko 20 jomugako proposamen bat izan ziren.

Datozen urteetan bi ildo nagusi landu nahi dira zeregin horretan jarraitzeko:

1. 18. GJHaren sozializazioa eta zabalkundea Euskadin.
2. Nazioarteko esparrua lantzea, NBEren eremuan 18. GJHa onar dadin lortzeko.

Hauek dira ardatz nagusiak: (1) garapen pertsonala eta komunitarioa, (2) jasangarritasuna adiera zabalean, eta (3) haien arteko erlazioak sortzen duen balio publikoa. Gakoak honako hauek dira: jardunbide kulturalak gizartearen ongizatean betetzen duten eginkizuna, eten digitala eta genero-arrakala murriztea, ikaskuntza- eta sozializazio-espazioak sortzea, eta hizkuntza- eta kultura-eskubideak erabiltzea, Kulturaren Euskal Legea ezartzeko helburu asmo handikoarekin. Euskal kultura-sistemaren kobernantzak erakunde publiko nahiz pribatuak hartzen ditu barnean; besteak beste, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, gizarte eta sektore pribatua, eta partaidetza handiagoa izan behar dute.

Museoek, antzokiek, liburutegiek eta bestelako ekipamenduek osatutako kultura-sareak konektatu eta indartu behar direla azpimarratzen da. Ildo horretan, dagoneko martxan da "Sareko liburutegiak GJHekin" proiektua, eta proiektu pilotuak egin dira Azkuna Zentroarekin, Artium Museoarekin eta Tabakalerarekin. Ondorioz gida praktikoa bat atera da argitara, "2030 Agenda. Kultur ekipamenduak Euskadin", ekipamendu berriak errazago atxiki daitezela. Ahalegin horren arrazoiak bi dira. Batetik, Euskadin 20.000 kultura-jarduera egiten direla urtean, eta, bestetik, Balio Publikoaren Teoria ezarri dela, honela definituta: baliabide egokien bitartez eta komunitatearekin harremanean kudeatu diren ekintza publiko nahiz publiko-pribatuen ondorioz lortutako onura erreal nahiz ustekoak.

Azkenik, egungo eredu politikoa aldatzea planteatzen da erronka gisa, politika publikoen bazterretan kokatu ohi baita kultura. Asmoa da estrategien erdigunean jar dadila, 2023-2028 aldirako Kultura Planak ezartzen duen bezala. Aldaketa horretarako zenbait gako proposatzen dira: sormena eta berrikuntza talentua sustatzeko, ekintzailtza garapen ekonomikorako, parte-hartzea eta ahalduntzea gizarteak aurrera egin dezan, eta aktibo kulturalak demokratizatzea, teknologien bitartez. Guztia ere auzolanaren estrategian bermatuta, elkarlana, lankidetzeta eta baliabide nahikoak harturik oinarri, erantzun egokiak eman eta gizartearekin lotura duen garapen kultural jasangarria eraikitzeko.

Azkenik, 18. GJHa behin betiko sar dadin Euskadiko 2030 Agendan eta 18. GJHaren euskal estrategia Nazio Batuen agendan kokatu dadin, bereziki, UNESCOren eta nazioarteko beste foro batzuen esparruan, lantalde bat jarriko da abian, 18. GJHa sustatzeko berrikuntza-laborategi gisa.

Donostian egongo da laborategi hori eta, besteak beste, partaide hauek izango ditu: Tabakalera, Kutxa Fundazioa, Zinemaldia, Donostiako Bulego Estrategikoa eta UN Etxea. Euskadi 2030 egoitzaren bitartez, koordinatuta lan egingo du, bai Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzarekin, bai Nazio Batuen Local 2030 Koalizioaren ekosistemako gainerako hub edo zentroekin (adibidez, Hawaiiikoa edo Paranakoa).

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.2.1.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.2.1.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.2.1.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.2.1.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.

## 6.2.2 GJHen komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalkundea

Lan-eremu honen barruan 2030 Agendari lotutako askotariko proiektuak sustatu nahi dira: sentsibilizazio-, aitorpen- eta prestakuntza-programak; agenda erakundeetan txertatu, gizartean zabaldu eta ezagutzera emateko ekintzak sustatzekoak eta hura belztu nahi duten zurrumurruek desaktibatzeak; eta herritarrek haren edukiaren gainean parte hartzeko ekimenak. Konpromiso zibikoaren kultura indartzea proposatzen da, pertsona bakoitzak subjektu politiko aktibotzat har dezan bere burua, eta ez boto-emaile soiltzat. Herritarren zuzeneko inplikazioa erraztu behar dugu.

Azken batean, 2030 Agenda ezagutarazi nahi da, bai sentsibilizazio-mailan, bai prestakuntza-mailan, eta herritarrek nahiz gizarte-eragileak zenbait ekimen egiten hastea, beren harri koxkorra jar dezaten GJHak lortzeko.

Ildo horretan, GJHak enpresen eta erakundeen kudeaketan sartzeko esparrua nabarmendu behar da, Euskalitekin batera garatua. Haren helburua, nagusiki, GJHek eta 2030 Agendak erakundeen lehiakortasun jasangarrian duten garrantziaz sentsibilizatzea da. Helburu horretan, funtsezko zeregina izan behar dute Garapenen bildutako tokiko eta eskualdeko garapen-agentziek, Euskadiko lurralde-garapeneren eragile diren aldetik.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.2.2.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.2.2.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.2.2.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.2.2.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.



### 6.2.3 Herritar anonimoen inplikazioa

Ardatz honen azken lan-eremua herritarren inplikazioan zentratzen da, gizartearen parte-hartze aktiboa funtsezkotzat jotzen baita aldaketa iraunkorrak bultzatzeko eta ingurumena gehiago zaintzen duen mundu justu eta inklusiboagoa eraikitzeko. Hori lortzeko, ezinbestean sustatu behar dira kontzientziarioak, konpromisoa eta ekintza, maila guztietan, bakarka nahiz komunitatean eta taldean, eraldaketa eraginkorra eta iraunkorra bermatze aldera.

Hala ere, herritarren parte-hartzearen inpaktua askoz ugariagoa da kolektiboki jarduten denean, gizarte-ehuna indartzen eta guztion ongizatea hobetzen baitira. Benetako aldaketa sistemikoa lortzeko, funtsezkoa da herritar anonimoek esku hartzea, eta horretarako elkarrizketarako espazioak eta parte hartzeko mekanismoak jarri behar dira. Azken batean, 2030 Agenda mundu osoaren erronka bat da, eta gizarte osoaren parte-hartze aktiboa eskatzen du. Kontzientziarioaren, norbanakoen konpromisoaren eta ekintza komunitarioaren bidez, herritarrek berebiziko garrantzia izan dezakete etorkizun jasangarriagoa eraikitzen.

Ahalegin guztiak batzen direnean, harri koxkor bakoitzak aldaketa handiak ekar ditzake gizadiak ingurumenaren, ekonomiaren, gizartearen nahiz kulturaren arloan gainditu behar dituen erronken aurkako borrokan. Eraldaketa eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da herritar anonimoen aktibazioa eta inplikazioa erraztuko duen ingurune bat sortzea, hala lankidetzaren eta erantzunkidetasun handiagoa ahalbidetuko da-eta irtenbide jasangarriak bilatzeko.

Helburu horrekin, ekimen nabarmengarria da, adibidez, Gobernu Irekirako Aliantza (Open Government Partnership edo OGP), non 2018tik Euskadik parte hartzen duen. Erreferentziazko nazioarteko erakunde bat da, gobernu "irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentikorragoak" sustatzeko mekanismoak ebaluatu eta garatzeko. Alderdi horretan, Euskadiko herritarren parte-hartzerako iLab ekimena nabarmendu daiteke. Partaidetzaren berrikuntza lagundu eta bultzatzeko laborategi horrek prospekzioa, esperimentazioa eta transferentzia ditu horretarako bideak.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.2.3.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.2.3.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.2.3.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.2.2.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.

### 6.3. 3. ardatza: Nazioarteko proiektzioa

Plan honen hirugarren ardatza nazioarteko proiektzioa da. Alderdi garrantzitsua da, zeren ekonomiaren, gizartearen, ingurumenaren eta kulturaren arloan gaintitu behar ditugun erronkak mundu-mailakoak eta elkarren mendekoak baitira hein batean; hau da, neurri handiagoan edo txikiagoan eta aldez edo moldez, gure lurralde eta gizartearen nahiz munduko beste lurralde eta gizarte batzuetan eragina dute erronka horiek.

Horrenbestez, lurralde bateko jarduerak beste lurralde batean eragina izan dezaketenez, litekeena da baterako jarduerak egin behar izatea, edo, besterik gabe, interesgarria izan liteke eragile bakoitzak abian jartzen dituen ekimenen berri ematea, bakoitzaren akatsetatik eta arrakastetatik ikasteko.

Adierazle hauek balioko dute ardatz hau monitorizatzeko:

- I.3.1: Nazioarteko zenbat ekitaldi antolatu diren.
- I.3.2: Nazioarteko zenbat ekitalditan parte hartu den.
- I.3.3: Zenbat akordio dauden indarrean nazioarteko proiektzioarekin zerikusia duten eragileekin.

Hurrengo urteetan garatuko diren lan-eremuei dagokienez, hauek zehaztu dira:


- 
- 3.1 Akordioak nazioarteko eragileekin.
  - 3.2 Akordioak tokiko eragileekin.
- 

#### 6.3.1 Akordioak nazioarteko eragileekin

Dokumentu honetan zehar aipatzen den bezala, mundu gero eta globalizatua go batean bizi gara. Horregatik, tokian tokitik jardutea ezinbestekoa den arren, beharrezkoa da nazioarteko aliantzak sortu eta mantentzea ere. Zentzu horretan, Euskadin mugarri handi bat jarri zen 2022ko urriaren 22an, Local 2030eko Koalizioaren Idazkaritza inauguratu baitzen.

#### Local 2030 Koalizioaren Idazkaritza

Garapen jasangarrirako helburuen (GJH) lokalizazioa bultzatzeko eta bizkortzeko Nazio Batuen sistema osoaren plataforma eta sarea da Local 2030 Koalizioa. Hartan biltzen dira Nazio Batuen sistema, tokiko eta eskualdeko gobernuak eta haien sareak, gobernu nazionalak, sektore pribatua eta erakunde komunitarioak, lankidetzaren sustatu, berrikuntzari bide eman, konponbideak trukatu eta estrategiak finkatzeko, guztia ere tokiko eragileei 2030 Agendaren helburuak lortzen laguntzeko.



GJHei buruzko azterketek helburu guztietan identifikatu dituzte zenbait sarrera-puntu eraldatzaile –edo funtsezko trantsizio–, helburuak betetzeko funtsezko eginkizuna dutenak, eragin katalizatzaile eta biderkatzailea dutelako. Bestek beste, honako hauek: (1) elikadura-sistemak; (2) energia eskura eta arazoizko prezioan; (3) konektagarritasun digitala; (4) hezkuntza; (5) enplegua eta gizarte-babesa; eta (6) klima-aldaketa, biodibertsitate-galera eta kutsadura.

### Local 2030 zentroak: HUB Euskadi 2030

Nazio Batuen 2030erako Idazkaritza Nagusiari lotuta, Nazio Batuen Local 2030eko hub-sarearen parte izan nahi du Euskadik. Local 2030 zentroek tokiko hainbat lehenetasun lantzen dituzte, baina ezagutzak trukatzeko dituzte toki-eragileak eraginkorki koordinatzeari, maila askotako erronkei eta munduan errepika daitezkeen tokiko inpaktu-ereduei buruz.

Hub propio bat osatzeko proposamena justifikatuta dago, Nazio Batuen Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzak Euskadin duelako egoitza global eta iraunkorra. Horiek horrela, Euskadi mundu osoan izan da erreferentzia-puntua GJHak lokalizatzeari eta maila anitzeko koherentzia nahiz lankidetzeta publiko-pribatua sustatzeari dago-kienez, 2030 Agenda benetan ezar dadin.

Hala, Euskadik 2030 Agendaren lokalizazioan aurreratutako lurralde gisa egin duen bidea sendotzera dator Hub Euskadi 2030, Euskadin garatutako ekimenak harturik oinarri. Izan ere, eragile anitzeko eta maila anitzeko gobernantzaren bidez, ekimen horiek funtsezko oinarria dira Euskadin epe luze iraunkor bat eraldatu eta eraiki dadin, GJHen lokalizazioan planeta osora hedatzeko modukoa. Horretara-

ko, eragile publiko eta pribatuak mobilizatu eta koordinatuko ditu Hub Euskadi 2030ek, sistematikoki, elkarloturik eta egonkorki. Hala, dauden ekimenak handitu, hedatu, kasu-azterketak garatu, eta munduko komunitatearekin lotuko ditu Local 2030ekin elkarlanean. 2030 Agendaren lokalizazioa, Euskadin, ardatz hauen inguruan egituratzen da:

- **Herritar kontziente eta parte-hartzaileak aktibatzea, 2030 Agendaren erronketan protagonista izango direnak.** Kultura, hezkuntza, komunikazioa, sentsibilizazioa eta kontu-ematea, emari demokratikoa sortzeko eta herritarrek lurraldearen garapen jasangarriko erronketan zeresanik dutela sentitzeko, horrek mesede egingo baitio 2030 Agendaren eta garapen jasangarrirako helburuen inguruan beharrezkoa den lankidetzeta-gobernantzari.
- **Berrikuntza sortzea eta tokiko eragileak gaitzea** (lurralde-erakundeak, enpresen sarea eta gizarte-ekonomiakoa, gizarte zibila eta akademia, teknologia-zentroekin eta berrikuntza-ekosistemekin batera), antolamendueredu bakoitzaren kudeaketan garapen jasangarria txertatu eta lankidetzeta publiko-pribatura bideratu dadin, GJHen aurrerapausoetan jauzi kualitatibo emate aldera.
- **Ibilbide-orriak diseinatzea elkarrekin** (planak, epe luzeko politika publikoak nahiz berrikuntza-proiektu zehatzak), lurraldean eta lurraldetik GJHak lortzeko asmoz. Lokalizazio-estrategiarako zehaztu diren palanka-politiken eta ekintza-ildoen esparruan, aurrerapausoak emango dira askotariko eragile publiko eta pribatuek bide-orriak sor ditzaten elkarrekin, misio partekatuen ikuspegi sistemiko eta diziplinaz haraindiko batekin. Hartara, haien inplementazioan errazagoa izango da errotiko lankidetzeta, eta helburu partekatuekin lerrotatuko dira gaitasunak, baliabideak, berrikuntza, teknologia eta datuak, haien eraginkortasuna eta GJHen gaineko inpaktua optimoa izan daitezen.
- Epe ertain eta luzeko **inbertsio publiko eta pribatu jasangarria** GJHen epe luzeko bide-orri, plan, politika eta proiektu sendo, berritzaile, egonkor eta aurreikusgarriekin lotzea.
- **17. GJHaren berezko narratiba kualitatibo bat eraikitzea** arestiko ardatzen inguruan, borondatezko jarraipen-txostenaren (VLR) gidalerroen oinarri kuantitatiboa osatze aldera, eta mundu osoko beste lurralde batzuekin eta nazioarteko inguruneekin konektatzea, nazioartekotze-estrategia baten bitartez, Local 2030eko Koalizioaren Idazkaritzarekin eta lokalizazio-hubekin harreman estuan.

## Akordioak nazioarteko eragileekin

Azkenik, nazioarteko eragileekiko akordioei buruzko lan-eremuaren barruan, honako hauek aipatu behar dira:

- **ELGA**  
Euskadik hiri eta eskualdeetan GJHak eta Garapen Globalerako Agendak lokalizatzeke ELGAREN programan parte hartzen du: "Hiriak eta eskualdeak inplikatzen, inor atzean geratzen ez dela bermatzeko".  
Programaren bitartez babesa eman nahi zaie GJHen lurralde-ikuspegia sus-

tatu nahi duten hiri eta eskualdeei, ELGaren batez bestekoan eta intereseko eskualdeen aldean zer kokapen duten neurtzeko aukera emanez.

Gure kasuan, besteak beste, eskualde hauekin egingo dira konparazioak: Flandria, Gales, Cordoba (Argentina) eta AEBko beste eskualde batzuk (ziur-errenik Los Angeles hiria) eta Japonia.

Programa Laburpen Txosten batekin amaitzen da, eta hor GJHen lurralde-ikuspegia hobetzeko esparru analitiko integral bat sartzen da, besteak beste, honako hauek jasotzen dituen:

- Zer egoeratan dagoen eskualdea GJHei dagokienez, ELGaren batez bestekoaren eta konparatutako errealitateen aldean.
- Aztertutako eskalan GJHak lortzeko indarrean dauden politika-esparruen azterketa, eta haien behin-behineko emaitzak orain artean.
- GJHak plangintza- eta inbertsio-erabakietan txertatzeko gomendio batzuk eta ekintza-plan bat, non mugarri zehatzak, erakunde sustatzaileak eta jarraitu beharreko bidea identifikatuko diren.

- **2030 Agendako GJHen Eragile Anitzeko Europako Foroa**

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimena da, eta Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordeak esku hartzen du.

Helburua da Europako foro bat bultzatzea tokiko nahiz eskualdeko agintarientzat, sinergiak sustatu eta ezagutza eta jardunbide egokiak truka ditzaizen GJHen eta 2030 Agendaren esparruan, eta, era berean, urtero foro bat antolatzea ekimen horiek aurkezteko.

GJHen Europako Ituna bultzatzeko giltzarria izango da ekimen hori, eta Europako hainbat ekimen izango ditu inspirazio: esaterako, Gaitasunen aldeko Ituna eta haren konpromiso, emaitza eta inpaktu zehatzak.

Euskadirekin batera, kide hauek parte hartzen dute foroa eratzeko talde eragilean: Bavarian SDG Platform, Scotland's Social Enterprise Strategy, Tuscany's Multi-stakeholder SDG Working Groups, Nordic Sustainable Business Transformation, Flemish Sustainable Development Goals Platform eta Åland uharteak.

- **2030CATALYSTS Programa**

Europako lurraldeetan oraindik aldeak daude garapen jasangarrirako helburuen ezarpenean eta, beraz, premiazkoa da estrategia kohesibo eta eraldatzaileak abiaraztea, helburu horiek bizkorrago bete daitezzen. Ildo horretan, "2030CATALYSTS" programak GJHak lortzeko bidean aurrera egiten laguntzea eta Europako lurraldeen arteko arrakala desagerraraztea bilatzen du. Europako 20 eskualde gonbidatuz –Euskadi ere hautatu dute– GJHen arteko loturak kontuan hartuko dituen ikuspegi osokoa sustatu nahi da. Helburuen artean honako hauek daude:

- Monitorizazioa eta ebaluazioa: GJHak lortzeko aurrerabidearen jarraipena egitea eta arreta handiagoa behar duten arloak identifikatzea.
- Sektoreen lankidetzak: Sektore arteko lankidetzak sustatzea, garapen jasagarriko erronkei batera heltzeko.
- Ikaskuntza gurutzatua: Mugaz gaindiko lankidetzak eta ikaskuntza erraztea, datu bateratuak emanez.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.3.1.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.3.1.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.3.1.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.3.1.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.

### **6.3.2 Akordioak tokiko eragileekin**

Nazioarteko proiektuak indartzeko, tokiko eragileekin elkarlanean aritzea ere bilatzen da. Aliantza horien helburua da Euskadin egiten ari den lana ikustera ematea, bai Europan, eta bai mundu osoan ere. Horretarako, hainbat proiektu bultzatuko dira euskal unibertsitate-sistemeekin eta sektore pribatuarekin, bereziki Euskadiko banku-fundazioekin.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.3.2.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.3.2.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.3.2.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.3.2.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.

## **6.4 4. ardatza: Berrikuntza sozialaren eta 2030 Agendaren arloan gainerako erakunde eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturalekin partekatzen diren proiektuak**

### **Gobernu-programa GJHeKin lerrokatzea**

EAEk 2030 Agendarekin duen konpromisoa argi islatzen du bi mugarri hauekin hasitako ibilbideak: Lehen Euskadi Basque Country Agendaren onarpena, 2018ko apirilaren 10eko Erabaki bidez, eta Euskadi Basque Country Agendaren borondatetzko jarraipen-txostenen urteroko aurkezpena hala Eusko Legebiltzarrean nola Nazio Batuetan. Txosten horietan, 2030 Agendaren helburu eta jomugen eta Gobernu Programako konpromisoen arteko loturaren berri ematen da.

Ondoren, 2019ko azaroaren 19ko Erabaki bidez, Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agenda onartu zen, ez tokirik ez pertsonarik baztertuko ez duten hiri-herri inklusiiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzeko.

Aurrerago, 2021eko ekainaren 29an 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onarturik, asmoa kontratu sozialaren kultura sustatzea zen, garapen jasangarriko helburuekiko konpromisoaren inguruan. Hala, jarraipena eman zitzaion Eusko Jaurlaritzak hartutako eginkizunari; alegia, sail artean, erakunde artean eta gizartearen GJHeKiko konpromisoa dinamizatu, koordinatu eta bultzatzea.

Testuinguru horretan, eta Lehentasunen Programaren barruan, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Euskadiko Foroa sortu zen: sail arteko eta erakunde arteko gobernantza-organo bat, lankidetzeta eta partaidetzeta publiko, pribatu eta soziala errazteko. Nagusiki, GJHak sustatzeko eta Hiri Agendaren helburuak lortzeko esku hartzen duten erakunde eta entitate guztien jarduna bateratzen laguntzea da haren xedea.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroak hasitako lanari jarraipena emateko asmoz, hura Hub Euskadi 2030-Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Foro bihurtu zenean, bere horretan mantendu zen Euskadi Bultzatu 2050-Hiri Agendaren lantaldea, eta hiru esperimintazio-laborategi jarri ziren abian, XIII. Legegintzaldi honetako Gobernu Programaren jarduera-eremuekin lerrokatuak, 2030 Agendaren nahiz berrikuntza sozialaren arloan partekatutako proiektuak sustatzeko.

## Proiektu partekatuen zergatia

2020-2024 aldiko legegintzaldiaren balantzean identifikatutako defizit nagusien artean, energia berriztagarriak eta erronka demografikoa hartzen dira lehentasunez hobetu beharreko eremutzat. Horri gaur egungo beste arazo batzuk gaineratu behar zaizkio: gizartearen nahigabea, populismoa eta konpromiso politikorik eza. Proiektu partekatuetarako aktibatuko diren prozesuetan –hala nola ekimen eta proposamenen esperientzia pilotu eta trakzio-proiektuetan– jorratu egingo dira. Guztia ere Euskadin berrikuntza sozialaren eta 2030 Agendaren arloan egindako jarduerak hobetzeko, erakundeen arteko koordinazioaren eta maila anitzeko lankidetzaren bidez.

Esperientzia pilotuak ideia-fasean dauden proposamenekin lotzen dira. Baliteke esperientzia arrakastatsua izatea, baina ez izatea haragoko eraginik, edo beste eragile eta baliabide batzuk erakarriko edo mugiaraziko dituzten trakzio-proiektu bihurtzea azkenean.

Adierazle hauek balioko dute ardatz hau monitorizatzeko:

- I.4.1: Martxan jarritako proiektu partekatuen kopurua.
- I.4.2: Proiektuen buruan diharduten eragileen kopurua.

Plan honen esparruan, eremu hauei buruzko proiektu partekatuak landuko dira:

- 4.1 Berrikuntza soziala, kultura eta kalitate demokratikoaren politika eta sustapena, eta inklusio-politikak.
- 4.2 Zerga-lehiakortasuna, talentua erakarri eta atxikitzea, kontratazio/erosketa publiko arduratsua eta jasangarritasuna.
- 4.3 Klima-aldaketa, elikadura jasangarria eta landa-eremuaren nahiz lurraldearen garapena.
- 4.4 Garapenerako lankidetzak.

### 6.4.1 Proiektu partekatuak berrikuntza sozialaren, kultura eta kalitate demokratikoaren politikaren eta sustapenaren, eta inklusio-politiken arloan

Berrikuntza sozialaren, kultura eta kalitate demokratikoaren politikaren eta sustapenaren, eta inklusio-politiken arloko proiektu partekatuak gizarte informatzeko eta parte hartzeko prozesuak bultzatzen dituzte, arlo hauetako proiektu eta ekimenetan:

- Identitatea eta demokrazia.
- Gazteria eta demokrazia.
- Hirugarren sektorea eta demokrazia.



- Udalak eta herritarrak GJHei buruz kontzientziatzea.
- 18. GJHa sustatzea.
- Zaintzen ikuspegi feminista.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.4.1.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.4.1.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.4.1.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.4.1.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.

#### **6.4.2 Proiektu partekatuek zerga-lehiakortasunaren, talentua erakarri eta atxikitzearen, kontratazio/erosketa publiko arduratsuen eta jasangarritasunaren arloan**

Zerga-lehiakortasunaren, talentua erakarri eta atxikitzearen, kontratazio/erosketa publiko arduratsuen eta jasangarritasunaren arloko proiektu partekatuek gizartea informatzeko eta parte hartzeko prozesuak bultzatzen dituzte, eremu hauetako proiektu eta ekimenean:

- Zer aukera eskain ditzakeen zerga-sistemak GJHak sustatzeko.
- Talentua erakartzea eta/edo hari eustea.
- Erronka demografikoa eta immigrazioa.
- Askotariko sektoreen jasangarritasuna sustatu nahi duten aliantza publiko-pribatuen esperientziak.
- Kontratazio/erosketa publiko arduratsuan urratsak egiten jarraitzea, batez ere, Euskadiko kontratazio publikoaren irizpide ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak GJHein lerrotzeko gida landuz.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.4.2.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.4.2.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.4.2.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.4.2.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.

### **6.4.3 Proiektu partekatuek klima-aldaketaren, elikadura jasangarriaren eta landa-eremuaren nahiz lurraldearen garapenaren arloan**

Klima-aldaketaren, elikadura jasangarriaren eta landa-eremuaren nahiz lurraldearen garapenaren arloko proiektu partekatuek gizartea informatzeko eta parte hartzeko prozesuak sustatzen dituzte, eremu hauetako proiektu eta ekimenetan:

- Elikagaiak ekoitzi, banatu eta kontsumitzea baliabide naturalak agortu gabe eta ingurumenari kalterik eragin gabe, eta, aldi berean, justizia soziala eta komunitateen ongizatea sustatuz.
- Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumoa.
- Deskarbonizazioa sustatzea eta klima-aldaketara egokitzea.
- Ekosistemak eta biodibertsitatea babestea eta lehengoratztea.
- Landa-komunitateen sare sozioekonomikoa indartzea, natura-ingurunearen babesa kontuan hartuta.
- Lurraldeko gizartea, ekonomia, politika, kultura eta ingurumena hobetzea bertako komunitateen parte-hartze aktiboaren bidez, eta gizartearen koherentsia eta baliabideen erabilera jasangarria hobetzea.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:

- I.4.3.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.4.3.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.4.3.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.4.3.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.

#### 6.4.4 Garapenerako lankidetzako proiektuak

Garapenerako lankidetzako proiektu partekatuak lurraldean 2030 Agenda eta GJHak lokalizatzeko ikuspegi partekatu batek bultzatuko ditu. Hori izango da gizartearen, ingurumenaren, ekonomiaren eta kulturaren errealitateak eraldatzeko esparrua, Euskadin eta Euskaditik, Hegoalde Globaleko lurraldeekin lankidetzan.

Plan honek Euskadiko 2030 Agenda lokalizatzeko bultzatzen dituen prozesuak lankidetzaren eta elkartasun-politikarekin lotzea inpaktu eraldatzaile handiko aukera bat da. Horrela, garapenerako lankidetzaren eskura jarri ahal izango dira Euskaditik giza garapen jasangarriaren eta GJHen aurrerapenaren inguruan lortu diren gaitasunak, esperientziak, ikasitako ikasgaiak, berrikuntza, teknologiak eta datuak.

Garapenerako lankidetzako proiektu partekatuen xedea arazo espezifikoetarako ekimen eta konponbideak martxan jartzea izango da, eta tokiko nahiz nazioarteko hainbat eragilek parte hartuko dute haietan. Helburua giza garapen jasangarria sustatzea da, eta pobrezia eta desberdintasunei aurka egitea.

**Jarduera-adierazle hauek** balioko dute lan-eremu hau monitorizatzeko:


- I.4.4.1: Lan-eremu honetan betearazi den urteko aurrekontua / Lan-eremu honetarako aurreikusi den urteko aurrekontua.
- I.4.4.2: Lan-eremu honetan urtero egindako ekimenen kopurua.
- I.4.4.3: Lan-eremu honetan jasotako ekimenak zehazten eta gauzatzen parte hartu duten eragileen kopurua, urteko.
- I.4.4.4: Lan-eremu honetan jasotako ekimenen onuradunak, sexuaren arabera bereizita.
- I.4.4.5: Eragile anitzeko zenbat lankidetzaren ekimen egin diren garapen-bidean dauden herrialdeetako lurraldeekin, GJHak eta giza garapen jasangarria lokalizatzeko eta 2030 Agendari ekarpen tokiko eta globala egiteko.
- I.4.4.6: Zenbat politika-ekimen egin diren giza garapen jasangarriarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritza osoan eta euskal gizarte osoan, euskal gizarteko eragile anitzeko aliantzen bitartez, Hegoalde Globaleko lurraldeetako pertsonekin<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Dokumentu honetan proposatutako eraldaketa sistemikoko 4+1 eremuen esparruan oinarrituta.

---

## Gobernantza- eredua



Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planeko gobernantza-eredua egituratzean, helburua izan da zenbait mekanismo ezartzea sail arteko eta erakunde arteko koordinaziorako eta lankidetzaren nahiz partaidetza publiko, pribatu eta sozialerako, bermatuta gera dadin ezen, erabakiak hartzean, Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren Idazkaritzaren eta Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzaren konpromiso politikoei jarraitzen zaiela, eta tartean diren eragile publiko eta pribatu guztiek esku hartzen dutela, elkarlanean eta gobernantza partekatuz.

## 7.1 Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Forotik, Hub Euskadi 2030-Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Forora

Hub Euskadi 2030-Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroaren jatorria Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa da, zeina 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren gobernantza-mekanismo gisa sortu baitzen, eta Euskadin 2030 Agendaren eta garapen jasangarrirako helburuen gobernantza partekatua sustatzeko organo gisa.

Eusko Jurlaritzak, uztailaren 6ko 166/2021 Dekretuaren bidez, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroa onartu zuen, Eusko Jurlaritzako sailak, hiru foru-aldundiak, EUDEL, euskal hiriburuetako udalak eta lankidetzaren publiko-pribatuaren eta gizarte zibil antolatuaren entitate ordezkariak biltzeko elkargune gisa.

Hala ere, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzari esleitu zaionez kultura demokratikoa finkatu eta sustatzeko eginkizuna eta, hortaz, baita Foroari ere, beharrezkoa da Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroa birmoldatzea eta **Hub Euskadi 2030-Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Foro** bihurtzea.

Birmoldaketa horren bidez, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroaren barne-arkitektura eta organoetako kideak aldatu dira, eta antolamendu-egitura hau ezarri zaio, elkarrekin lan egiteko eta maila guztietan ekarpenak egiteko aukera ematen baitu, oinordetzan jasotako partaidetzazko gobernantza-ereduari jarraituz: osoko bilkura, Gobernantza Batzordea, lantaldeak eta esperimentazio-laborategiak, eta GJHen aldeko Euskal Aliantza.

Beraz, aldaketarik garrantzitsuena da organo berean biltzen direla Batzorde Iraunkorra eta Gobernantzako Lantaldea (zeina Gobernantza Batzordea deituko baita aurrerantzean), eta aurreko lantalde guztiak banatzen direla, hasiera batean honela: lantalde bakarra (Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agenda), hiru esperimentazio-laboretegi (1. Berrikuntza soziala, kultura eta kalitate demokratikoaren politika eta sustapena, eta inklusio-politikak; 2. Lehiakortasun jasangarria eta fiskalitatea; eta 3. Klima-aldaketa eta landaren nahiz lurraldearen garapena) eta GJHen aldeko Euskal Aliantza.

Orobat, Gobernantza Batzordeak gaiaren arabeko batzorde batzuk integratu behar direla hauteman du, errazagoa izan dadin zereginak banatzea eta aurreikusitako helburuak betetzeko bidean aurrera egingo dela bermatzeko.

**TRANSIZIO SOZIALAREN  
ETA 2030 AGENDAREN  
ERAGILE ANITZEKO  
FOROA**



**BERRIKUNTZA SOZIALAREN  
ETA 2030 AGENDAREN FOROA -  
NAZIO BATUEN HUB LOCAL 2030  
IDAZKARITZA**

**Osoko bilkura**

**Batzorde Iraunkorra**

**Lantaldeak**

- **Gobernatza**
- **Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agenda**
- **Eraldaketa soziala**
- **Eraldaketa energetiko-klimatikoa**
- **Eraldaketa ekonomiko-digitala**

**Osoko bilkura**

**Gobernantza Batzordea**

- **Borondatezko Jarraipen Txostenaren Batzordea**
- **Politiken Koherentzia-Batzordea**
- **18. GJHa Kultura eta Hizkuntza Aniztasunaren Batzordea**

**Hub Euskadi 2030 zentroaren batzorde delegatua**

**Lantaldeak eta esperimentazio-laboretegiak**

**Bultzatu 2050-Euskadiko  
Hiri Agenda**

**Esperimentazio-  
laboretegiak**

**Guneak - 2030 Aliantza**

Bestalde, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroa Nazio Batuen Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzako hub bihurtu denez, Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren bidez Local 2030 Koalizioa dinamizatzen parte hartzen duten eragileen topagunea ere bada.

Local 2030 Koalizioa plataforma bat eta sare bat da; hirietatik, autonomietako eta estatuetako gobernuetatik eta sektore pribatutik GJHak eta 2030 Agenda lokalizatzeko jarduerak sustatzeaz arduratzen da, eta, Nazio Batuen barruan, Bilbon kokatutako Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzari dagokio berori dinamizatzea eta GJHen lokalizazioan aurrera egitea, lurralde eta erkidego guztietan.

Local 2030 Koalizioaren Idazkaritza Euskadin kokatuta, aintzakotzat hartu da gure lurraldeak GJHen arloan egin duen ibilbidea, hurrengo urteetarako nazioarteko erakunde bat ezarri delarik. Horretarako, euskal erakundeek lokalizazio-prozesuari ekarpenak egiteko izango duten bilgunea izango da Hub hori.

## 7.2 Hub Euskadi 2030-Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroa

### 7.2.1 Osoko bilkura

#### Osaera

Osoko bilkuraren burua lehendakaria da; presidenteordea, berriz, Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren idazkaria izango da, eta koordinazio-eginkizunak egokituko zaizkio.

Organoaren gainerako kideak honako hauek izango dira:

- Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren zuzendaria.
- Lehendakartzako Koordinazio eta Proiektu Estrategikoen zuzendaria.
- Kanpo Harremanen arloko kargudun publiko bat.
- Euskadi Berriaren komisionatua.
- Eusko Jaurlaritzako sail guztien artean izendatutako kargudun publiko bat.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria.
- Lankidetzarako eta Erkartasunerako Euskal Agentziaren zuzendaria.
- IHOBEn zuzendaria.
- EEEn zuzendaria.
- Basque Center for Climate Change (BC3) bikaintasun-zentroaren ordezkari bat.

- Foru-aldundi bakoitzaren ordezkari gisa, organo edo agintaritza eskudunak izendatutako kargudun publiko bat.
- Udalak ordezkatzeko, EAEko hiru lurralde historikoetako hiriburuetako ordezkari bana, eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkari bat.
- Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateen ordezkari bana: Euskal Herriko Unibertsitatekoa, Deustuko Unibertsitatekoa eta Mondragon Unibertsitatekoa.
- Euskadiko hirugarren sektoreko erakundearen hiru ordezkari, Sareen Sareak proposatuak (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundearen sareak biltzen dituen elkarte).
- Basque Research and Technology Alliance (BRTA) partzuergo zientifiko-teknologikoaren ordezkari bat.
- ACLIMA-Basque Environment Cluster-aren ordezkari bat.
- URA-Uraren Euskal Agentziaren ordezkari bat
- Euskadi Berriaren mandatariaren ordezkari bat.
- UN Etxea-UNESCO Sustatzeko Euskal Herriko Elkartearen ordezkari bat.
- UNICEFen ordezkari bat.
- BBK Kuna-ren ordezkari bat.
- Ekonomiako Sozialaren Hubaren ordezkari bat.
- Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzaren ordezkari bat.

Foroan ordezkariak izango dituen erakunde edo organoek ordezkari bat izendatu ahal izango dute izendatutako kide titular bakoitzeko, Gobernantza Batzordearen parte har dezaten.

Foroaren presidentziak bileretan egoteko baimena eman ahal izango die haietan landuko diren gaien arloko adituei. Nolanahi ere, hitza bai, baina ez dute botorik izango bileretan egoteko arrazoia eman dieten gaietan.



## Osoko bilkuraren sistematika eta lehentasunak

Osoko bilkurak gutxienez urtean bitan egingo du ohiko bilera. Lehenengo bilera urteko lehen hiruhilekoan egingo da, eta bigarrena, berriz, urteko laugarren hiruhilekoan.

Lehentasunak:

- Orientazio estrategikoko jarraibideak eta ildoak definitzea eta proiektatzea Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Plana ezartzeko, lankidetzako gobernantza, politiken koherentzia eta genero-ikuspegia kontuan harturik.
- Erakundeen artean jarduteko eta lankidetzak publiko, pribatu eta soziale-rako ekimenak eta proposamenak onartzea, kultura demokratikoaren eta 2030 Agendaren arloan.
- Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planeko konpromisoen garapenaren urteko balantzea egitea.

### 7.2.2 Gobernantza Batzordea

#### Osaera

Gobernantza Batzordea Komunikazio eta Berrikuntza Sozialeko Idazkaritzaren ordezkari batek koordinatzen du.

Organoaren osaera hauxe da:

- Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Koordinazio eta Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Euskadi Berriaren komisionatuaren ordezkari bat.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren ordezkari bat.
- Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Aurrekontu Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Ekonomia Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Auzoak Berroneratzeko eta Hiri Agendako Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Eustat-en ordezkari bat.
- eLankidetzaren ordezkari bat.
- Foru-aldundietako ordezkari bana.
- Euskadiko hiru lurralde historikoetako hiriburuetako ordezkari bana.
- EUDEL-Euskal Udalen Elkartearen ordezkari bat.
- UDALSAREA 2030-Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen ordezkari bat.

Gobernantza Batzordearen barruan, gaiaren arabera hiru lantalde eratu dira:

- Borondatezko aurrerapen-txostenaren batzordea.
- Politiken koherentzia-batzordea.

- iLab-18. GJHa Kultura eta Hizkuntza Aniztasunaren Batzordea.

Batzordeen osaera honako hau da:

- Borondatezko aurrerapen-txostenaren batzordea Gobernantzako Lantaldeko kideek osatzen dute.
- Politiken koherentziarako batzordea Gobernantzako Lantaldeko kide berek osatzen dute, bai eta eLankidetzaren eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren ordezkari batek ere.
- iLab-18. GJHa Kultur eta Hizkuntza Aniztasunaren Batzordearen buruetako bat UN Etxea izango da, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Tabakaleraren, Kutxa Fundazioaren, SSIIFFen eta UPV/EHUren UNESCO Katedraren ordezkari banak osatzen dute. Batzorde horren prozesuan bidelagun izango dira Local 2030 Idazkaritza eta UCLG.

Gobernantza Batzordeak baimena eman ahal izango du bere osoko bilkuran beste pertsona edo entitate ordezkari batzuk egoteko, bai eta bilkuretan landuko diren gaietan espezializatutako pertsonak ere. Era berean, kideen adostasunez, Gobernantza Batzordeak proposatu ahal izango du lantalde bakoitzean beste pertsona edo erakunde batzuk sartzea, dela iraunkorki, dela bilera bakar batean edo batzuetan parte hartzeko, eta aztertutako gaietan espezializatuta dauden pertsona edo entitatez osatutako idazkaritza tekniko baten laguntza jasotzea.

## Gobernantza Batzordearen sistematika eta lehentasunak

Gobernantza Batzordeak ohiko bilera egingo du osoko bilkuraren ondoren, eta gutxienez bi hilean behin bilduko da osoko bilkuren arteko aldietan.

Batzordea osatzen duten gaikako komiteetan zereginak banaturik, bileren arteko aldietan aurrera egin ahal izango da finkatutako helburuen garapenean.

Lehentasunak:

- Euskadiko 2030 Agenda koordinatuaren eta integralaren plangintza aztertzea, bultzatzea, sustatzea eta proposatzea, Hub Euskadi 2030-Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Foroaren eremu bakoitzean plan eta jardura zehatzak dinamizatuz.
- Beharrezko koordinazio- eta harmonizazio-lanak egitea Foroaren osoko bilkuraren, lantaldeen, esperimentazio-laboregien, GJHen aldeko Euskal Aliantzaren eta haien baitan ordezkaturako erakunde eta entitate guztien artean.
- Etengabeko jarraipena egitea Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planeko konpromisoari.
- Dagozkion mekanismoak antolatzea Foroaren lanen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, urteko memoriak eta lanerako plan berriak eginez.

- Jarduteko irizpideak eta programak partekatzea, eta, erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuz, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren optimizatzea 2030 Agendaren arloan.
- Datozen urteetako lehentasun gisa ezartzea ezen, arian-arian, udalen eta euskal erakunde guztien kudeaketan eta aurrekontu-prozesuetan GJHak sartzen joan behar direla.
- 2030 Agendaren arloko politika publikoak lerrokatzea, eta aldi behin defizitak eta hobekuntza-esparruak identifikatzeko aukera emango duten adierazleak eta metodologiak partekatzea jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- Nazioarteko jarduna koordinatzea Euskadi mundu-mailan posizionatzeko 2030 Agendaren arloan, guztion intereseko sare, ekitaldi eta jardueretako parte-hartzea koordinatuz.
- Beste herrialde batzuekin jardunbide egokien trukea sustatzea eta Local 2030 koalizioarekin lankidetzaren ildoak ezartzea, GJHak lokalizatzeko konpromisoaren euskal eredu (Now 2030 Basque Country) nazio barruan nahiz nazioartean proiektatzeko.
- Maila anitzeko gobernanzatik, 2030 Agendetan sartutako trakzio-proiektuak ezartzeko laguntza indartzea.
- Herritarren batzarren pilotajeak bultzatzea, berrikuntza demokratikorako tresna izan daitezkeen. Helburua demokrazia deliberatiboa sustatzea da, herritarrek gero eta gehiago parte har dezaten erabakiak hartzeko prozesuan.
- 18. GJHa 2030 Agendetan sar dadin bultzatzea.

### Hub Euskadi 2030erako batzorde delegatua

Gobernantza Batzordeak batzorde delegatu bat izango du Hub Euskadi 2030erako. Honako hauek osatuko dute:

- Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzaren ordezkari bat.
- Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiaren ordezkari bat.
- Bilboko Udalaren ordezkari bat.
- BBK Fundazioaren ordezkari bat.
- Idazkaritza Teknikoaren lana UN Etxeak beteko du.

### 7.2.3 Lantaldeak eta esperimentazio-laborategiak

#### Lantaldeak

BULTZATU 2050-EUSKADIKO HIRI AGENDAREN LANTALDEA.

#### Osaera

Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agendaren lantaldea Etxebizitzaren eta Hiri Agendaren Sailaren ordezkari batek koordinatzen du.

- Organoaren osaera hauxe da:
- Eusko Jaurlaritzako alor hauetako ordezkari bana:
  - 2030 Agenda.
  - Ekonomia, Lana eta Enplegua.
  - Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
  - Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna.
  - Etxebizitza eta Hiri Agenda.
- Hiru foru-aldundietako ordezkari bana.
- EAEko hiru lurralde historikoen hiriburuetako ordezkari bana, eta EU-DEL-Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkari bat.
- UDALSAREA 2030-Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen ordezkari bat.
- Akademiaren alorreko bi aditu.
- Enpresaren alorreko lau pertsona.
- Gizarte-eragile adierazgarrien bost ordezkari.
- Erakunde hauen ordezkari bat: Jakiunde, SIIS, Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokia Innobasque, IHOBE, EEE, BRTA, Garapen, Tknika, GAIA Klusterra eta Bilbao Metropoli-30.

## Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agendaren lantaldearen sistematika eta lehentasunak

Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agendaren lantaldeak osoko bilkuren ondotik egingo du ohiko bilera, eta gutxienez bi hilean behin bilduko da osoko bilkuren arteko aldietan.

Zereginak gaikako batzordeen artean banaturik, lantalde horren bileren arteko aldietan aurrera egin ahal izango da ezarrita dauden helburuak garatzeko bidean.

Lehentasunak:

- Enplegua eta enpleguaren aldeko tokiko itunak sustatzea (merkataritza/turismoa); enplegua toki- eta hiri-mailan egituratzeko jarduerak garatzea.
- Hiri-eredua berritzea, hiria modu integralean berroneratuz: besteak beste, eraikinak sakon birgaituz eta espazio publikoetan, ekipamenduetan eta neurri sozialetan esku hartuz.
- Hiri barruko eta hiriarteko mugikortasun jasangarria bultzatzea.
- Komunitatea garatzeko planak eta Hiri Agenda eta 2030 Agenda lokalizatzeko beste jarduera batzuk partekatzea.
- Jarraipen xehea egitea lantalde honetako kideek abian jarritako hiri jasangarrien Europako proiektuei, sinergiak eta lankidetzarako aukerak sortzeko.

## Beste lantalde batzuk

Foroaren osoko bilkurak beste lantalde batzuk eratu ahal izango ditu Gobernantza Batzordearen proposamenez.

## Esperimentazio-laboretegiak

Esperimentazio-laboretegiak lanerako eremu informalagoak dira. Haien helburua Berrikuntzaren eta 2030 Agendaren arloko proiektu pilotu partekatuak garatzea da, erakunde publiko-pribatuen eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturalen parte-hartzearekin.

Esperimentazio-laboretegi bakoitzak bere funtzionamendu-eredua ezarri ahal izango du. Oinarrian, proiektu partekatu bakoitzean gaika eraturako taldeen artean banatuko dira zereginak, eta talde horiek egingo dute aurrera aurreikusitako helburuen garapenean. Halaber, talde bakoitzean landutako gaietan espezializatutako pertsona edo erakundez osatutako idazkaritza tekniko baten laguntza izango dute.

Esperimentazio-laboretegi horiek hainbat gairen inguruan antolatzen dira:

- Berrikuntza soziala, kultura eta kalitate demokratikoaren politika eta sustapena, eta inklusio-politikak.

- Zerga-lehiakortasuna, talentua erakarri eta atxikitzea, kontratazio/erosketa publiko arduratsua eta jasangarritasuna.
- Klima-aldaketa eta landa- nahiz lurralde-garapena.

#### BERRIKUNTZA SOZIALAREN, KULTURA ETA KALITATE DEMOKRATIKOAREN POLITIKAREN ETA SUSTAPENAREN, ETA INKLUSIO-POLITIKEN LABORATEGIA

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera zuzendua, Gogora Institutuaren, ArantzazuLab-en, Hibridalab-en, Eusko Ikaskuntzaren, ALCren, Sareen Sarearen, Deusto Cities Lab-en, EGKren, EITBren, OGPren ordezkari batek eta euskal unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako ordezkari banak osatzen dute.

#### LEHIAKORTASUN JASANGARRIAREN ETA ZERGA-SISTEMAREN LABORATEGIA

Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera zuzendua, Kanpo Harremanen Idazkari-tza Nagusiaren (Talentua), Ogasun eta Finantza Sailaren, SPRIren, Garapen-en, BBK Fundazioaren, BRTAren, Mondragon Taldearen, Orkestraren, Globernance-ren, Euskalit-en eta Fabrikaren ordezkari banak osatzen dute.

#### KLIMA-ALDAKETAREN ETA LANDA- NAHIZ LURRALDE-GARAPENAREN LABORATEGIA.

Arabako Foru Aldundiarekin batera zuzendua, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Industria Sailaren, Ihobe-ren, EEE-ren, Vital Fundazioaren, Hibridalab-en, Euskalmet-en, Elika-ren, BCCren, Orkestrako Energia Klusterraren eta BTWCren ordezkari banak osatzen dute.

## 7.2.4 GJHen aldeko Euskal Aliantza

### Osaera

Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzako ordezkari batek koordinatzen du GJHen aldeko Euskal Aliantza.

Organo hori talde eragile batek eta Aliantzak berak osatzen dute, eta kide hauek ditu:

Talde eragilea:

- Arantzazu Lab-en ordezkari bat.
- UN Etxea-UNESCO Sustatzeko Euskal Herriko Elkartearen ordezkari bat.
- Hibridalab-en ordezkari bat.
- BBK Fundazioaren ordezkari bat.
- Kutxa Fundazioaren ordezkari bat.
- Vital Fundazioaren ordezkari bat.
- EGKren ordezkari bat.
- Mondragon Taldearen ordezkari bat.
- Euskalit-en ordezkari bat.
- Deusto Cities Lab-en ordezkari bat.
- UNICEF-en ordezkari bat.

GJHen aldeko Euskal Aliantza:

Jarraian adierazitako erakunde hauek atxiki zaizkio 2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako Adierazpenari. Hala ere, beste erakunderik interesa badu, edozein unetan batu daiteke.

- A&B Laboratorios de Biotecnología
- Accem
- Aclima
- Alboan
- 2030 Garapen Jasangarriaren Aldeko Arabako Aliantza
- Alium Consulting
- Arantzazu Lab
- ASKORA
- ASLE
- Athletic Club Fundazioa
- Auren
- AZTI
- Baketik Fundazioa
- Basque Culinary Center

- Basque Team
- BasquePro
- BBK Kuna
- BC3 Basque Centre for Climate Change
- BDCC (Basque District of Culture and Creativity)
- Berritzegune Nagusia
- Bilbao Convention Bureau
- Bilbao Metropoli 30
- BIKOnsulting
- Bolton Food-Conservas Garavilla
- Cadena SER Euskadi
- CDE Consultoría
- Coca-Cola Europacific Partners Iberia
- Colegio Trinitarias
- Coop&Co
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gurutze Gorria
- Deusto Cities Lab
- Deustuko Unibertsitatea
- eCivis Elkartea
- EDE Fundazioa
- Egibide
- EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- EHU-UPV
- ELIKA Fundazioa
- Elkargi
- Emakunde
- Eragintza Fundazioa
- Euskadiko Parke Teknologikoa / Parque Tecnológico de Euskadi
- Euskalit
- Euskalmet
- Eusko Ikaskuntza
- EEE
- Feeldot
- Fondo Formación Euskadi
- Foro Rural Mundial / Munduko Landagunea
- Alavés Fundazioa
- Novia Salcedo Fundazioa
- Fundación Vital Fundazioa
- Geoparkea
- Gipuzkoa 2030
- Gizatea - Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea
- Globernance
- Grupo Arania
- Grupo Campezo
- HETEL-Heziketa Teknikoko Elkartea (Asociación de centros de formación técnico profesional de Euskadi)
- Hibridalab
- Iberdrola



- Ihobe
- Ikuspegi
- Ingeteam
- Ekonomia Publikorako Institutua UPV/EHU
- Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutua. UPV/EHU
- Integra Soluciones Empresariales
- Irizar S. Coop.
- Izaite
- Jakiunde
- Kitu Foods S.L.
- Kutxa Fundazioa
- Last Tour
- Lurgaia Fundazioa
- Mondragón Corporation
- Mondragon Unibertsitatea
- Mugarik Gabeko Ekonomialariak
- Mutualia
- Barrualde-Galdakao ESla
- Orkestra
- PKF Attest
- Real Sociedad Fundazioa
- REAS Euskadi
- Sareen Sarea
- SIIS
- Sinnple
- Sociedad Deportiva Eibar
- SPRI
- Tecnalía
- The Languages of Energy
- Tknika
- Tubacex
- UN Etxea
- Unesco Katedra
- UNRWA Euskadi
- Unicef Comité País Vasco
- Vicinay Sestao

## GJHen aldeko Euskal Aliantzaren sistematika eta lehentasunak

GJHen aldeko Euskal Aliantzak osoko bilkuraren ondotik egingo du ohiko bilera, eta bi hilean behin bilduko da bitarteko aldietan.

Lehentasunak:

- Eragile anitzeko parte-hartzea eta lankidetzak bultzatzea, partaidetza eta lankidetzak publiko, pribatu eta sozialerako bideak zabalduz, proiektu zehatz eta partekatuen garapenaren inguruan.
- Enpreetan, erakundeetan eta instituzioetan GJHen ikuspegia ezartzen laguntzea.
- 2030 Agenda gizartean zabaltzeko helburuan laguntzea eta herritarrek gizartearen eremu guztietan inplikatzeko esperientziak bultzatzea.
- Now 2030 Basque Country ekimena sustatzea; hau da, GJHak lokalizatzeko euskal ereduak, zeina hiru konpromisotan oinarritzen baita: 2030 Agenda gehiago instituzionalizatzea, sozializatzea eta pertsonalizatzea.



---

## Planaren ezarpena eta koordinazioa




Plan honek 2025-2028 aldia hartzen duenez barnean, urtero Kudeaketa Plan bat egingo da, eta hor jasoko dira denbora-tarte horretarako lehenetsitako jarduerak.

Hala, Plana dokumentu bizia eta arina izatea da asmoa, baita irekia ere, agertzen diren beharren arabera aldatu eta egoera/proposamen berrietara egokitu ahal izateko, halakorik agertuko balitz.

Urteko kudeaketa-planaren garapena bateratuz koordinatuko da Plana.

## Planaren jarraipena eta ebaluazioa



Plan honen gardentasuna eta kontu-ematea egokiak izan daitezen, beharrezkoa da ongi taxututako jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat izatea, adierazleetan oinarritua.

Bestalde, jarraipenaren bitartez, egiaztatu beharko da aurreikusitako jarduerak plangintzaren arabera gauzatzen direla, aurrekontua aurreikusitako moduan erabiltzen dela, eta adierazleek nahi den bilakaera dutela.

Bestalde, ebaluazioaren bidez, jarduketek lortutako emaitzak eta ondorioak baliotsi nahi dira. Hartara, aztertu ahal izango da abian jarritako jarduketek egiaz lortu al dituzten lortu nahi ziren helburuak eta planean finkatutako norabidea eta estrategiak mantendu edo aldatu behar al diren.

Horretarako, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planaren trantsizioen monitoreo diseinatu da, monitorizazio jarraitua egiteko, haren bitartez Plana etengabe eguneratuta mantendu ahal izateko eta gobernantza-organoek une oro jakin dezaten Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planaren jarduketak zer egoeratan dauden.

Monitoreak Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planaren gobernantzarako, kudeaketa-kontrolerako, monitorizaziorako, ebaluaziorako eta kontuak emateko informazioa eskaintzen du, eta atal hauek osatzen dute:

1. Aplikazio informatiko bat (App).
2. Jarduketan egoerari buruzko txostenak egiten dituen sistema bat, lantaldeei Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Planaren jarduketa bakoitzaren berri ematen diena, desbideratutako jarduketak ere identifikaturik (egoera horia eta gorria).
3. Kontingentzia-planak, gauzatzeko oztopoak dituzten jarduketetarako (alegia, egoera horian eta gorrian daudenak).
4. Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren gobernantza-organoak eraldatzea: informazio-organo izatetik proposamenak egiteko organo bihurtu daitezela, hala, erabakiak hartzeko prozesua errazteko.
5. Urteko memoria batzuk, urteko kudeaketa-planetan finkatutako helburu eta jarduketak aztertu eta haien balorazioa egingo dituztenak, zer jarduketa gauzatu diren eta zenbateraino deskribatuz eta Planean proposatutako monitorizazio-adierazleen bilakaera aztertuz.

Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Plana abian jarri eta behar bezala gauzatzeko, egin behar diren jarduketa guztiak modu koordinatuan abiarazi eta ebaluatzeko gai diren kudeaketa-organo batzuk eta jarraipen-sistema bat eduki behar dira.

Planaren antolaketa-eredua, barne-dimentsioari dagokionez, Zuzendaritza Batzorde batek eta Planaren Kudeaketa eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoak osatuko dute.

**Zuzendaritza Batzordea** Komunikazio eta Berrikuntza Sozialeko Idazkari-tza Nagusiak sustatu eta gidatuko du.

Honela gidatuko du:

- Lidergo-eginkizun orokorra betetzea eta Planari eta hartan jasotako jarduera-ardatzei bultzada ematea.
- Plana gizarteratzea, bai barnean (Eusko Jaurlaritza), bai kanpoan (beste administrazio publiko eta entitate batzuk, eragile sozial eta ekonomikoak, herritarrak).
- Lehenetsitako jarduketa guztiak martxan jartzeko urteko Kudeaketa Plana onartzea, baita horiek denbora horretan ezartzeko beharrezkoak diren tresnak ere.
- Plana oro har zenbateraino gauzatu den begiraturik, aurrerapen-mailaren azken kontrola egitea, zenbait mekanismoren bidez:
  - Hiru hilean behingo bilera bat, non begiratuko den zer aurrerabide egin duten Planaren lan-ildoek eta proiektuak.
  - Urtean behingo bilera monografikoa urteko kudeaketa-planaren inguruan, hurrengo urterako lan-ildo eta proiektu berriak eztabai-datu eta onartzeko, planean jasotako adierazle-taularen azterketa harturik oinarri.
  - Kudeaketa eta Jarraipen Batzordeak aldizka emandako informazioa.
- Planaren exekuzioari buruzko kontuak ematea tartean diren erakunde eta eragileei, baita, oro har, gizarteari ere.



**Kudeaketa eta Jarraipen Batzordea** izango da Planaren koordinazio teknikora-ko organoa.

Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzak zuzenduko du Batzordea. Batzordeak kanpoko laguntza teknikoa jasoko du datuak bildu eta aztertzeko, ekintzen ebaluazioa nahiz jarraipena egiteko, eta Plana inplementatzeko laguntza teknikoa izango du.

Hauek dira Batzordearen eginkizunak:

- Urteko kudeaketa-plana prestatzea eta proposatzea, Zuzendaritza Batzordeak eztabaidatu eta, hala badagokio, onar dezan.
- Planaren monitorizazio jarraitua eta urteko txostena egitea.
- Bilerak deitzea eta Zuzendaritza Batzordearentzat dokumentuzko materialak ematea.
- Jarduteko ardatzetan egindako jarduketa eta jarduerak koordinatzea eta haien jarraipen aktiboa egitea.

---

## 2025eko Kudeaketa Plana



## 1. ardatza: Kultura demokratikoa eta komunitate-sena indartzea eta sustatzea

### 1.1 Komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalkundea

Epea: 2025-2028

| Ekimena  | GJH  | Xehetasuna/Proiektua   | Arduraduna   | Koordinazioa | Aurrekontua / urtekoa. |
|--|--|--|--|--------------|------------------------|
| <b>1.1.1 Kultura demokratikoa eta komunitatearen garapena sustatzeko ekimena</b>   |   | Lankidetzako gobernantzaren erreferentzia-esparrua lantzeko lantaldea (Lehendakaritza, Gobernantza Saila, ArantzazuLab, Orkestra, DOT)   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | 350.000 €              |
| <b>1.1.2 Berrikuntza sozialaren eta 2030 Agendaren erakunde arteko komunikazio-plana</b>   |   | Berrikuntza sozialaren eta 2030 Agendaren erakunde arteko komunikazio-plana  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | 300.000 €              |
| <b>1.1.3 Eztabaida publikoen eta gai berrien jarraipen-plana</b>   |   | <ul style="list-style-type: none"> <li>a. Aholku-batzorde bat sortzea Jakiunde, Zedarrak eta Orkestra erakundeen eta adituen eskutik</li> <li>b. Ekitaldiak, jardunaldiak eta hitzaldiak antolatzea</li> <li>c. Txostenak Erronkak bilduman argitaratzea</li> </ul>  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | 130.000 €              |
| <b>1.1.4 Herritarrentzako sentikortze eta prestakuntzako programak, herritarren elkartegintza eta parte-hartzea, eta komunitatearen garapenerako lankidetzak-praktika pribatuak edo publiko-pribatuak sustatzeko</b> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>a. Herritar guztiei irekitako programa bat antolatzea UD-Göteborg, UPV-EHU eta MUREN eskutik</li> <li>b. Administrazio publikoetako langileentzako programa bat antolatzea, honako hauen eskutik, adibidez: HAEE-Sektore Publikoaren Azterketa (Rafa Jimenez Asensio), UD-Göteborg (Xabier Barandiaran), UPV-EHU eta MU.</li> </ul> | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | 60.000 €               |

### 1.2 Herritarren parte-hartze eta deliberaziorako prozesuak bultzatzea


Epea: 2025-2028

| Ekimena   | GJH   | Xehetasuna/Proiektua  | Arduraduna   | Koordinazioa | Aurrekontua / urtekoa. |
|---|---|---|--|--------------|------------------------|
| <b>1.2.1 Kultura eta jasangarritasuna</b>   |  | Guggenheim-Urdaibai   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | 35.000 €               |
| <b>1.2.2 Energia berriztagarriak (plaka eolikoak eta fotovoltaikoak)</b>  |  | TE Legearen herritarren batzarra  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | 35.000 €               |
| <b>1.2.3 Belaunaldien arteko elkartasuna</b>  |  |   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | 35.000 €               |
| <b>1.2.4 Herritarrek prozesuetan zenbateraino parte hartze duten aztertzea eta horri buruzko txostenak egitea, beharrezkoak diren hobekuntza-mekanismoak proposatzeko</b> |  | Herritarrek prozesuetan zenbateraino parte hartzen duten aztertzea eta horri buruzko txostenak egitea, beharrezkoak diren hobekuntza-mekanismoak proposatzeko | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | 60.000 €               |

## 1. ardatza: Kultura demokratikoa eta komunitate-sena indartzea eta sustatzea

1.3 Zeharkako esparru estrategiko eta arauzko bat garatzea, kultura eta kalitate demokratikoa indartuko dituen, Europako esparruarekin bat etorritik, hainbat alor barne harturik, hala nola gobernu ona, gardentasuna, integritate eta eredugarritasun publikoa, kontuak ematea, eta lankidetzako eta komunitateko gobernantza

Epea: 2025-2028

| Ekimena  | GJH   | Xehetasuna/Proiektua  | Arduraduna   | Koordinazioa | Aurrekontua / urtekoa. |
|--|---|---|--|--------------|------------------------|
| <b>1.3.1 Kultura eta kalitate demokratikoa indartuko dituen arau-esparrua garatzea</b> |  | Kultura eta kalitate demokratikoa indartuko dituen arau-esparrua garatzea | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | (zehaztu gabe)         |

1.4 Desarrollar el proyecto en gobierno abierto, en el marco del Plan OGP Euskadi 2025-2028


Epea: 2025-2028

| Ekimena   | GJH   | Xehetasuna/Proiektua   | Arduraduna   | Koordinazioa | Aurrekontua / urtekoa. |
|---|---|--|--|--------------|------------------------|
| <b>1.4.1 OGPren Munduko Goi Bilera (ikus 4. ardatzeko proiektu partekatuetan)</b> |  | OGPren Munduko Goi Bilera (ikus 4. ardatzeko proiektu partekatuetan) | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | (zehaztu gabe)         |

## 2. ardatza: Garapen jasangarrirako helburuak lortzea 2030 Agendaren bidez






## 2.1 18. GJHa (kultura- eta hizkuntza-aniztasuna) konfiguratzeari

Epea: 2025-2028

| Ekimena   | GJH   | Xehetasuna/Proiektua        | Arduraduna   | Koordinazioa                         | Aurrekontua / urtekoa. |
|---|---|-----------------------------|--|--------------------------------------|------------------------|
| 2.1.1 18. GJHa (kultura- eta hizkuntza-aniztasuna) - Tabakalera |  | 18. GJHaren edukia zehaztea | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Kultura eta Hizkuntza Politika Saila | 60.000 €               |



## 2.2 2030 Agendaren inguruko komunikazioa, sentsibilizazioa eta zabalkundea

Epea: 2025-2028

| Ekimena   | GJH   | Xehetasuna/Proiektua   | Arduraduna   | Koordinazioa   | Aurrekontua / urtekoa. |
|---|---|--|--|--|------------------------|
| 2.2.1 2030 Agendaren bonuen programa  |    | 2030 Agendaren bonuen programa   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |  | 650.000 €              |
| 2.2.2. 2030 Agendaren inguruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak  |    | a) 2030 Agendaren graduondokoa eta "mikrokredentzialen" ikastaroak<br>b) 2030 Agendaren gaineko prestakuntza | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila  | 220.000 €              |
| 2.2.3 ODS Community GAIA proiektua  |   | GJHei buruzko komunitate birtuala sortzea  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Hezkuntza Saila / Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila                 | 60.000 €               |
| 2.2.4 2030 Agendaren bereizgarria - Euskalit, erakundeen jardunbide egokiak |  | 2030 Agendaren bereizgarria - Euskalit, erakundeen jardunbide egokiak  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila / Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila | 110.000 €              |
| 2.2.5 SSIFF-Zinemaldiarekin lankidetzak                                     |  | • Hitzaldi-zikloa<br>• 2030 Agenda Basque Country saria  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |  | 150.000 €              |

## 2.3 Herritar anonimoen inplikazioa

Epea: 2025-2028

| Ekimena                                  | GJH   | Xehetasuna/Proiektua | Arduraduna   | Koordinazioa                    | Aurrekontua / urtekoa. |
|--|---|----------------------|--|---------------------------------|------------------------|
| 2.3.1 Patxework                          |  | Patxework            | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |                                 | 65.000 €               |
| 2.3.2 Gizarte-ekintzailetzako proiektuak |  |                      | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila | 50.000 €               |

### 3. ardatza: Nazioarteko proiektzioa




#### 3.1 Akordioak nazioarteko eragileekin

Epea: 2025-2028

| Ekimena  | GJH   | Xehetasuna/Proiektua  | Arduraduna   | Koordinazioa | Aurrekontua / urtekoa. |
|--|---|---|--|--------------|------------------------|
| <b>3.1.1 Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzaren bulegorako akordioa</b>                      |  | 3.1.1 Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzaren bulegorako akordioa                      | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | • 1.166.666 €          |
| <b>3.1.2 Hub Euskadi 2030 sortzea, Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritza Nagusiarri lotuta</b> |  | 3.1.2 Hub Euskadi 2030 sortzea, Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritza Nagusiarri lotuta | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | • 60.000 €             |
| <b>3.1.3 Akordioa ELGArekin: urteko jardunaldia antolatzea</b>                               |  | 3.1.3 Akordioa ELGArekin: urteko jardunaldia antolatzea                               | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |              | • 25.000 €             |

#### 3.2 Akordioak tokiko eragileekin

Epea: 2025-2028

| Ekimena  | GJH   | Xehetasuna/Proiektua  | Arduraduna   | Koordinazioa                                  | Aurrekontua / urtekoa. |
|--|---|---|--|---|------------------------|
| <b>3.2.1 UD-Local 2030 akordioa: urteko foroa antolatzea</b>   |   | 3.2.1 UD-Local 2030 akordioa: urteko foroa antolatzea   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila | • 25.000 €             |
| <b>3.2.2 BC3-EHU akordioa: urteko jardunaldia antolatzea</b>   |  | 3.2.2 BC3-EHU akordioa: urteko jardunaldia antolatzea   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila | • 25.000 €             |
| <b>3.2.3 Akordioa BBK/Kutxabank/Vital fundazioekin: finantzaketari eta lokalizazioari buruzko nazioarteko jardunaldiak</b> |  | 3.2.3 Akordioa BBK/Kutxabank/Vital fundazioekin: finantzaketari eta lokalizazioari buruzko nazioarteko jardunaldiak | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Ogasun eta Finantza Departamentua             | • 25.000 €             |

## 4. ardatza: proiektu partekatuak

### 4.1 Berrikuntza soziala, kultura eta kalitate demokratikoaren politika eta sustapena, eta inklusio-politikak

| Ekimena   | GJH   | Xehetasuna/Proiektua   | Arduraduna   | Koordinazioa  | Aurrekontua / urtekoa.   |
|---|---|--|--|---|--|
| <b>4.1.1 Identitateari eta demokraziari buruzko proiektua</b>                           |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorbizuneko auzolan-jarduerak</li> <li>• Civic Lab Euskadi</li> <li>• Euskadiko Etorbizuneko Belaunaldien goimandataria</li> <li>• TAUPADAK IA: Osasun demokratikoa</li> <li>• Demokrazia nazioa</li> <li>• Argi ibili: datuak eta egjak, mitoen aurrean</li> <li>• BATERA etorkizuneko erronkak</li> <li>• Eraldaketa orratzak: Challenge-based innovation</li> <li>• Gorrotoaren kontrako plataforma</li> <li>• Bizikidetzarako zubiak Euskal Herrian</li> </ul> | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila  | • 90.000 €   |
| <b>4.1.2 Gazteriari eta demokraziari buruzko proiektua</b>                              |    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteriaren Foroa</li> <li>• Gazteria-Local 2030</li> <li>• Herritar gazteak: kultura demokratikoa eskolan</li> <li>• Boluntariotza hezkuntzan</li> <li>• The future game: Euskadi, gazteak eta demokrazia</li> <li>• POP-litica gauak</li> <li>• Gu(on) Egin</li> <li>• Egian-Klik bizikidetzak digitala</li> </ul>  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Gizarte Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila  | • 30.000 €   |
| <b>4.1.3 Hirugarren sektoreari eta demokraziari buruzko proiektua</b>                   |  |  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Gizarte Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila  | • 60.000 €   |
| <b>4.1.4 "Udalak 2030 Agenda" proiektuak</b>  |  | • Udalak eta herritarrak 2030 Agendarekin eta GJHein gehiago inplikatzeko proiektua  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | EUDEL<br>UN Etxea   | • 100.000 €  |
| <b>4.1.5. 18. GJHa (hizkuntza- eta kultura-aniztasuna) nazioartekotzeko proiektua</b>   |  | 18. GJHa (hizkuntza- eta kultura-aniztasuna) nazioartekotzeko proiektua  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | UN Etxea  | • Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak) |
| <b>4.1.6. Lanbide Heziketako ikastetxeetan 2030 Agendaren gidak ezartzea</b>            |  | Lanbide Heziketako ikastetxeetan 2030 Agendaren gidak ezartzea   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Tknika  | • Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak) |
| <b>4.1.7 2030CATALYSTS</b>  |  | 2030CATALYSTS  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |    | • Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak) |
| <b>4.1.8 Zainketen ikuspegi feministako proiektuak</b>                                  |  |  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Gizarte Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila  | • Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak) |
| <b>4.1.9 Gobernu Irekirako Aliantzaren IX. Munduko Goi Bilera 2025, Vitoria-Gasteiz</b> |  | OGPren Munduko Goi Bilera  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila  | • Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak) |
| <b>4.1.10 Eten digitala gainditzeko prestakuntza</b>                                    |  | Eten digitala gainditzeko prestakuntza   | Soziala  |  <small>Eusko Jaurlaritzaren Informatika Etxea<br/>Sociedad Informática del Gobierno Vasco</small> | • Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak) |

## 4.2 Zerga-lehiakortasuna, talentua erakarri eta atxikitzea, kontratazio/erosketa publiko arduratsua eta jasagarritasuna

Epea: 2025-2028

| Ekimena  | GJH   | Xehetasuna/Proiektua  | Arduraduna   | Koordinazioa  | Aurrekontua / urtekoa.   |
|--|---|---|--|---|--|
| <b>4.2.1 Fiskalitateari eta GJHei buruzko proiektua</b>                          |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zerga-erreformaren ekarpena GJHei</li> </ul>   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Ogasun eta Finantza Departamentua / Foru-aldundiak  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.2.2 Talentua erakarri eta atxikitzeari buruzko proiektua eta migrazioak</b> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Talentua eta balioak proiektua</li> <li>Immigrazioa integratzeko ereduak</li> </ul>                          | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila / Gizarte Ongizate, Gazteria eta Erroka Demografikoaren Saila | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.2.3 Bermeo Tuna World Capital proiektua</b>                                 |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bermeo Tuna World Capital</li> <li>Garapen Jasagarriaren aldeko Atun Hiri eta Lurraldeen Aliantza</li> </ul> | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila                                     | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |

## 4.3 Klima-aldaketa, elikadura jasagarria eta landa-eremuaren nahiz lurraldearen garapena

Epea: 2025-2028

| Ekimena   | GJH   | Xehetasuna/Proiektua  | Arduraduna   | Koordinazioa   | Aurrekontua / urtekoa.   |
|---|---|---|--|--|--|
| <b>4.3.1 Zero kilometroko elikadurari buruzko proiektua</b>   |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Autokontsumo kolektiboetan oinarriturik industria deskarbonizatzeke prozesuak</li> <li>Despopulazioari galga jartzeko zerbitzu-plataformak</li> <li>Basaldea - Nekazaritza ekologikoaren sustapena Gasteizen</li> <li>Elikadura eta merkatu jasagarriak</li> </ul> | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila / Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila / Elika | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.3.2 Zero kilometroko merkataritzari buruzko proiektua</b>  |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Elikadura eta merkatu jasagarriak</li> </ul>   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila / Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila / Elika | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.3.3 Kontratazio/erosketa publiko arduratsuari buruzko proiektua</b>  |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskadiko kontratazio publikoaren irizpide ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak GJHein lerrotzeko gida egitea</li> </ul>   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Ogasun eta Finantza Departamentua / Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.3.4 Klima-aldaketaren arloko Estatistika Ofizialetarako Big Datako eta Datu Zientziako NBEn Elkarreragingarritasun Zentroa</b> |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Klima-aldaketaren arloko Estatistika Ofizialetarako Big Datako eta Datu Zientziako NBEn Elkarreragingarritasun Zentroa</li> </ul>  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza | Ogasun eta Finantza Departamentua / Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila / BC3                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |




4.4 Garapenerako lankidetzako proiektu partekatutak (eLankidetzak)

Epea: 2025-2028

| Ekimena   | GJH  | Xehetasuna/Proiektua   | Arduraduna   | Koordinazioa  | Aurrekontua / urtekoa.   |
|---|--|--|--|---|--|
| <b>4.4.1 Osasuneko proiektua</b>  |   | Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa indartzeko lankidetzak teknikoko programa   | E-lankidetzak  | Osasun Saila  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.4.2 Hezkuntzako proiektua</b>  |   | UNRWArekin Lanbide Heziketako Programa eraldatzea  | E-lankidetzak  | Hezkuntza Saila   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.4.3 Ekonomia zirkularraren proiektua</b>   | <br> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Berrerrabiltzeko prestatzeko zentroa (BPZ) tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (TEEH) berreskuratzeko</li> <li>Emakume-elkarteak, komunitateak eta toki-erakunde publikoak hondakin kudeaketa jasangarriko aldagaitza-eragile Malicoundan (Senegal)</li> <li>AKUAL - Uraren eta saneamenduen arloko erakunde arteko lankidetzak-programa Erdialdeko Amerikaren eta Euskadiren artean</li> </ul> | E-lankidetzak  | Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila<br>IHOBE<br>URA            | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.4.4 Politiken koherentziarako lantaldearen proiektuak</b>  |   |  | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |
| <b>4.4.5 Sevillako 2025eko goi-bilerarako bidean: Nazio Batuen Konferentzia garapenerako finantzaketari buruz</b> |   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Sevillako 2025eko goi-bilerarako bidean: Nazio Batuen Konferentzia garapenerako finantzaketari buruz</li> </ul>   | Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza |  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zehaztu gabeko zenbatekoa (esperientzia pilotuak eta trakzio-proiektuak)</li> </ul> |

## Eranskinak



## 11.1 Berrikuntza sozialaren, kultura eta kalitate demokratikoaren politikaren eta sustapenaren, eta inklusio-politiken arloko proiektu partekatuen fitxak

### PROIEKTUA: Etorkizuneko auzolan-jarduerak

Euskadik, historikoki, komunitate-sen handia izan du: "auzolan" esaten diogu. Hala ere, mundu-mailan izandako aldaketa berriak tarteko (balio-sistema...), elkartzeko molde tradizional horiek forma berriak hartu dituzte, eta sistemak ez ditu ezagutzen.

Ikerketa-prozesu bat proposatzen dugu, belaunaldi berriek bultzatutako elkartegintza- eta aktibismo-molde berriak identifikatzeko eta lege-esparru egokiak sortzeko; hartara, etorkizunean auzolanaren kultura iraunaraziko duen lurralde emankor batean erein ahal izango dute erakundeek.

### PROIEKTUA: Civic Lab Euskadi

"Civic Lab Euskadi" herritarren berrikuntza-gune bat izango litzateke, herritar, erakunde eta gizarte-eragileen arteko lankidetzari irekiko. Laborategi hori topagune bat izan liteke, zeinean sormena, parte-hartzea eta teknologia uztartzen diren, lurraldeak gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloan dituen erronkei aurre egiteko.

Laborategiak ikasteko eta ekiteko ekosistema gisa funtziona lezake, herritarrek erabakietan eta politika publikoen garapenean aktiboki parte har dezaten bultzatuz. Elkarlaneko metodologia irekien bidez, Civic Lab Euskadik berrikuntza soziala, teknologia zibikoaren erabilera eta guztion onura lortzeko konpromisoa duen komunitate bat eraikitzea sustatuko luke. Horrelako gune batek, egungo arazoak konpontzeaz gain, etorkizuneko erronkei aurrea hartzea ahalbidetuko luke, lurraldeko erresilientzia eta gizartearen kohesioa indartuz.

### PROIEKTUA: Euskadiko Etorkizuneko Belaunaldien goi-mandatariak

Euskadiko Etorkizuneko Belaunaldien goi-mandatariaren misioa izango litzateke bermatzea ezen egungo politika publiko eta erabakiek egungo beharrei erantzuten dietela, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe. Besteak beste, Galesko Etorkizuneko Belaunaldien Ongizatearen Legean eta Nazio Batuetako Etorkizuneko Belaunaldien Adierazpenean oinarrituta, garapen jasangarriaren epe luzerako ikuspegia sustatzen duen eraldaketa-agente gisa jardungo luke erakunde honek, Euskadin ingurumenaren, gizartearen, kulturaren eta ekonomiaren dimentsioak orekatuz.

Goi-mandatariak erakunde publikoekin, pribatuekin eta gizarte zibilarekin lankidetzan jardungo luke, eta belaunaldien arteko jasangarritasuna bultzatuko duten jardunbideak eta politikak onartzen lagundu. Erabaki politiko eta ekonomikoek epe luzera zer eragin izango duten ebaluatzea, aholkatzea eta fiskalizatzea izango da haren helburu nagusia; hala, Euskadik etorkizun erresiliente, inklusibo eta justua eraikiko duela ziurtatuko da.

---

**PROIEKTUA: TAUPADAK IA: Osasun demokratikoa**

TAUPADAK IA tresnak analisi semantikoa eta adimen artifiziala erabiliko lituzke elkarrizketak arakatu eta sailkatzeko. Eredu hori osasun demokratikoa aztertzeke egokitu daiteke, honako hauen inguruko adierazleen bidez:

- Sare sozialetan erabilitako hizkuntza: demokraziaren, giza eskubideen, herritarren parte-hartzearen, gardentasunaren eta desinformazioaren inguruko terminoak aztertzea.
- Polarizazioa eta gorrotoaren diskurtsoa: muturreko edo demokraziaren aurkako diskurtsoa mailatan sailkatzea.
- Gizartearen sentimendua: elkarrizketen tonua ebaluatzea (positiboa, negatiboa, neutrala).
- Kalitate demokratikoaren indizea: herritarren konfiantza- eta partaidetza-maila islatzen duen metrika konbinatua kalkulatzeko.

Euskadiko osasun demokratikoa neurtzeko funtsezko metrikak definitzea. Herritarren parte-hartzea, erakundearen gardentasuna, konfiantza erakundeetan, gizartearen polarizazioa, adierazpen-askatasuna eta desinformazioa...

---

**PROIEKTUA: Demokrazia nazioa**

Demokrazia Nazioa komunikazio-kanpaina bat izango litzateke, Euskadi mundu osoan partaidetzazko demokraziaren eta auzolanaren (lan komunitarioaren) erreferente gisa kokatzeko diseinatua. Euskadi Culinary Nation inguruan eraikitako narratibak bezala –zeinak euskal gastronomia berrikuntzaren, sormenaren eta benetakotasunaren sinbolo bihurtu baitzuen– kanpaina honek lurraldea bereizten duen izaera demokratikoa eta parte-hartze aktiboaren eredu nabarmendu nahi ditu.

Asmoa da narratiba indartsu bat eraikitzea, azpimarratzeko nola Euskadi, bere historiaren eta balioen bitartez, aitzindaria izan zen herritarren parte-hartzean eta konpromiso kolektiboan oinarritutako demokrazia sendo baten eraikuntzan. Demokrazia Nazioak ez lituzke eskualdeko erakunde demokratikoak soilik nabarmenduko; orobat begiratuko luke nola herritar bakoitzak bere ekarria egiten dion gizartearen garapenari, auzolanaren kontzeptuak komunitateko elkarlanari bezala. Horrenbestez, gizartearen elkarlanean erro sakonak dituen demokrazia inklusibo eta berritzaile baten eredu gisa aurkeztuko litzateke Euskadi.

---

**PROIEKTUA: Argi ibili: datuak eta egiak, mitoen aurrean**

Ikus-entzunezko piezak sortzea eta zabaltzea desinformazioari aurre egiteko, uste faltsuak gezurtatzeko eta gaurkotasan-gaie-tan informazio argi eta egiaztatua emateko.

Zientziarekin, adituekin eta unibertsitatearekin lankidetzan, gizartearekin konektatuko duten eta harengan eragin onuragarria izango duten edukiak ontzea, baina narrazio xalo eta zuzenekoak.

Xede hauek nahi dira lortu:

- Datu kontrastatuekin, mito eta uste okerrak ezeztatzea.
  - Pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa informatua sustatzea.
  - Albiste faltsuen ugaritzeak ekarritako polarizazioa txikitzea.
-

---

**PROIEKTUA: BATERA etorkizuneko erronkak**

---

Espazio eta prozesu inklusibo, adierazgarri eta eraginkorrak, herritarrek eta funtsezko eragileek hitz egin, eztabaidatu eta elkarrekin konponbideak sortzeko aukera izan dezaten, herrialde honetan adostasun sozial handia eskatzen duten gai konplexuen inguruan: besteak beste, trantsizio energetikoa, autogobernua edo erronka demografikoa.

Azken urteotako lankidetzako gobernantzan ikasitakoa harturik abiapuntutzat, prozesu horien inpaktua hedatzeko bide berriak bilatu nahi ditu proiektu honek.

---

---

**PROIEKTUA: Eraldaketa orratzak: Challenge-based innovation**

---

Erakundeak aldaketa-eragile berritzaile eta fidagarriak izateko bidean jarri nahi ditugu, eta arazo konplexuei epe luzerako ikuspegi sistemiko eta eraginkor batetik heltzeko gai izan daitezela. Erakundeen nahiz herritarren mesederako eraldaketa-kultura sustatu nahi dugu.

Eraginean zentratutako erakunde publiko dinamikoagoak sortzea da helburua. Eragile ugari biltzen dituzten prozesuak, erakunde eta herritarren arteko lotura sendotzen dutenak.

---

---

**PROIEKTUA: Gorrotoaren kontrako plataforma**

---

Gorroto-delituak salatzen zerbitzu eta plataforma bat, prestakuntzarako laguntza eta hezkuntza-materialak eskaintzen dituen, baita aholkularitza ere, gizarte inklusiboagoa sortzeko eta Euskadi anitzago batean bizikidetzat sustatzeko. Norbaiten identitatearen edo hautemandako identitatearen alderdi monitorizatu guztiak bil ditzakegu: desgaitasuna, arraza, fedea/erlijioa/sinesmena, sexu-orientazioa eta identitate transgeneroa, azpikultura alternatiboa eta generoa/misoginia.

Gorrotoaren Kontrako Plataformak ildo espezifiko bat har lezake barnean sare sozialetan gorrotoa geldiarazteko, albiste faltsuei aurre egiteko eta eremu digitalean eztabaida eraikitzaile eta begirunetsua sustatzeko. Besteak beste, albiste faltsuen metabilatzaile bat eta hezteko kanpainak erabiliz, plataformak parte-hartze aktiboa bultzatzen du, online eremu osasungarriagoak eraikitzeko. Edonork bat egin dezake laguntzaile gisa, eta sareak jazarpen eta gorroto-diskurtsorik gabe mantentzen lagundu, Internet guztiontzat izan dadin seguruagoa, inklusiboagoa eta begirunetsuagoa.

---

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Gizartearen kohesioa eta inklusioa indartzeko beharra gero eta nabarmenagoa da kultura- eta hizkuntza-aniztasuna areagotzen ari den testuinguru batean. Euskarak zeregin garrantzitsua du integrazio-prozesuetan eta komunitatearen batasunean, eta hainbat azterlanek erakutsi dute herritar gehienak daudela euskara sustatzearen alde. Identitate-ereduen malgutasunak eta kide-tasun kulturalen oinarritutako ikuspegiak gizarte plural baterantz aurrera egiten laguntzen dute.

#### HELBURUAK

Helburu nagusia kulturarteko bizikidetzaren sustatzea da, etorkinek errazagoa izan dezaten euskara ikastea eta euskal kultura ezagutzeko gizarteratzea. Proiektuaren ikuspegi inklusiboa eta partaidetzakoa da, integrazioa aberasgarria eta samurragoa izan dadin. Helburu espezifikoaren artean, euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa bultzatzea dago, hizkuntzaren aldeko interesa sustatuz eta oztopo psikologiko eta sozialik gabe ikasteko aukera eskainiz. Funtsezkoa da, halaber, euskararen historia eta balioa ezagutaraztea, bai eta zer eginkizun betetzen duen gizartean ere. Baliabideei buruzko informazioa zabaltzea proposatzen da, ikaskuntza erraztu eta metodologia dinamikoak garatze aldera. Bestalde, etorkinei euskal kultura eta nortasuna hurbildu nahi zaie, kultura-aniztasuna eta kulturarteko elkarriketa sustatzeko. Ondare kulturala ezagutarazteaz gain, jarduteko eta parte hartzeko guneak sortu nahi dira, etorkinak komunitatearekin konektatzeko. Gizartearen kohesioa eta bizikidetzaren indartzeko, hizkuntza- eta kultura-aniztasunari balioa eman nahi diogu, etorkinen eta bertakoen arteko elkarguneak eta elkarlana sustatuz. Integrazioa benetakoa izan dadin, funtsezkoa da estrategiak garatzea errazago parte har dezaten hezkuntzan, gizartean eta lanean, eta estereotipoak murriztea.

#### METODOLOGIA

Proiektua bi metodologia osagarriren bidez garatuko da: foku-taldeekiko saioak eta tailer interaktiboak. Etorkinek euskararen eta euskal kulturaren inguruan zer jarrera eta itxaropen dituzten aztertu nahi da; haien esperientziak ulertu, eta euskara ikasteko zer oztopo aurkitzen dituzten identifikatu. Lortutako informazioarekin, azken inkesta bat diseinatuko da, eta hori estrategia berriak proposatuko dira euskararen eta euskal kulturaren integrazioari buruz.

#### ALIANZAK

Proiektu honen arrakasta aliantza estrategikoen sare sendo bat finkatzean datza. Ezarpena errazteaz gain, epe luzera iraun dezakeela bermatu eta hura hedatzeko aukera eman behar du sare horrek. Instituzioetako eta gizarteko funtsezko eragileekin lankidetzan arituz, sinergiak indartu ahal izango dira, eta ekimenaren eragina handitu. Halaber, proiektua bideragarria dela eta bere testuinguru zehatzaren premia aldaroketara egokitzen dela ziurtatuko da.

#### ESKALAGARRITASUNA

Proiektua, Euskal Herriko beste testuinguru batzuetara ez ezik, antzeko errealitate soziolinguistiko eta kulturalak dituzten beste komunitate batzuetara zabalduta daiteke, ikuspegi modular eta malgu bati esker. Eskalagarritasuna 4 mailatan garatu ahal izango da: lurraldean hedatzea, antolamendua hedatzea, metodologia hedatzea eta estrategia hedatzea.

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Gipuzkoako Foru Aldundiak badu "Gipuzkoa: demokrazia berritzaile, plural eta sakoneko lurraldea" izeneko trakzio-proiektu bat, GFAREN Plan Estrategikoaren hainbat helbururi erantzuteko:

- 2.1. helburua. Herritarren kultura demokratikoan eta erantzukizun komunitarioan sakontzea.
- 2.3. helburua. Gipuzkoako gizartean komunitate-sarea indartzea eta berritzea, lankidetzaren eta parte-hartzearen sustatuz.
- 1.4. helburua. Gazteei aukerak eskaintzen dizkien lurralde bat izatea.

Trakzio-proiektu horren barruan, "Gazteriaren Foroa" izeneko proiektu berezi bat bultzatuko da Eusko Jaurlaritzarekin batera. "Gazteriaren Foroa" 18-30 urte bitarteko gazteentzat izango da nagusiki eta, batez ere, politika publikoak diseinatzen eta ebatzaten lagundu nahi dutenentzat. Proiektuaren xede izango dira, orobat, zerbitzu publikoetako profesionalak, gazteen ahotsak erabakietara ekarri nahi dituzten arduradun politikoak eta tresna teknologikoen diseinuan eta ezarpenean lagunduko duten enpresa eta startup teknologikoak.

Erronka nagusia herritarrek erakunde politikoengana sentitzen duten desafekzioa gainditzea da, eta demokraziarengana konfiantza berreraikitzea, mundu osoan gobernantza-eredu tradizionalen aurka agertu den krisi baten testuinguruan. Horretarako, askotariko ahotsak ekarri behar dira erabakiak hartzeko prozesuetara, denboran iraun dezaketen eztabaida-mekanismo eraginkorrak diseinatu eta ezarri behar dira, eta funtsezko eragileak –hala nola eragile komunitarioak, agenteak eta sektoreak (gazteak ere barne)– aktiboki inplikatzeko direla bermatu. Funtsezkoa izango da jardunbide eta mekanismo horiek instituzionalizatzea, berrikuntza demokratikoko tresnak Gipuzkoako errealitatera egokitzuz, bikoiztasunak saihestuz eta sinergiak maximizatuz.

Erronka zehatzago gisa, honako hauek aipatzen dira:

- **1. erronka. Gazteen parte-hartzearen irismena zabaltzea.** Gazteek erabakietan parte hartzeko eta hitza izateko aukera mugatuak dituzte oraindik. Erronka honen helburua da teknologien bitartez gazte gehiagorengana helduko diren prozesu eta mekanismo irisgarri, erakargarri eta eskalagarriak garatzea eta, aldi berean, aurrez aurreko espazio batzuk finkatzea gazteen eta erakundeetako arduradunen arteko elkarriketa eraikitzailea sustatzeko; egindako proposamenak agenda publikoetan sartzen direla ere ziurtatuko da.
- **2. erronka. Ikuspegi kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartzea.** Politika inklusiboagoak eraikitzeko, teknologia digitalak erabili behar dira gazte gehiagorengana iristeko, eta eztabaida-prozesu txikiagoekin osatu behar dira horiek, ekarpenetan sakontzeko. Horrela bermatuko baita gazteen ikuspegiak ordezkaritza zabala dutela eta, horrekin batera, zehatz-mehatz ulertuko direla, bi metodologiak narratiba koherenteetan lotuz.
- **3. erronka. Politika publikoen zeharkakotasuna sendotzea.** Gazteen ahotsa erabakietara ekartzeko, eraginkortasunez koordinatu behar dira administrazioaren eskala guztiak eta haren zerbitzuak. Erakundeen ahaleginak bilduko dituen ikuspegi bat sustatzea izango da erronka, bikoiztasunak saihestuz eta sinergiak indartuz, gazteen beharren arabera politikak koherenteak lortze aldera.
- **4. erronka. Inklusioa eta aniztasuna sustatzea.** Funtsezkoa da gazteen askotariko ordezkaritza bermatzea, era askotako esperientziak, sentsibilitateak eta pentsamoldeak harturik barnean. Horretarako estrategia inklusiboak behar dira, aniztasun hori jaso ahal izateko, ahots guztiek kontsulta- eta deliberazio-prozesuei ekarpen aktibo eta esanguratsua egingo dietela ziurtatu eta Gipuzkoako lurraldearen heterogeneotasuna islatzeko.
- **5. erronka. Teknologiaren potentziala aprobetxatzea.** Teknologia digitalen irismena zabaltzeko eta parte-hartzea hobetzeko abagunea ematen dute. Erabilitako tresnak intuitiboak, seguruak eta konfiantza sortzeko gai direla bermatzea da erronka, gazteen parte-hartze zabala eta aktiboa bultzatzea, baita elkarriketa eraikitzailea sustatzeko diseinatuta daudela ere.
- **6. erronka. Eragin iraunkorra sortzea.** Eztabaida-prozesuen inpaktuak neurgarriak eta agerikoak izan behar du. Erronka honetan tresna eta adierazle batzuk diseinatuko dira gazteen ekarpenak zein eraginkorrak diren ebaluatu ahal izateko, kalitate demokratikoa nahiz gazte parte-hartzaileen ongizate emozionala hobetzeari dagokionez; hala, eredu proiektutik harago iraunaraz daitekeela ziurtatzen da.

Bestalde, helburu espezifikoak hauek dira:

- 1. HE. Gazteen parte-hartzerako eredu hibridoa garatzea. Kontsulta digitalak eta eztabaida-foro presentzialak uztartuko dituen ikuspegi bat diseinatzea, gazteen ordezkaritza inklusibo eta askotarikoa ziurtatuz.
- 2. HE. Erakunde arteko lankidetzaren sustatzea. Erakunde arteko elkarlana sustatzea, gazteen beharrei koherentziaz eta eraginkortasunez erantzuteko aukera emango duten loturak sortuz.
- 3. HE. Gazteengan gaitasun demokratikoak sustatzea. Ikasteko eta eztabaidatzeko guneak sortzea, non gazteek kritikoak izateko, komunikatzeko eta politikan eragiteko trebetasunak garatu ahal izango dituzten.
- 4. HE. Inklusioa eta irisgarritasuna bermatzea. Estrategia espezifikoak ezartzea partaidetza-prozesuek Gipuzkoako aniztasun soziokulturala, ekonomikoa eta lurraldekoa isla dezaten.
- 5. HE. Inpaktua ebaluatzea eta jakinaraztea. Gazterien Foroak politika publikoen lanketan zer eragin duen neurtzeko eta ezagutarazteko tresnak garatzea, gardentasuna eta etengabeko ikaskuntza indarturik.

Emaitza hauek espero dira:

- **Gazteen Foroak sortzea.** Formatu hibridoa egituratua, parte-hartze masiborako eta aurrez aurreko eztabaidarako teknologiak konbinatuz, eta Gipuzkoako gazteen aniztasunaren adierazgarri.
- **Datu kuantitatiboak eta kualitatiboak sortzea.** Datu horiek txostenetan sartuko dira, haien arabera erabakitako politika publikoek kontuan har dezaten gazteen ikuspegia.
- **Gazteen partaidetzako gobernantza-eredu bat finkatzea.** Beste eremu eta lurralde batzuetan ere aplikatu ahal izango da, eta 2024-2027 Plan Estrategikoaren helburuekin lerrokatuta egongo da.
- **Gazteen ekarpenak kontuan dituzten politikak ezartzea.** Foroaren ondorioetan eta ekarpenetan oinarrituta.
- **Jardunbide egokiak zabaltzea.** Erabakiak praktikan jarriz edo proiektuak garatuz komunikatzea, eta, aldi berean, argitalpen batean jasotzea funtsezko ikaskuntzak.

---

**PROIEKTUA: Gazteria–Local 2030**

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Local 2030, eLankidetzeta, Kanpo Ekintza, eta Berrikuntza Soziala eta 2030 Agenda biltzen dituen proiektu partekatua, gazteriari eta GJHei buruzkoa, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK) batera.

GJHen inguruan lan egingo duen gazte-sare bat sortzea litzateke helburua.

---

**PROIEKTUA: Herritar gazteak: kultura demokratikoa eskolan**

Euskal hezkuntza-sisteman eta -curriculumean balio eta trebetasun demokratikoak txertatzea, herritar kritiko, arduratsu eta aktiboak hezteko, elkarriketaren, partaidetzaren eta eskubide eta betebeharr kolektiboen errespetuaren kultura sustatuz.

Besteak beste, gai-ildo hauek jorratuko lituzke: parte-hartze aktiboa, errespetua eta bizikidetzeta, pentsamendu kritikoa, erantzunkidetasuna eta konpromiso soziala.

Hezkuntza-etapa guztietan, lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzaraino, demokraziari, etikari eta balioei buruzko moduluak sartzea proposatzen du. Beharrezkoa izanez gero, curriculumetik kanpoko tailer eta programak ere egingo lirateke. Irakasleak partaidetzazko pedagogietan eta ikasgelan eztabaida demokratikoak sustatzeko gaitasunetan trebatu beharko lirateke.

---

**PROIEKTUA: Boluntarioritza hezkuntzan**

Ikastetxeetan, prestakuntza-curriculumaren barruan, gizarte- eta boluntarioritza-lanak sartzeko proposamena. Haurtzarotik irakasten bada zein garrantzitsua den besteei eskuzabaltasunez laguntzen dieten jardueretan parte hartzea, enpatiaren, elkartasunaren eta gizarte-erantzukizunaren balioak sustatzen dira, besteren artean.

Haurtzarotik hezkuntza mota hori izateak, halaber, herritar kontzientegoak, aktiboagoak eta gizartearekin konprometituagoak hezten laguntzen du.

Era berean, askotariko errealitateak ezagutzeko aukera izateak –horietako asko, egoera zaurgarrietan–, hobeto ulertarazten du aniztasuna funtsezko balioa dela etorkizuneko gizarte inklusiboagoak, justuagoak eta solidarioagoak eraikitzeko.

---



---

## PROIEKTUA: **The future game: Euskadi, gazteak eta demokrazia**

---

Badakigu eredu demokratikoa indartzeko eta bizikidetzaren sendotzeko ez ditugula gazteak narratiba tradizionalera erakarri behar, baizik eta haien mundu-ikuskeran, pertzepzioetan, beldurretan eta iritzietan sakondu, mapa berria marrazteko.

“The Future Game Euskadi: Gazteak eta Demokrazia” proiektuaren helburua Euskadiko gazte-demokraziaren narratiba era anitzagoan ikertzea litzateke. Arantzazulab-ekin batera Gipuzkoan egindako lehen prototipoaren ondoren, proiektua Euskadira hedatzea izango litzateke helburua, lagin handiago baten bidez aniztasuna eta adierazgarritasuna bermatuz.

Gamifikazioari eta etorkizuneko proiektuari esker, gai izango gara ezkutuko informazioaren berri jaso eta gazteekin etorkizun desiragarri bat irudikatzen. Jokaleku desiragarri horretatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzarentzat ildo estrategikoak zehaztu ahal izango dira, eta parte hartzen duten gazteekin proiektuak diseinatu.

---

## PROIEKTUA: **POP-lítica gauak**

---

POP-lítica Gauak politika, filosofia eta pop kultura uztartzeko modu bat izango lirateke, guztion eskura dagoen giro lasai batean. Tabernetan modu informalean elkartzeko eta, garagardo bat eskuan, filmen, telesailen eta fenomeno kulturalen oinarri politikoari buruz eztabaidatuko dugu. Saio bakoitzean xeheki aztertuko ditugu gai konplexuak, modu entretenigarrian, hausnartzeko eta elkarrekin hitz egiteko espazio ireki bat sortuz, non edonork izango duen parte hartu, ikasi eta ideiak partekatzeko aukera.

Proiektuak demokraziaren eta parte-hartze politikoaren gaitara erakarri nahi ditu gazteak, ingurune instituzional baten zurruntasunik gabe politikaz hitz egitea ahalbidetuko duen toki bat eskainiz. Halako topaketa lasaiak antolatuz, lotura hurbilagoa sortu nahi dugu gazteen eta gai sozial eta politikoen artean, eta, hala, pentsamendu kritikoa eta gizartean parte-hartze aktiboa sustatu.

Inspirazioa: <https://lu.ma/camaracivica>

---

## PROIEKTUA: **Gu(on) Egin**

---

Gu(on) Egin gure ingurune hurbila mapatzeko diseinatutako programa integral bat da, espazio publikoak hobetu nahi duten proposamenak garatzeko. Proiektuaren ikuspegi nagusia ikaskuntza esanguratsuan oinarritzen da; horretarako, parte-hartzaileek hirigintza-proposamenak sortzen dituzte, Minecraft bideojokoa erabiliz.

Sarritan, ez ditugu aintzat hartzen haurrak eta ez ditugu inplikatzeko politika publikoekin edo hirigintza-politikekin lotutako erabakietan; izan ere, haien adina dela eta, haien inguruneari eragiten dion edozein prozesutatik kanpo geratzen dira. Hala ere, haur horietan hartuko dituzte etorkizunean erabaki politikoak, eta funtsezkoa da inguruan duten espazioari buruz hausnartzen eta parte hartzen hastea. Gu(on) Egin-en bitartez lehen urratsak egin ditzakete herritarren parte-hartzean, batzarrekin esperimendatuz, erabaki komunitarioak hartuz eta zalantzarik gabe hiriaren etorkizunean eragina izango duen inplikazio-modu bat ikasiz.

Inspirazioa: <https://craftea.arsgames.net/>

---

---

**PROIEKTUA: Egian-Klik bizikidetza digitala**

---

Mundu digitalean nabigatzeko modua eraldatu nahian, informazioa egiaztatzen ikasteko, publizitatea ulertzeko eta bizikidetza digital positiboa sustatzeko esperientzia hezigarri bat proposatzen du proiektu honek. Guztia ere, erronka dibertigarri batean ikasteko aukera ematen duen murgiltze-esperientzia baten bidez.

Esperientzia askotariko adin-taldeentzat egokitu daiteke, eta familian nahiz ikastetxeetan erabili, ikasitakoa eskala handiago batera hedatzen lagunduko duten materialak eta bideoak eskainiz.

---

---

**PROIEKTUA: Udalak eta herritarrak 2030 Agendarekin eta GJHein gehiago inplikatzeko proiektua**



| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 |
|----------|------|------|------|
|----------|------|------|------|

Aurreko legegintzaldietatik, EUDEL Lehendakariarekin lanean ari da 2030 Agenda eta GJHak Euskadiko toki-gobernuen artean ezagutarazi eta lokalizatzeko.

Lankidetzaren horren ondorioz, udal-aurrekontua GJHetara egokitzeko tresna bat du EUDELek udalarentzat (18. GJHekin eguneratutako gida bat). Udal-aurrekontuarekin GJHak zeharka lantzeko bidea ematen du tresna horrek; izan ere, tokiko politikak garatu nahi badira, komunikazioaren ikuspegitik eta herritarrei begira, udal-aurrekontua da funtsezko bitartekoa. Era berean, tresna baliagarria izan daiteke konpromiso partekatuak eraikitzeko.

Hala ere, gabezia hauek ikusi dira:

- Oraindik bidea egin behar da udalak 2030 Agendarekin eta GJHein inplikatzeko; eta garrantzitsua da bide hori egitea, udalak baitira administrazio-maila hurbilena GJHak lortzeko jarduketak lokalizatzeko orduan.
- Herritarren artean gabeziak daude GJHen inguruko ezagutzan eta, batez ere, sentsibilizazioan.
- Udal-aurrekontuak herritarrei jakinaraztean horiek GJHein erlazioatzeko aukera dago; hala, jasangarritasun globalaren onerako zehaztu daitezke tokiko ekintzak.

lido horretan, proiektu honen helburu nagusiak hiru dira:

- Udal-aurrekontua GJHein lerrotzeko prozesuan interesa duten udalei laguntzen jarraitzea. Udal kopuru nahikoa izatea aurrekontua GJHein lerrotzeko tresna erabiltzen duena eta herritarrei aurrekontuen berri emateko GJHein lotzen dituen.
- Herritarrei GJHein lerrotzeko aurrekontua jakinarazteko tresna didaktiko bat prestatzea EAEko udalarentzat.
- Herritar konprometituak sustatzea: 2030 Agenda eta GJHak ezagutaraztea herritarrei, eta gai horren inguruan inplikatzeko.

Horretarako, honako hau lortu nahi da:

- Talde eragile bat sortzea aurrekontua GJHein lotzeko tresna erabili duten udalekin; udaletako komunikazio-taldeetako kideak ere izango ditu talde horrek. (2024-2025 urteak)
  - Proiektuaren diseinua egitea. (2024-2025 urteak)
  - Proiektua abian jartzea: (2025-2026-2027 urteak)
    - Tresnaren erabilera eta tokiko gobernuentzat zein baliozkoa den aztertzea.
    - Egindako lana jakinarazi beharri buruz hausnartzea, eta udalerrri bakoitzak tokian tokitik munduko Agendaren GJHei zer ekarpen egiten dien ikusarazteko.
    - Komunikazio-tresnak prestatzea udalarentzat eta udalekin.
    - Aurrekontua GJHein lerrotzeko komunikazio-metodologia bat ezagutaraztea, udalerrriko 2030 Agendaren helburu zehatzekin konpromisoa har dezaten herritarrek, eta Euskadiko udal guztien eskura jartzea.
-

PROIEKTUA: **18. GJHa (hizkuntza- eta kultura-aniztasuna) nazioartekotzeko proiektua**

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

2030 Agenda 2015ean onartu zen, eta 190 naziok baino gehiagok sinatu dute. Garapen jasangarriari dagozkion politikak eta ekimenak eremu publikoan zein pribatuan txertatzeko esparru bat ematen du. Euskadin, Eusko Jaurlaritzak konpromiso sakona hartu du 2030 Agendarekin, eta XI. Legealditik jada legegintzaldiko plana 2030 Agendaren helburuekin lerrokatzearen alde egin zuen; horrela, Euskadi Basque Country 2030 Agenda sortu zen. Hala ere, 2030 Agenda zuriuneak zituela sortu zen. Bereziki nabarmena da kultura eta hizkuntza gutxituen hutsunea garapen jasangarriko helburuen (GJH) eta jomugen multzoan. Ondorioz, hainbat erakunde ekimenak abiarazi dituzte 2030 Agendan kulturak eta hizkuntzek ikusgaitasun handiagoa izan dezaten.

2030 Agendan kulturarako GJH espezifikorik finkatu ez bazen ere, zeharka agertzen da beste jomuga batzuetan, esaterako, hauekin erlazioatutakoetan: hezkuntza, hiri jasangarriak lortzea, elikagaien segurtasuna, ingurumenaren babesa, hazkunde ekonomiko jasangarria edo gizarte inklusibo eta baketsuak indartzea. Horregatik, kultura 2030 Agendaren imajinarioan sartzea apustu irmoa da garapen kulturalaren alde eta gizarte justuago eta demokratikoagoak lortzeko betetzen duen eginkizunaren alde.

Hizkuntzak eta kulturak garapen jasangarrian betetzen duten rol espezifikoa aldarrikatzeko helburua ezarri du Euskadik, eta, horretarako, hizkuntzak eta kulturak 2030 Agendaren garapen jasangarriko 17 helburuei zer ekarpen egiten dieten zehaztuko du eta jomuga zehatz, aplikagarri eta ebaluagarriak proposatuko ditu hizkuntza- eta kultura-aniztasunean zentratutako helburu espezifiko bat garatzeko.

2023. urtean zehar egindako partaidetzazko prozesu tekniko batek 18. GJHrako jomugen proposamen bat eman zuen, hainbat forotan aurkeztu zena. Eta 2024an, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Euskadiko Eragile Anitzeko Foroan eta beste sail eta gune interesgarri batzuetan partekatu zen Eusko Jaurlaritzaren apustu irmoa 18. GJHa sortu eta harekin bat egitearen alde.

Deskribatutako prozesuaren ondorioz, agerian geratu da beharrezkoa dela:

- 18. GJHa dela-eta hartutako posizionamendua eta orain arte egindako prozesua sozializatzea, kontrastatzeko, ekarpenak jasotzeko eta azken balidazioa egiteko.
- Nazioarteko eztabaidara eramatea garapenaren alderdi kultural eta linguistikoa eta kultura- eta hizkuntza-politikak indartu beharra.

Ilido horretan, proiektu honen helburu nagusiak hiru dira:

- Nazio Batuen Agendan, UNESCOren agendan (kulturaren arloko mandatua duen Nazio Batuen agentzia) eta nazioarteko beste foro batzuetan kokatzea 18. GJHaren euskal estrategia.
- Nazioarteko babesa eta onarpena lortzea, kultura- eta hizkuntza-politika inklusibo, berritzaile eta jasangarrien eredu gisa.
- Tokiko eta alde anitzeko erakundeen arteko elkarlana indartzea, eta sareak eratzea politika publikoetan kultura eta hizkuntzak sistemikoki ainguratu daitezela sustatzeko.

Horretarako, hiru ekintza-ardatz egituratu dira, eta jarduera zehatz hauek gauzatuko dira haietan:

- **1. ekintza-ardatza: Diplomazia kulturala eta nazioarteko harremanak.**
  - **Analisi eta diagnostiko bat egitea (2024-2025):**
    - Mondiacult-eko eta Etorkizunerako Ituneko lehentasunak identifikatzea: Bi esparru horietako kultura- eta hizkuntza-gidale-erroak eta -konpromisoak berrikustea, bereziki identitateari, inklusioari eta jasangarritasun kulturalari dagokienez.
    - Nazioarteko eragileak mapatzea: UNESCOn, Nazio Batuetan, GKE-etan eta kultura- eta hizkuntza-aniztasuneko gaietan lan egiten duten beste erakunde batzuetan funtsezko eragileak identifikatzea.
  - **Sentsibilizazioa eta diplomazia kulturala (2024-2025):**
    - Nazioarteko ordezkariekin loturak ezartzea: Bilerak antolatzea UNESCOko (bereziki, Mondiacult 2025ez arduratzen den taldea) eta NBEko (bereziki LocalCoalition 2030) eragileekin, enbaxadore kulturalekin eta kultura-arloko lankidetzeta-sareekin.
    - Nazioarteko foro eta bilera kulturetan parte hartzea: Funtssezko ekitaldietan parte hartzea, hala nola eskualdeko foroetan, presentzia eta interesa sortzeko eta Euskadiko 18. GJHa aurkezteko.

- **2. ekintza-ardatza: Aliantza estrategikoak eta lankidetzak**
    - Nazioarteko aliantzak, lankidetzak-hitzarmenak eta elkarrekiko proiektuak formalizatzea: Hezkuntza-erakundeekin eta GKE-ekin hitzarmenak sortzea, identitatea eta hizkuntza- eta kultura-trukea sendotzen dituzten proiektuak ezartzeko.
    - Mondiacult-en eta NBEren programetan parte hartzea: Mondiacult-i eta Etorkizunerako Itunari lotutako ekimenekin lotzea ekimen hori, kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzen duen proiektu pilotu gisa kokatuz.
  - **3. ekintza-ardatza: Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea eta zabaltzea.**
    - Narratiba bat garatzea (2024-2025): 18. GJHa komunikatzeko kanpainari proiektuaren mezuak egokitzen laguntzea, tokiko nahiz munduko testuinguruan daukan garrantzia, inklusioarekiko eta garapen jasangarriarekiko lotura eta tokiko hizkuntzen eta kulturen balioa nabarmentzeko.
    - Artikuluak eta kasu-azterketak argitaratzea: Ekimenari buruzko artikuluak aurkeztea kultura-aldizkarietan eta UNESCOren eta NBEren plataformetan, kultura- eta hizkuntza-aniztasunari egindako ekarpenak nabarmenduz.
    - Foro eta sareetan ikusgaitasuna ematea:
      - Abiarazteko kultura-ekitaldi nazioartekoa: 18. GJHaren ekimena Bartzelonako Mondiacult 2025en esparruan aurkezteko ekitaldi batean parte hartzea.
      - Nazioarteko web-mintegi eta tailerretan parte hartzea: Tokiko hizkuntzak eta kulturak sustatzeari buruzko web-mintegietan parte hartzea, UNESCOko, NBEko eta beste erakunde batzuetako adituak gonbidaturik.
-

**PROIEKTUA: LHko Euskadi Basque Country 2030 Agenda proiektua**



| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

**TESTUINGURUA**

Politikaren, osasunaren, gizartearen eta klimaren arloko aldaketek eta ziurgabetasunak markatutako testuinguru batean, Euskadik irmo egin du 2030 Agenda erreferentziatzat hartzearen alde. Apustu hori 2018an hasi zen, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu zuenean. Handik hara zenbait ibilbide jarri ziren martxan, Euskadiko enpresagintzaren, gizartearen, ekonomiaren eta akademiaren arloko hainbat sektoretara helarazteko, bai 2030 Agenda, bai garapen jasangarri-rako helburuak.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak –2021ean sortua– 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa bultzatu zuen; zehazki, Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Euskadiko Foroa eratu zuen, eta hartan ordezkaritza du Lanbide Heziketak, TKNIKA-Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatu Zentroaren bidez.

Lanbide Heziketako VI. Euskal Planak esplizituki jasotzen du kontuan hartu behar direla Garapen Jasangarriko 2030 Agendan zehaztutako helburuak. Honela dio bere misioan: "Giza garapen jasangarri eta inklusibo baterantz aurrera egitea, pertsonen talentua bultzatuz, ingurune produktibo, teknologiko, digital eta adimentsuago batetik eratorritako erronkei erantzungo dieten ikaskuntza-eredu aurreratuak txertatuz eta EAEko Lanbide Heziketa pertsoneri beren enplegarritasuna hobetzen eta EAEko enpresei lehiakortasun handiago baterantz aurrera egiten lagunduko dien eraldaketa- eta berrikuntza-eragile gisa sendotuz, betiere kontuan izanik inor ezin dela atzean geratu, eta Basque Country 2030 Agendaren ildotik garapen jasangarria indartuz eta sustatuz".

Beraz, Euskadiko Lanbide Heziketarako abagune bat dira 2030 Agenda eta garapen jasangarriko helburuak, bat datozelako haren funtsezko lan-ardatzetako batekin: pertsona guztien prestakuntza bermatuko duen giza garapen jasangarria, eta kalitate handiagoko enplegu-aukerak sortuko dituen hazkunde jasangarria.

**PROIEKTUAREN HELBURUAK**

Proiektu honekin, helburu hauek planteatzen dira:

- LHko ikastetxe-sarean egindako ekarpena Basque Country 2030 Agendarekin lerrotzea.
- Garapen jasangarriko helburuak LHko ikastetxeetan hedatzeko sistematika bat definitzea, 2030 Agendan lagunduko duten adierazleak eta prozesuak arin bilduz.

**EKINTZAK**

- Lhrako Euskadi Basque Country 2030 erreferentzia-gida bat argitaratzea. Haren helburu nagusia Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeei jarraibideak ematea izango da, beren estrategia Nazio Batuen garapen jasangarriko helburuekin lerroka dezaten.

- Bilketa automatikoa erraztuko duten tresnak eta teknologiak aztertzea, sistematikaren faseak kontuan hartuta
  - Datuak biltzea
  - Monitorizazio-panelak
  - Haien zabalkunde lagundu dezaketen edukiak garatzea edo antolatzea
- Prestakuntza-edukiak sortzea eta LHko irakasle guztiak sentsibilizatzea.
- Ibilbide-orri bat ezartzea –grafikoan adierazitakoa– LHko ikastetxe bakoitzerako prozesu bat finkatzea ahalbidetuko duena, ikastetxeko estrategiak garapen jasangarriko helburuekin lerrotzeko.



**NORENTZAT?**

Proiektu hau Lanbide Heziketako ikastetxeentzat eta haien hezkuntza-komunitatearentzat da.

---

PROIEKTUA: **2030CATALYSTS**



| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Europako lurraldeetan oraindik aldeak daude garapen jasangarrirako helburuen (GJH) ezarpenean eta, beraz, premiazkoak dira GJHen estrategia kohesibo eta eraldatzaileak. Testuinguru horretan, "2030CATALYSTS" programak GJHetarantz aurrera egiten lagundu nahi du, eta Europako lurraldeen arteko arrakala desagerrarazi. Europako 20 eskualde gonbidatuz, GJHen arteko loturak kontuan hartuko dituen ikuspegi osokoa sustatzea da asmoa. Helburuen artean honako hauek daude:

- **Monitorizazioa eta ebaluazioa:** GJHak lortzeko aurrerabidearen jarraipena egitea eta arreta handiagoa behar duten arloak identifikatzea.
- **Sektoreen lankidetzak:** Sektore arteko lankidetzak sustatzea, garapen jasangarriko erronkei batera heltzeko.
- **Ikaskuntza gurutzatua:** Mugaz gaindiko lankidetzak eta ikaskuntza erraztea, datu bateratuak emanez.

Hautatutako 20 eskualdeek datu garrantzitsuen multzoak eta txostenak emango dituzte, baita GJHen jarraipena eta ezarpena egiteko beste baliabide batzuk ere, eta jakinaraziko dute eskualdeak zenbat aurreratu duen GJHak lortzeko bidean. Elkarlaneko ekosistema horretan, ezagutza kolektiboa eta datuetan oinarritutako estrategiak elikatu eta baliatu ditzake eskualde bakoitzak.

Eskualde parte-hartzaileek aukera hauek izango dituzte:

- GJHen ezarpenari eta jarraipenari buruzko esperientzia zientifikoen berri jasotzea
- Adierazle garrantzitsuak identifikatzea, adituekin, elkartutako erakundeekin eta beste eskualde batzuekin lankidetzan
- Beste eskualde batzuetako jardunbide egokienetatik eta Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC) egindako azterketetatik ikastea
- Garapen jasangarriaren lider gisa finkatzea

---

PROIEKTUA: **OGP MUNDUKO GOI-BILERA**



| Iraupena | 2025 |
|----------|------|
|----------|------|

2025eko urriaren 7tik 9ra, OGPK Munduko Goi Bilera egingo du Gasteizen.

Mundu osoko gobernuetako eta gizarte zibileko goi-mailako 2.000 ordezkari baino gehiago bilduko dira OGPren 2025eko goi-bileran, gobernu irekiko ekimenen esperientziak, jardunbide onenak eta aurrerapenak trukatzeko.

Era berean, Gobernu Irekiaren Erronkara aurkeztutako inpaktu handieneko erreformak sarituko dira, Open Gov Awards-en bitartez.

Antolaketa-batzordeko kideen artean, OGP Euskadi talde sustatzaileko eta Foro Erregularreko ordezkariak daude (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala eta gizarte zibila).

---

**PROIEKTUA: Eten digitala gainditzeko prestakuntza**

Iraupena

2025

KZguneak, IKTetan trebatzeko zentroyen sare publikoak, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzaren mende dihardu (gaur egun, Estrategia Digitalaren Zuzendaritza dena). Proiektua Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE, S.A.) kudeatzen du.

KZgunea 2001ean sortu zen, eten digitala gainditzeko laguntzeko asmoz batik bat, gizarte digitalki aurreratua lortzearren. Gaur egun, herritarren gaitasun digitalak hobetzeko lanean jarraitzen dugu, udalekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan. Funtsezko azpiegitura da teknologia digitalen belaunaldi berriaren zabalkunde, trebakuntza eta esperimentaziorako (234 zentro ditu EAE osoan sakabanatuta).

Lurralde osoan kapilaritate handia duenez, herritar guztiengana, elkarteengana, entitateengana eta beste erakunde batzuegana iristeko aukera ematen du.

**ONLINE BANKA EKIMENA**

Online banka teknologia berrien aurrerapenaren adibide bat da; berebiziko garrantzia hartu du gaur egun, bai bezeroentzat, bai banketxeentzat.

Hari esker, edonondik eta edonoiz egin ditzakegu gestioak, online eragiketak berehala edo oso epe laburrean egiten dira, nonahi gaudela ere, eta beste abantaila batzuk ere baditu, esaterako, transferentziak istantean eta kosturik gabe egin ahal izatea.

KZgunea sareak, behar berri horren jakitun, banketxeekin aliantzak bilatzea proposatzen du, herritarrei ibilbide horretan laguntzeko.

**Orain arte, ekintza hauek egin dira:**

- KZguneak "Ikasi online banka modu erraz eta seguruan erabiltzen" ikastaro berria sortu du; aurrez aurrekoa da, eta 8 orduko iraupena du.
- Zeharkako eduki bat aurkezten da, 4 ataletan banatua. Marka zuriko banketxe faltsu batean oinarrituta irakatsiko da.
- Kutxabankekin eta Laboral Kutxarekin lankidetzan, pilotajeetan parte hartzea onartu baitute, aplikazio- nahiz webgune- eduki espezifikoak sortu dira. Ikastaroan egingo den tailer batean erreferentzia gisa erabiliko dira.
- Ikastaro berri honen proba pilotuak egin dira (2024ko azaroa).
- Emaizak oso onak izan dira, ikastaro pilotuetara joan ziren erabiltzaileei egindako inkesten arabera.

**Hurrengo urratsak:**

- Banku-erakundeei atxikitzeke proposamena egitea.
- Pilotuetan parte hartu duten banketxeek eta KZguneak zabalkunde eta promozioa egitea sare sozialetan, berripaperetan, etab.
- Ikastaro berria KZgunearen prestakuntza-eskaintzan argitaratzea.
- Ikastaro berria 2025eko martxoan hasiko da.

## 11.2 Zerga-lehiakortasunaren, talentua erakarri eta atxikitzearen, kontratazio/erosketa publiko arduratsuaren eta jasangarritasunaren arloko proiektu partekatuen fitxak

PROIEKTUA: **Zerga-erreformaren ekarpena GJHei**

araba  álava  
foru aldundia diputación foral

 Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa

 Bizkaia  
foru aldundia  
diputación foral

 EUSKO PARLAMENTUAREN  
GOBERNUA

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Proiektu honek zerga-sistemaren bitartez GJHetara egin lekiokkeen ekarpenari buruz hausnartu nahi du. Lana hiru foru-aldundiek batera egingo dute.

Hasiera batean, nazioartean arrakasta izan duten esperientziak edo kasuak aztertuko dira; orobat, GJHen ikuspegitik aztertuko da lurralde bakoitzeko zerga-sistema.

Egungo egoera eta arrakasta-kasuak aztertutakoan zenbait tresna fiskal diseinatzea eta probatzea da asmoa, jasangarritasunaren hiru alderdiak (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) kontuan hartzen duen jarduera ekonomiko bat sustatzeko.

PROIEKTUA: **Talentua eta balioak proiektua**

 Bilbao  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

| Iraupena | 2025 | 2026 |
|----------|------|------|
|----------|------|------|

### Testuingurua eta aurrekariak

Berrikuntzan eta ezagutzan oinarritutako eredu bateranzko eraldaketan, Bilbok erronka garrantzitsu bati egin behar dio aurre: erronka demografikoari. Europako hiri askotan bezala, biztanleriaren zahartzeak eta jaiotza-tasaren murrizketak zailtasunak sortzen dituzte belaunaldien ordezkapenerako eta lan-merkatuaren iraunkortasunerako. Testuinguru horretan, talentu kualifikatua erakartzea funtsezko estrategia da hiriaren dinamismo ekonomikoa eta soziala bermatzeko. Kualifikazio handiko profesionalak, ekintzaileak eta talentu handiko gazteak etortzeak, produkzio-sarea biziberritzen laguntzeaz gain, biztanleria aktiboaren gutxitzea orekatu, dibertsifikazio ekonomikoa sustatu, eta berrikuntzaren eta hazkunde jasangarriaren polo gisa sendotuko du Bilbo.

Bilbok eraldaketa nabarmena izan du azken hamarkadetan: industria-ekonomia tradizionala zena, berrikuntzan, zerbitzu aurreratu eta digitalizazioan oinarritutako eredu bat da orain. Bilakaera horrek hiri-garapen jasangarriaren erreferente bihurtu du Bilbo, eta apustu gero eta handiagoa egiten da talentu kualifikatua erakarri eta mantentzearen alde.

Bilboko Udalak, ongi jakinik zein garrantzitsua den giza kapitala hiriaren hazkunde ekonomikorako eta lehiakortasunerako, hainbat estrategia diseinatu ditu kualifikazio handiko profesionalak erakarri eta bertako talentua sustatzeko. Ekimen horien bidez, enplegua sortu ez ezik, berrikuntza-, ekintzaile- eta hezkuntza-ekosistema bat finkatu nahi da, garapen jasangarri eta orekatua bermatuko duena.

Testuinguru horretan, talentua erakartzea lehentasun bihurtu da hiriaren plangintza estrategikoan, eta hainbat programatan sartu da: 2030erako Nazioarteko Ekintza Estrategia, 2024/2025erako Enplegu Plana, BAT dorreko ekintzaile-zerbitzu; baita Azkuna Zentroko STEAM Gelaren moduko prestakuntza-proiektuetan ere.

Proiektu hau 2030 Agendak azpimarratzen duen eragile eta maila anitzeko lankidetzaren esparruan kokatzen da. Proiektu pilotu honen bidez, erakunde, sektoreen eta gobernantza-mailen arteko lankidetzak betetzen duen funtsezko zeregina erakutsi nahi da. Euskadiren kasuan, lankidetzaren bidez esan nahi du koordinazio estuan aritzen direla Euzko Jaurlaritzak, foru-aldundiak, udalak, sektore pribatua, gizarte zibila eta akademia. Ahaleginak eta baliabideak baturik, modu eraginkorragoan ezar daitezke GJHein lerrotutako politikak eta, horrenbestez, garapen jasangarri, inklusibo eta ekitatiboa sustatu. Elkarriketan eta erantzunkidetasunean oinarritutako ikuspegi kooperatibo baten bidez bakarrik sor daitezke irtenbide berritzaileak, tokiko nahiz munduko erronkei erantzuteko aproposak, eta, hala, Euskadik jasangarritasunaren, erresilientziaren eta justizia sozialaren printzipioekin duen konpromisoa indartu.



Eragile eta maila anitzeko lankidetzaz harago, Bilbao Balioen Hiria egitasmoari eta talentua erakartzeko betetzen duen eginkizunari lotzen zaio proiektua. Besteak beste, bizikidetzaren, aniztasunaren eta berrikuntzaren balioetan oinarritutako hiria sustatzen du BBHK, eta hori funtsezko faktore bihurtzen da talentua erakarri eta atxikitzeko. Profesionalek ez baitituzte lan-aukerak soilik bilatzen, ezpada ongizatea, inklusioa eta garapen pertsonala sustatzen dituzten inguruneak ere, eta, ildo horretan, erreferente gisa kokatzen da Bilbo. Balio horiek hiriko bizitzan eta udal-politiketan txertatzeak ekosistema aproposa sortzen du talentuarentzat, eta jasangarritasunarekiko konpromisoa eta identitate kultural sendoa duen ingurune dinamiko baten bila datozen kualifikazio handiko pertsonak erakartzen ditu. Hala, bada, balioak dituen hiri baten aldeko apustuak hiriaren lehiakortasun orokorra eta askotariko talentu berritzailea erakartzeko gaitasuna indartzen ditu.

### Helburu orokorrak

Proiektu pilotu honen helburua, nagusiki, Bilbo nazioartean talentua erakartzeko gune gisa kokatzea da, sektore estrategikoetan (teknologia, digitalizazioa, 4.0 industria eta berrikuntza soziala) kualifikatuta dauden profesionalak irits daitezen.

Horretarako, honako hau planteatzen da:

- Talentuan inbertitzeko ingurune egoki bat garatzea, enplegu-aukerak eta hazkunde profesionala eskaintzen dituen.
- Nazioarteko talentua tokiko ekosisteman txerta dadin sustatzea, enpresekiko, ikerketa-zentroekiko eta ekintzaileekiko lotura erraztuz.
- Etorkizuneko enplegarritasunerako funtsezkoak diren gaitasunetan prestakuntza bultzatzea, bilbotarrek gorabidean dauden sektoreetan aukerak izan ditzaketela ziurtatzeko.
- Bizitza-kalitatea eta ongizatea duen eskaintza bat sortzea, Bilbo helmuga erakargarria izan dadin profesionalentzat eta haien familientzat.

### Aurreikusi diren ekintzak

Aurretiaz:

- Talentua erakartzeari dagokionez Bilbok zer lehia-posizio duen aztertzea.
- Ondorioak aztertzea eta posizionatzeko eta talentua erakartzeko estrategia zehaztea.
- Sektore nagusietako enpresen beharrak aztertzea.
- Talentua erakartzeko aukerak balioekin lotzea.

Ekintzak

- Enpleguaren eta prestakuntzaren arloko ekintzak.
- Berrikuntzako eta ekintzailetzako ekintzak.
- Bizi-kalitatea eta talentuaren integrazioa hobetzeko ekintzak.

### Xede-biztanleria

- Kualifikazio handiko profesionalak, bereziki, sektore estrategikoetan: esaterako, adimen artifiziala, bioteknologia, digitalizazioa, ingeniarietza aurreratua eta energia berriztagarriak.
- Ikasleak eta talentu gazteak, prestakuntzarako eta lan-merkatura igarotzeko bidea emanez, praktiketako eta prestakuntza espezializatuko programen bitartez.
- Enpresak eta korporazioak, inbertsioak erakartzeko eta talentu globala iristeko aukera sustatuz, haien lehiakortasuna indartzeko.
- Ikertzaileak eta akademikoak, unibertsitateen, zentro teknologikoen eta sektore pribatuaren arteko lankidetzak bultzatuz, berrikuntza sustatzeko.

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

### 1. Testuingurua, justifikazioa eta aurrekariak

Eredu demografikoak Donostian duen –eta datozen urteetan izango duen– inpaktuaren aurrean planteatzen da proiektu hau, baina eredu horrek bereziki eragingo du Euskadi osoan, baita beste lurralde batzuetan ere.

Datozen urteetan, ondorio ugariak eta berebizikoak izango ditu eredu demografikoak; gainera, oso azkar iritsiko dira, edo hobeto esanda, jada ari dira gertatzen. Jakinekioa da zer eragin duen zahartze demografiko progresiboak; izan ere, 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren ehunekoa handia da (% 25,3), bizitzak gero eta luzeagoak, jaiotza-tasa gero eta murriztagoa da, eta biztanle gazteak galtzen ari dira.

“Baby boom” belaunaldiko kohortek (orain 50 eta 68 urte bitartean dituztenak) hainbat arlotan eskarmentua eta jakintzak dituzte, eta enplegu ugari betetzen dituzte gure instituzio, enpresa eta erakundeetan. Haiek erretiratzeko prozesuaren ondorioz oso azkar galduko da biztanleria aktiboa eta, bestetik, gazteak, belaunaldi hori ordezkatu beharko lituzketenak, aipatu ditugun kohorteen ia erdiak dira. Gainera, jaiotza-tasa txikia are gehiago murriztuko da, ernaltzeko adinean dauden emakumeen kopuruak behera egingo baitu.

Adierazi bezala bizkortzen joango diren prozesu horien ondorioz, hein handi batean, abagune gisa ageri da immigrazioa, ehuneko handitan (atzerriko biztanleria % 3,3 zen 2003an, eta % 10,2 da 2023an). Aldi berean, behar diren kopuru horietan, erronka itzela dakar, zuzeneko eragina baitu garapen ekonomiko eta demografikoan, gizartearen, kulturaren eta hiriaren errealitatean, eta, aldi berean, zirikusia du zuzenean gizarte-kohesioari, administrazio, lege, hezkuntza eta laguntzazko alderdiei, ekitateari eta gizarte-justiziar, gizarte-bazterketaren eta marjinazioaren prebentzioari, eta kultura-aberastasunari lotutako faktoreekin. Aldaketak ekarriko ditu osaera soziodemografiko eta kulturalean, baita biztanle berriak ere (ohitura, balio, kultura eta hizkuntza desberdinak dituztenak), gazteak, jaiotza-tasaren aldaketak, biztanleria aktibo berria, kultura-aniztasuna, talentua, euskara... Immigrazioaren fenomenoari behar bezala ez erantzuteak hainbat ondorio izan ditzake. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: gatazka eta tentsio sozialak sortzea, arrazakeria, gatazka kulturalak, marjinazio eta bazterketa sozial gero eta handiagoa, ghettoak sortzea, desberdintasun ekonomiko gero eta handiagoak, arazoak hezkuntzan, osasunean, segurtasun falta handiagoa...

Hausnarketa sakona egin behar da, pertsona horiei Donostiako bizitzan eta gizartean eta, hedaduraz, euskal gizarte osoan integratzen lagunduko dieten balio batzuk eta eredu bat bultzatze aldera, eta integrazio hori eta elkar ulermena erraztuko duten politikak eta praktikak sustatu, gizarte inklusiboagoa eraikitzeko.

Proiektuak hirian dituen aurrekari eta erreferentzien artean, Gizarte Ekintzako Zuzendaritzak garatutako zerbitzu eta prestazioez gain, Donostia aspalditik dabil etorkinen harrera eta integrazioa lantzen: besteak beste, Etorkinak Hartzeko Sareak laguntza eta babesa eskaintzen die etorkinei, elkartegintza eta komunitatearen parte-hartzea sendotuz; gizarteratze- eta bizikidetzatza-prozesuetan laguntza espezializatua emateko programak daude, edo familia-babesik gabeko gazte migratzaileak lagundu, gizarteratu eta laneratzeak. Kultura-aniztasunaren esparru zehatzean aipagarria da, halaber, babes-sareen sorkuntza sustatu dela; askotariko jatorriak, kulturak eta bizimoduak dituzten pertsonen arteko elkarreragin positiboari bide emateko inguruneak sortzeko esku hartu dela; eta zurrumurruek aurkako estrategia ezari.

Donostiako Gizarte Kontseiluaren esparruan: 2014an gizarteratze-lantaldea jarri zen abian, hiriko gizarteratzeari ekiteko maila anitzeko lantalde bat. Donostiako gizarteratze-errealitatearen eta -premien diagnostikoa egin zuen, eta lehentasunezko jardun-eremu batzuk proposatu zituen, immigrazioari gizarteratzearen ikuspegitik helduz. Era berean, Gizarte Kontseiluak hirirako funtsezkoak diren gaiak buruz hausnartzen eta eztabaidatzen du. Besteak beste, donostiar berrien errealitateari buruzko eztabaida-saioak, aurkezpenak eta abar egin ditu. Esparru horretan, lantalde bat bultzatu du kalean dauden pertsonen problematikari erantzuten laguntzeko, eta diagnostiko bat eta dekalogo bat prestatu ditu.

Donostiako Estrategia. Hiriaren plan estrategikoek –E2020DSS eta E2030DSS estrategiak– berariaz jasotzen dute erronka demografikoari eta immigrazioaren fenomenoari zeharkako ikuspegitik heldu beharra.

Lan-ildo horren planteamendua bat dator, halaber, garapen jasangarrirako helburuekin (GJH), maila anitzeko Euskadi 2030 Agendarekin, Hiri Agendarekin, Bultzatu 2050-Euskal Hiri Agendarekin eta Immigrazioaren Euskal Itunarekin.

Proiektu honetan proposatutako lan-ildoak estu egokitzen zaio Eusko Jaurlaritzaren Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planari (2022-2025), zeinak euskal gizartean etorkinen gizarteratzea eta parte-hartzea sustatzea baitu helburu.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren 2025-2028ko Planaren helburuen artean kokatzen da proiektu hau; izan ere, "proiektu partekatuak sustatu nahi ditu administrazio publikoaren eta beste eragile sozioekonomiko batzuen arteko sinergia (lankidetzak) egituratzeko, besteak beste, instituzioekin, hirugarren sektoreko erakundeekin, enprekin eta unibertsitateekin, epe luzerako eraldaketa (berrikuntza) bultzatzeko".

## 2. Definizioa, helburuak eta garapen-esparrua

Proposatzen dena da, Estrategia Demografiko bat eraikitzeko prozesu batekin harreman estuan, Immigrazioa Integratzeko Eredu bat definitzen hastea elkarrekin, biztanle etorkinak erakartzeko prozesuari nahiz gizarte kohesionatu bat eraikitzeko prozesuari helduko diona.

Berrikuntza sozialaren ikuspegitik planteatutako proiektu bat da, eta, haren helburua berriaz dimentsio-anitzekoa izanik, ikuspegi integratzaile eta zeharkakoa edukitzea eskatzen du. Tokiko ikuspegitik egindako proiektu bat, baina EAeko gainerako udalerrietan erreplika daitekeena.

Hura taxutzeko, hainbat alor instituzional eta sozialetan egin beharko dira ekintza koordinatuak, helburu komun eta gobernantza-eredu adostu batekin; ildo horretan, zehaztu beharko da zer konpromiso eta zeregin izango dituzten proiektuaren buru diren erakundeek eta prozesuko parte-hartzaile guztiek. Koordinaziorako eta jarraipenerako batzorde edo talde bat ezartzea ere planteatu da.

Honako hauek planteatzen dira:

- Eragileen mapa bat eta lantalde bat eraikitzea, non jasoko diren administrazioaren maila guztiak (gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, kultura, etxebizitza, enplegua, osasuna...), gobernu kanpoko erakundeak, enpresak eta sektore pribatua, tokiko komunitatea, komunikabideak...
- Eragile guztiekin gogoeta egitea, immigrazioaren errealitatearen eta abian dauden politiken eta neurrien diagnostikoa eta azterketa egiteko.
- Benchmarkinga. Ereduak. Kalitatezko informazioa izatea immigrazioaren errealitateari eta beste lurralde batzuetako integrazio-ereduei buruz, euskal integrazio-eredua eraikitzeari eta hura kudeatzeko ekintza-ildoak zehazteari begira hausnarketa egiteko.
- Immigrazioa integratzeko eredu berriaren oinarriak elkarrekin eta adostasunez eraikitzea, eta gizarte inklusibo eta kulturarteko baten aldeko jokaleku bat diseinatzea; orobat diseinatzea hori lortzeko helburuak eta eragileen maparen koordinazioa hobetzeko moduak ere.
- Erronka problematikoak eta jardun-esparruak definitzea. Funtzionatzen duten lan-ildoak indartzeko eta ekintza-ildo berriak diseinatzeko ere balioko du horrek.
- Ibilbide-orri bat diseinatzea immigrazioa integratzeko euskal ereduari ekiteko.
- Proiektu pilotua Donostian, ibilbide-orrian lehenetsitako neurriak aplikatzeko eta errepikatzen modukoak diren ikusi ahal izateko.
- Ebaluazioa. Egindako prozesuaren monitorizazio eta jarraipenerako sistema bat finkatzen bada eta, azkenik, gauzatutako proiektu osoaren eta abiarazitako proiektu pilotuaren inpaktua ebaluatzen bada, gogoeta aberatsagoa egin ahal izango da immigrazioa integratzeko ereduaren, lan-ildoaren jarraitutasunaren eta eredu beste udalerrri batzuetara eta Euskal Autonomia Erkidego osora hedatzearen inguruan.
- Komunikazio-lanerako ildo bat ezartzea, erronka honen alderdien kudeaketan zerikusia duten eragile guztiak sensibilizatzeko, eta, bestalde, bai gizartea bai herritar berriak sensibilizatzeko eta kontzientziatzeko.

## 3. Nori dago zuzenduta?

Gogoeta-prozesuaren lehen faseetan, administrazioaren maila eta arlo guztiek esku hartu behar dute, baita immigrazioaren errealitatearekin lotura zuzenekoena duten eragileen ordezkariak ere, hirugarren sektoreko eta etorkinen kolektiboetako ordezkariak barne; hartara, gizarte osoarekin egin ahal izango da aurrera kontrastean eta inplikazioan.

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Bermeo Tuna World Capital (BTWC) aliantza publiko-pribatu bat da, atunaren balio-kateko funtsezko eragile guztiak inplikatu nahi dituen, tokian tokitik atunaren kudeaketa jasangarria sustatzeko, baliabide naturala den aldetik. Horretarako oinarria ezagutza zientifikoa, zientzia, berrikuntza eta gizarte- eta ingurumen-jardunbide egokien lidergoa izango dira, eta nazioarteko estandar zorrotzeneri jarraituko zaie. Helburu hauek ditu, besteak beste:

- zientziaren eta arrantzaren arteko harremana sustatzea;
- prestakuntza eta kontzientziazioa sustatzea;
- ondare historikoa berreskuratzea, kudeatzea eta zabaltzea;
- kulturen arteko esperientzia-trukea sustatzea;
- ekonomiaren eta gizartearen garapena bultzatzea, eta Bermeoko eta aldirietako ingurumen-oreka;
- nazioarteko beste hiri, lurralde eta eragile batzuekiko konexioa eta lankidetzak bultzatzea, atunaren iraunkortasuna sustatzeko.

BTWCk Bermeoko eragile publiko eta pribatuen arteko aliantza eraiki eta finkatzeko proiektu bat jarriko du abian, lurraldearen errealitate soziala, ekonomikoa, ingurumenekoa eta kulturala hobetzeko, haren trakzio-industriaren –atunaren–jasangarritasunari lotuta. Horretarako, ALMA2030 izeneko metodologia eraldatzailea erabiliko du.

Metodologiak proposatzen du lurraldeko eragile guztiak mobilizatzea, lurraldea eraldatzeko funtsezkoak diren 4+1 arlotan aurrera egiteko:

1. Herritar aktibo, kontziente eta protagonistak eraikitzea.
  2. Kudeaketan jasangarritasuna, GJHak eta aliantzak integrazeko berrikuntza:
    - Kudeaketa publikoa
    - Enpresen kudeaketa
    - Gizarte zibila
    - Zentro akademiko eta teknologikoak
  3. Lurraldea eraldatzeko epe luzeko proiektuak eta ibilbide-orriak sortzea, elkarrekin eta elkarrentzat.
  4. Atunaren iraunkortasunari lotutako inbertsio publiko zein pribatua erakartzea lurraldeko garapen jasangarriko plan eta proiektuetara.
- 4+1. 17. GJHaren narratiba kualitatibo bat eraikitzea aurreko ardatzen inguruan, txostenen oinarri kuantitatibo osatze aldera, eta nazioarteko eta mundu osoko beste lurralde eta ingurune batzuekin konektatzea, nazioartekotze-estrategia batekin.

2025ean, plana elkarrekin sortzea, zenbait ardatzetan aurrera egitea eta horiek sendotzea lehenetsiko da.

#### Hauek dira helburu espezifikoak:

- **Bermeo Tuna World Capital-en Ekintza Plana egitea, ALMA 2030 metodologiarekin:** Bermeon Garapen Jasangarriko Eragile Anitzeko Aliantza egiteko Ekintza Plana ALMA 2030 metodologian oinarrituko da, eta bereziki azpimarratuko da Bermeoko lurraldeko eragileak izatea Aliantza eraikitze eta ezartzeko prozesuaren jabe (batik bat, lehenetsitako BTWCko bazkideak, Udal Erakundea barne).
- **Haurrak eta gazteak itsasoetako eta atunaren balio-kateko jasangarritasunaren inguruan sentsibilizatzea, bertako nortasunari eta ingurumenaz arduratzeari balioa emango dieten proposamen pedagogikoen bidez, ikasleek beren ingurune kulturalarekin eta ingurumenarekin daukaten lotura sendotzeko. (ALMA2030, 1. ARDATZA):** BTWCk itsasoetako eta atunaren balio-kateko jasangarritasunaren inguruan sentsibilizatu eta trebatuko ditu haurrak eta gazteak, bertako nortasunari eta ingurumenaz arduratzeari balioa emango dieten hezkuntza-praktiken bidez, ikasleek beren ingurune kulturalarekin eta ingurumenarekin daukaten lotura sendotzeko. Herritarrak atunaren iraunkortasunaren eta 2030 Agendan egindako aurrerapenaren jakitun, aktibo eta protagonista bihurtzea.
- **BTWCren eraikuntzan eta nazioarteko posizionamenduan laguntzea, 2030 Agendarako, ozeanoen jasangarritasunerako eta jasangarritasunaren aldeko eragile anitzeko aliantzetarako garrantzitsuak diren Nazio Batuen foroen bidez (4+1 ARDATZA).**

PROIEKTUA: **Garapen Jasangarriaren aldeko Atun Hiri eta Lurraldeen Aliantza**

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Giza Garapen Jasangarriaren aldeko Atun Hirien Aliantza 2030 Agendako GJHak lortzeko bidean aurrera egiteko konpromisoa duen hiri-sare bat da. Horretarako, tokiko eragile anitzeko aliantzak bilatzen ditu, elkarri esperientzia eta irtenbide berritzaileen berri emateko, eta haien aurrerapenak nazioartean eta mundu osoan proiektatzeko.

17. GJHaren ezarpena, garapen jasangarrirako eragile anitzeko aliantza publiko-pribatuak mobilizatuz, prozesu kolektibo, sistematiko eta epe luzekoa da. Prozesu horretan, eragile publiko eta pribatuak, baita herritar guztiek ere, ikuspegiak eta estrategiak bateratu eta ezagutzak, teknologiak eta datuak partekatzen dituzte. Helburua da irtenbideak bilatzea, atunaren sektorearen iraunkortasunari lotuta, lurraldearen garapen jasangarriak dakartzan erronka askotarikoei: ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak, eta baita giza erronkak ere.

Eraldaketa-prozesu kolektiboaren oinarrian, 2030 Agendaren Aurrerapenerako Eragile Anitzeko Aliantza bat (ALMA 2030) sustatuko da atunaren lurraldeetan, funtsezko 4+1 ardatzen inguruan:

Hauek dira helburu espezifikoak:

1. Herritarrak atunaren iraunkortasunaren eta 2030 Agendan egindako aurrerapenaren jakitun, aktibo eta protagonista bihurtzea.
2. Berrikuntza eta gaitasunak sortzea tokiko eragileengan: erakundeak, enpresak eta kooperatibak, gizarte zibila, akademia.
3. GJHak lortzera bideratutako epe luzeko ibilbide-orriak diseinatzea eta kudeatzea.
4. Epe ertain eta luzeko inbertsio publiko eta pribatua erakartzea lurraldearen garapen jasangarrirako plan eta proiektuetara.

4+1. GJHak lortzeko bidean, hirien eraldaketa-prozesuaren aurrerapenaren narratiba eraikitzea, beste lurralde batzuekin konektatu eta konponbideak trukatzeko, eta Nazio Batuen eremuetan eta 2030 Agendarekin lotutako beste gune batzuetan nazioarteko proiektzioa erraztea.

Oraingoz, bi fase aurreikusi dira:

### 1. fasea

- Garapen Jasangarriaren aldeko Atun Hirien Aliantza sendotzea, proiektu partekatu baten bidez.
- Lehen urtean, atun-hiri bakoitzean diagnostiko bat eta plan estrategiko bat izatea, lurraldean eragile anitzeko aliantza bat (ALMA2030) ezartzeko.
- Atunaren lurralde bakoitzeko enpresetan eta administrazio publikoan gaitasunak sortzea, jasangarritasuna haien gobernu-eta kudeaketa-ereduetan txertatzeko era eragile anitzeko aliantzetarako.
- Ezagutzaren kudeaketa eta hiri arteko truke eta sinergiak sustatzea, baita BTWCren, Aliantzaren eta hirietako bakoitzaren posizionamendua nazioarteko agendan ere.
- Lehen urtean Hirien Aliantzaren eta BTWCren marka-irudia izatea, baita narratiba koherente, bereizgarri eta proiektagarri bat ere.

### 2. fasea

- Hirietako bakoitzean eragile anitzeko ALMA 2030 aliantzak ezartzeko planak abiaraztea.
- Aliantzako hirien artean ezagutzaren kudeaketa, soluziobideak, berrikuntza, teknologiak, finantzaketa iraunkorra lortzeko modua, eta gaitasunak zein datuak trukatzeko aukera finkatu eta optimizatzea.
- BTWCren eta Atunaren Aliantzaren marka-irudia eta narratiba indartzea, Atun Hiri bakoitzak jasangarritasunaren bidean egin dituen aurrerapenez baliatuz.
- Aliantzako hirien nazioarteko proiektioari eta garapen jasangarriaren nazioarteko agendan daukaten posizionamenduari bultzada ematea, arrantza jasangarriari eta lurralde urdinari buruzko zentro bat eratzea Local 2030 Koalizioari lotua, eta Ekonomia Urdineko Agenda eta atunaren sektoreari lotutako elikagaien balio-katearen jasangarritasuna sustatzea.

## 11.3 Klima-aldaketaren, elikadura jasangarriaren eta landa-eremuaren nahiz lurraldearen garapenaren arloko proiektu partekatuen fitxak

PROIEKTUA: **Autokontsumo kolektiboetan oinarriturik industria deskarbonizatzeako prozesuak**

araba  **álava**  
foru aldundia diputación foral

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

ÁArabako lurralde historikoa betidanik egon da landa-garapenari lotuta. Hala ere, lurraldeko ingurumena askotarikoa bada ere, eta ondo kontserbatuta egon arren, industriaren pisua oso garrantzitsua da (BPGaren % 34). Arabak industria liderrak ditu (automobilgintza, hodiak, beira, aeronautika, trenbideak, logistika,...), eta lur-azalera handiak behar dituzte, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera handia duen lurralde mugatu batean. Horri gaineratzen zaio tokiko energia berriztagarria sortu behar duela bere mendekotasun energetikoa murrizteko, balio handiko nekazaritza-lurrak eta mendiguneak planta fotovoltaiko eta eolikoekin betez. Presio horrek tentsio sozialak eta gaitzespena sortzen ditu landa-biztanleen artean, beren ingurune naturala eta bizimoduak arriskuan ikusten dituztenez.

Horregatik, 2030 Agendaren estrategiarekin bat etorritik, apustu irmoa egin nahi da industria-sektorea eta gure enpresen deskarbonizazio-prozesu beharrezkoa lotuko duten ekimenen alde, autokontsumorako gertutik datorren energia berriztagarria ekoizteko proiektuak bultzatuz.

Alde horretatik, energiaren autohornikuntza sustatzea da asmoa, kanpoko iturri ez-jasangarrien mendekotasuna murrizteko, eta energia berriztagarriak sustatzea, Arabako industrietan erabil ditzaten eta, hala, Arabako natura-ondarea eta nekazaritza-lurrak zaintzeko.

**Hauek dira proiektu honen erronkak:**

- Energia-kostuak optimizatzea: energia fotovoltaikoa nahiz bestelakoa ezarriz, eta, horrela, merkatuetan Arabako industriaren lehiakortasuna hobetzea.
- Entitatea sortzea eta instalazioa egitea: proiektuari lotutako industrietan osatuko duten entitatea sortzea eta instalazioari ekitea.
- Energia-independentzia handiagoa sortzea: Arabako industrien energia-independentziarentzat lagungarria izango da autokontsumorako energia sortzea, haien beharretara egokitutako instalazioen bidez.
- Lurraldeko enpresen arteko elkarlan energetikoa sustatzea: industrialdeetan energia-komunitateak sortzea, industria guztien parte-hartze eta konpromiso kolektiboarekin.
- 

**Horretarako, helburu espezifikoak hauek dira:**

- Aurretzako azterketak egitea: industrialdeetako enpresek zer eskari dituzten eta kokaleku egokienak zein diren identifikatzea.
- Energia-instalazioen neurria eta egitura diseinatzea: inpaktu txikieneko kokapen bideragarriak zein diren, zenbateko azalera behar den eta nolako azpiegitura-eredua instalatuko den proiektatzea, beharren arabera.
- Entitatea sortzea: energia-ekimena behar bezala kudeatzeko entea definitzea eta izaera juridikoz hornitzea.
- Instalazioa garatzea: proiektuari lotutako industriak osatzea eta atxikitzea, eta energia ekoizteko instalazio berriztagarriei ekitea, eskualdeko erakundeen eta eragileen inplikazioarekin.

Horrekin guztiarekin, Arabako industrien energia-kostuak optimizatzea bilatzen da. Era berean, enpresek energia-independentzia handiagoa lortuko dute, eta, horrenbestez, zeinek bere merkatuan lehiakortasun handiagoa izango du; orobat, balio handieneko nekazaritza-lurrak errespetatuko dira, bertako komunitateen eta lurraldeko herrien lankidetzarekin.

**PROIEKTUA: Klima-aldaketaren arloko Estatistika Ofizialetarako Big Datako eta Datu Zientziako NBEren Elkarreragingarritasun Zentroa**



| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Estatistika Ofizialetarako Big Datako eta Datu Zientziako Nazio Batuen Elkarreragingarritasun Zentro bat ezartzea da helburua, jasangarritasunerako zientzian oinarritutako erabakiak hartu ahal izateko. Konpromiso hori betetzeko, azpiegitura digital irekiak, gardenak, banatuak eta elkarreragingarriak sustatuko ditu.

Gaur egun, diziplinen eta erakundeen artean zatikatuta egon ohi da jakintza, eta izan dezakeen eragina mugatzen du horrek. Zentroa datuak, ereduak eta pertsonak konektatzeko arituko da lanean, benetan eskuragarria, deszentralizatua eta elkarreragingarria izango den ekosistema bat osa dezaten, jasangarritasun-erabakiak daukagun zientziarik onenean oinarrituko direla ziurtatuz. Zentroaren misioak hiru dira:

### 1. Elkarreragingarritasun semantikoa eta ezagutzaren integrazioa

Zentroak elkarreragingarritasun semantikoa sustatuko du, ezagutza modu esanguratsuan konektatu eta berrerabili ahal dela bermatzeko, berdin dio haren jatorria zein den: parekoek berrikusitako zientzia, datu estatistikoak nahiz tokian tokiko eta indigenen jakintza. Askotariko ezagutzak integraturik esparru digital partekatu batean, maila guztietan erabakiak modu informatu eta arduratsuan hartzeko oinarri bat sortzen dugu.

### 2. Azpiegitura digital irekia eta sakabanatua

Kontrola gutxi batzuen esku jartzen duten plataforma itxi eta pribatuez bestela, azpiegitura ireki eta sakabanatuek ezagutzaren gobernantza demokratikoagoa sendotzen dute. Zentroak garatu nahi dituen sistema elkarreragileek askotariko ezagutza-iturriak lotuko dituzte, denbora errealean elkarrekin lan egitea ahalbidetuko dute, eta ingurumeneko, gizarteko eta ekonomiako sistemen elkarmendekotasunei egokitutako konponbideak batera sortzea erraztuko.

### 3. Gaitasunak garatzea eta lankidetzazko berrikuntza

Ezagutza eskuratzeko aukera izatea ez da erronka teknikoa soilik, ezpada manamendu politiko eta soziala. Zentroak aktiboki sustatuko dituen gaitasunak, pizgarri eta elkarrekin bitartez, ikertzaileak, erakundeak nahiz komunitateak ahaldunduko dira, ekosistema digital elkarreragileak ezarri eta garatzen laguntzeko. Zientzialarien, ezagutza-ingeniarren eta politika-egileen arteko lankidetzak esplizitua sustaturik, ez ditugu azpiegitura digital teknikoki sendoak soilik bermatzen, baizik eta baita sozialki inklusibo eta etikoki sendoak ere.

Zentroa gai izango da nazioarteko erakunde sorta zabal bati estrategikoki laguntzeko: horixe da lankidetzazko berrikuntza kontzeptuaren indargune nagusietako bat. Erakunde horien artean NBEren agentziak sartzen dira (adibidez, FAO, NBIP, Nazio Batuen Estatistika Dibisioa, Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Departamentua), baina baita munduko beste erakunde batzuk ere (hala nola Munduko Bankua, NDF eta GBI). Izan ere, askotan antzeko erronkak izaten dituzte erakunde horiek, baina bakarka lantzen dituzte. Zentroari esker errazago lerrotuko dira, estrategia bateratuak sustatuko dira, eta oinarri zientifiko sendoa duten elkarlaneko irtenbideak eskainiko dira.

Funtsean, Nazio Batuen Elkarreragingarritasun Zentroa (Bilbon) ikerketa-zentro soil bat izatetik harago joango da: aldaketaren katalizatzaile bihurtu nahi du. Erabakiak modu irekian, konektatuan eta zientziari jarraituz har daitezela sustaturik, ezagutza demokratizatatu nahi da, jasangarritasunaren aldeko ekintza kolektiboa bizkortu, eta etorkizun justu eta erresilienteago baterako oinarriak ezarri.

Zentroak Nazio Batuen protokoloen arabera funtzionatuko du, eta mundu osoan antzeko erakundeek dituzten esparru operatiboak islatuko ditu. Kontseilu batek zuzenduko du, zuzendari bat eta langileak izango ditu, eta aurrekontu zehatz batez, plan estrategiko batez eta urteko lan-plan xehatu batez hornituko da.

Hasiera batean, 5 milioi dolarreko aurrekontua beharko du zentroak. Baliteke kopuru hori aldatzea, langileen mailak, instalazio erabilgarriak eta administrazio-beharrak zein diren. Aurrekontuarekin, aditu nazionalak eta nazioartekoak ordainduko dira, bai eta lehen bost urteetako operazio-kostu orokorrak ere. Epe luzeagoko plan bat zirriborratuko da, 2035era artekoa, hasierako jardueraren helburuak zenbateraino bete diren kontuan hartuta. Jarraian, proposatutako jardun-esparrua deskribatzen da:

- Hasierako fasea (2026-2027), zentroaren sorreran zentratua.
- Sendotzeko fasea (2028-2030).

Prozesuan, lehenengo bost urteetarako urteko aurrekontua kalkulatu da. Litekeena da 2030etik aurrera doitu behar izatea aurrekontu hori, bidaia- eta prestakuntza-premia handiagoei tokia egiteko. Gainera, 2030erako finantzaketa-iturri eta ebaluazio-irizpide berriak ezartzea espero da.

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Landa-garapenak, landa-eremuaren garapen jasangarri, adimentsu eta integratzailea bilatzen duen heinean, era askotako arloak hartzen ditu barnean eta, hortaz, beharrezkoa bihurtzen da zeharkako neurri eta politikak ezartzea tartean diren lurralde-eremu eta eremu funtzional guztietan. Horiek horrela, landa-garapenaren barruan, jarduketa estrategikoak egin behar dituzte erakunde publikoek, zeinek bere eskumen-esparruan. Aurreikusitako jarduketa horiek bat datoz foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak lurralde-garapeneko programak idazteko egindako lanekin (Landa Garapeneko ekainaren 30eko 7/2022 Legeak arautzen ditu programa horiek).

**Erronkak hauek dira:**

- Araban biztanleriaren oreka sustatzea: Arabako Lurralde Historikoan, biztanleriaren % 75 baino gehiago Gasteizen bizi da. Kuadrilla eta udalerrietan, alde handiak daude dentsitate demografikoetan eta desoreka nabarmena dago biztanleriaren lurralde-banaketan. Arabako udalerri asko daude landa-udalerri gisa sailkatuta (ELGAren, Eurostat-en, Landa Garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Legearen, edo Eusko Jaurlaritzak garatutako Landa Zonakatzearen arabera). Adibidez, Arabako bi eskualdetan, biztanleriaren dentsitatea ez da iristen 12,5 biztanle/km<sup>2</sup> izatera; Europako Batzordeak maila horretatik behera jotzen du despoblazio-arriskua dagoela. Arabako Mendialdeko Eskualdea (5 biztanle/km<sup>2</sup>-ko dentsitatea) eta Añanako Eskualdea (9 biztanle/km<sup>2</sup>) dira bi eskualde horiek.
- Arabako landa-inguruneko zerbitzuen irisgarritasuna hobetzea: Arabako udalerriek tokiko erakunde txiki asko dituzte (kontzejak), eta baliteke horiek, aldi berean, oso barreiatuta dauden biztanlegune txikiz osatuta egotea. Horrek zaildu egiten die haietan bizi diren biztanleei oinarrizko zerbitzu jakin batzuk erabili ahal izatea, hala nola saltokiak, farmaziak edo laguntza pertsonala. Arestian zehaztutako guztiagatik, eta kasu zehatz honetan, askotan biztanlegune horietatik urruti daude elikagaiak eta oinarrizko beste produktu batzuk saltzen dituzten dendak, baita lehen mailako zerbitzuak ere. Kasurako, Añanako koadrilan 115 biztanlegune daude, eta Arabako Mendialdeko koadrilan, berriz, 47.
- Arabako tokiko merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea: baldintza horiek guztiek agerian uzten dute salgaiak etxera eramateko edo arreta etxean emateko programa espezifiko bat ezarri behar dela tokiko zerbitzuen eta merkataritzaren sareak hobetu eta, hala, Arabako eskualdeetako landa-biztanleen beharrei erantzuteko. Kontua ez da oinarrizko beharrak asetzea soilik, baizik eta tokiko merkataritza sortu eta mantentzea, dagoen tokian "komunitatea egiteko" balio duelakoan.

Horrela, landa-eremuan zerbitzu-plataforma bat sor dadila sustatzeko interesa du Arabako Foru Aldundiak, helburu hauek betetzeko:

- **Despoblazioari galga jartzea**, Arabako landa-eremuetako biztanleei oinarrizko zerbitzuak edo oinarrizko produktuak eskuratzea erraztuz, inguru horretan gelditu daitezkeela bermatzeko.
- **Leku horietan dauden saltokien/zerbitzuen artean sareak ezartzen** laguntzea, landa-eremuan jarduera komertziala, ekonomikoa eta soziala sustatzea ahalbidetuko duen plataforma baten bidez.

Ekintza honen garapena, hasiera batean behintzat, 1.000 biztanletik beherako biztanleguneetarako planteatzen da, Arabako 10.000 biztanletik beherako udalerrietan. Orobat, 1.000 biztanletik gorako biztanleguneetara zabaltzeko aukera azter liteke, haietan ez bada biztanleei zerbitzua ematen dien tokiko merkatarizarik.

Arabako Foru Aldundiak plataforma bat bultzatuko luke eskualdeko eragileekin lankidetzan, sistemara atxikitzen diren saltokietako produktuak edo zerbitzuak eskaintzeko. Halaber, modu pertsonalizatuan hornitu eta etxera eraman ahal izango dira. Bitartekaritza-plataformari dagokionez, lehendik zegoen ekimen baten esperientzia aprobeitatu daiteke (Arabamarket), Arabako Foru Aldundia baita haren jabe.



PROIEKTUA: **Basaldea - Nekazaritza ekologikoaren sustapena Gasteizen**

| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 | 2028 |
|----------|------|------|------|------|
|----------|------|------|------|------|

Gasteizko 2030 (Hiri) Agendak 5 erronka estrategiko handi eta hainbat palanka zeharkako ezartzen ditu. Ekintza-plan hau osatzen duten 98 ekintzak haien barruan kokatzen dira. 2. erronka. Vitoria-Gasteiz produktiboa, berritzailea, ekintzailea eta digitala. Lau azpierronkaren bidez garatzen da, eta horien artean 2.4 zenbakikoa dago: Nekazaritzako eta abeltzaintzako eredu jasangarri eta ekologikoak eta nekazaritzako elikagaien sistema deskarbonizatua.

Azpierronka horren barruan, ekintza hau definitu da: “Nekazaritzako jarduerak, abeltzaintzako ustategi estentsiboak eta lehen eraldaketakoak kontserbatzeko eta bultzatzeko programak, zeinak udal-biodibertsitatea babestearekin, deskarbonizazioarekin eta landa-eremuen dinamizazioarekin bat datozen. Bereziki sustatuko dira eredu agroekologikoak”.

Programa horretan, beste hainbaten artean, zenbait jarduera daude nekazaritza ekologikoa sustatzen duten proiektuei –hala nola Basaldeari– jarraipena eta bultzada emateko, baita nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenean emisioak murrizteko ekintzak, CO2 hustubideen gaitasuna handitzekoak edo nekazaritza birsortzaileko jardunbideak ere.

Basaldea udalaren proiektu bat da: enpresa agroekologikoen zentro bat, gure udalerrian nekazaritza ekologikoaren arloko autoenplegua eta ikaskuntza sustatzeko. Espazio garrantzitsua da, lehen sektoreak balio handia duenez. BASALDEA proiektua tokiko nekazaritza ekologikoa bultzatzeko jarduera multzo batek osatzen du. Informazio gehiago: BASALDEA

BASALDEA proiektuaren helburu orokorra da epe ertainean enplegua eta enpresak sortzea Arabako nekazaritzako produktu ekologikoen ekoizpenaren eta banaketaren sektorearen inguruan, ildo hauetan esku hartuz:

1. Enpresa agroekologikoen udal-hazitegia. Enpresa agroekologiko sortu berrien zentro horrek beharrezko ekoizpen-azpiegiturak eskaintzen ditu (lurra, merkaturatze-kanalak, manipulatzeko eta saltzeko espazioak, biltegia, tresnak, etab.), eta nekazaritza-araubidean dauden enpresa edo autonomoei hamar urtez laguntzen die enpresak sortzeko eta sendotzeko prozesuetan, nekazaritzako ekintzailetza-proiektuen arrakasta-aukerak handitzeko.
2. Prestakuntza. Bi helbururekin: batetik, gazteentzako nekazaritza-arloko lanbide-heziketa hornitzea edo handitzea, eta sektore horretako langileen kualifikazio profesionala hobetzea; bestetik, lanbide-heziketa hautatzeko orduan aukera posibleen artean kokatzea nekazaritzako prestakuntza.
3. Merkaturatzea. Lan-ildo honen helburua da ekoizleen eta banatzaileen artean sinergiak sortzea, Arabako nekazaritza-produktuak banatzeko eta merkaturatzeko kanalak diseinatzuz edo daudenak sustatuz, hurbileko merkataritza eta tokiko produktuen kontsumoa bultzatzeko.
4. Sentsibilizazioa eta komunikazioa. Produktu ekologikoa, tokikoa eta sasokoa ekoitzi eta kontsumitzearen onurei buruz sentsibilizatzea, baita kontsumo mota horrek ekonomiaz deskarbonizazioan eta elikadura-subiranotasunean duen eraginari buruz ere.

Merkaturatzearen esparruan hain zuzen, bi salmenta-modu hobetzea proposatu da 2025. urte honetan:

1. Produktu jasangarriaren salmenta geroratu: Bitarteko teknologikoak aprobetxatu nahi dira bezeroari “tokiko ekoizle txikiaren” produktua hurbildu ahal izateko, trazabilitatea galdu gabe eta bitarteko operadoreen beharrik gabe. Hiri-erdiguneko saltokietan edo merkatuetan produktu horiek saltzeko makinak instalatzeko aukera planteatu da.
2. Salmenta-puntua finkan. Basaldea proiektuaren esparruan, bada zuzeneko salmenta-puntu bat finkan. Hor, produktua saltzeaz gain, ekoizpen-zirkuitu labur bat zer den eta nekazaritzako elikagaien strategiaren esparruan zer balio duen jakinarazten eta zabaltzen dute ekoizleek. Salmenta-puntu hori egokitzea eta hobetzea litzateke helburua.

Proposatutako proiektu partekatuak bi alderdi izango litzuzke: alde batetik, lehen aipatutako merkaturatze-jardueraren bitartez, tokiko produktuen eskuragarritasuna handituko litzateke, egun gehiagotan erosi ahal izango liratekeelako udalerrian bertan ekoiztako produktuak; bestetik, sentsibilizatzeko eta komunikatzeko jarduerak, kanpaina baten bitartez, merkatu jasangarriak ikustera emango litzuzke, eta azpimarratuko luke zein baliotsuak diren finkan landatutako eta hurbileko produktuak, kalitatearen nahiz jasangarritasunaren ikuspegitik. Horrela, tokiko ekonomiaren deskarbonizazioa sustatuko litzateke.

Izan ere, Vitoria-Gasteiz udalerririk Europar Batasunaren Hiri Neutro eta Adimentsuak 2030 Misionaren parte hartzen du. Haren arabera, zirkulartasun-estrategiaren osagaietako bat da tokiko elikadura, hain justu, Gasteizko Hiria Klima Akordioaren 6 ardatzetako bat dena.

Bestalde, azpimarratu behar da Basaldera modu jasangarrian iristeko aukera bermatuta dagoela garraio publikoaren bitartez, dela autobusez, dela tranbiaz.

---

**PROIEKTUA: Euskadiko kontratazio publikoaren irizpide ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak GJHein lerrokatzeko gida egitea**



|                 |             |
|-----------------|-------------|
| <b>Iraupena</b> | <b>2025</b> |
|-----------------|-------------|

Proiektu honen helburua da aurrera egitea irizpide sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak 2030 Agendako GJHein lerrokatzeko bidean.

Horretarako, GIDA motako dokumentu argitaragarri bat idatziko da: "Euskadiko kontratazio publikoan irizpide ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak garapen jasangarrirako helburuekin lerrokatzea".

Urrats hauek egingo dira:

- **Lanaren antolamendua eta irismena.**
  - Hasierako bilera bat egitea, proiektua testuinguruan kokatzeko, proposamena berrikusteko eta gakoak eta kontraste-talderako eragileak identifikatzeko.
  - Identifikatutako eragileekin aldez aurretik harremanetan jartzea.
- **Mapa batean jasotzea Euskadiko erosketaren publikoko irizpide finkatuak zein diren eta GJHein nola lerrokatzen diren.**
  - Aldez aurretik, irizpideak GJHen arabera identifikatzea.
  - Funtsezko eragileekin kontraste-txanda egitea eta kasu praktiko nabarmenak identifikatzea.
  - Irizpide ohikoenak GJHein lotuko dituen aurretiazko proposamen bat egitea (nahitaezkoak eta borondatezkoak bereizita).
  - Irizpideak kontsulta-taldeari aurkezteko saioa.
- **Dokumentu argitaragarria (gida) egitea: Euskadiko kontratazio publikoan irizpide ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak garapen jasangarrirako helburuekin lerrokatzea.**
  - Gidaren egitura eta edukiak proposatzea.
  - Gida kontsulta-taldearekin erkatzeko saioa.
  - Azken entregagaia idaztea.

Aurreikuspenen arabera, 2025eko maiatzean lanean hasi, eta 2025eko abendurako amaituko da.

---

## 11.4 Garapenerako lankidetzako proiektu partekatuen fitxak

### PROIEKTUA: **Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa indartzeko lankidetzako teknikoko programa**



Eusko Jaurlaritzan, osasunaren arloko nazioarteko lankidetzako ekintzak sustatzeko aurrekariak 1998. urtekoak dira. Orduan, lankidetzako hitzarmen bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak –haren mende baitzegoen aurreko Kooperazio Zuzendaritza–, Osasun Sailak eta Osakidetzako Euskal Osasun Zerbitzuak, hiru xedekin: osasun-laguntza ematea, batez ere, gatazkan dauden edo hegoaldekoak diren herrialdeetako adingabeei; osasungintzako kooperanteei preskakuntza ematea; eta sare publikoko profesionalak osasun-laguntza ematea, aldi batez, hegoaldeko herrialdeetan egindako proiektuetan.

2020ko uztailaren jauzi kualitatibo bat egin zen, Osasun Sailak, Osakidetzak, eLankidetzako Euskal Agentziak eta Mugarik Gabeko Medikuek lankidetzako hitzarmena sinatu baitzuten euskal delegazio mediko bat Perura joan zedin, herrialde horretako Osasun Ministerioaren eskariz, Peruko Amazonian COVID-19ak eragindako larrialdiari erantzuteko. Esku-hartze horretan lortutako emaitza onak ikusita, ikusi zen beharrezkoa zela Eusko Jaurlaritzako instantzien arteko lankidetzako sakontzea nazioarteko osasun-lankidetzaren arloan eta, horiek horrela, 2021eko uztailaren 6an, osasun-arloko lankidetzako jarduerak egiteko protokolo orokor bat sinatu zuten Osasun Sailak, Osakidetzak eta eLankidetzak.

Jarduera-protokolo orokor horren esparruan, “Osasun Globala: Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa indartzea” ekimena jarri da abian, 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren trakzio-proiektuetako bat.

Ginea Bissauko jarduketara 2021eko irailean hasi zen. Orduan, esplorazio-bidaia bat egin zen Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa –bereziki Simão Mendes Ospitale Nazionala– bertatik bertara ezagutzeko, herrialdeko osasun-agintaritzak publikoekin harremanetan jartzeko, AIDA GKEa ezagutzeko eta haiekin epe luzerako lankidetzako harreman bat hastea egokia al zen aztertze-ko, herrialdeko osasun-sistema publikoa sendotzeko begira. Bidaian, gabezia nagusi hauek identifikatu ziren osasun-sisteman:

- Espezialisten falta.
- Koordinazio eskasa mediku eta erizainen artean.
- Proba diagnostiko ez-fidagarriak (laborategikoak eta irudi-probak).
- Tratamendu-protokolorik ez izatea.
- Preskripzio-zailtasunak: medikamentu kopuru handia, antibiotiko gehiegi, prozesu akutuetan balio terapeutiko eskasa duten beste irtenbide batzuk (bitaminak, oligoelementuak, etab.), hutsuneak administrazioan, iraupen luzea, etab.

Epe ertain-luzeko lankidetzako prozesu sistematikoago bati ekitea egokia zela egiaztatu ondoren, 2022ko martxoan akordio-memorandum bat sinatu zuten EAEko Administrazio Orokorrek, Osasun Sailak ordezkatuta, eta Ginea Bissauko Errepublikako Gobernuaren Osasun Publikoko Ministerioak.

Esku hartzeko arlo nagusi hauek jasotzen dira bertan:

- Ginea Bissauko osasun-langileen prestakuntza espezializatua (medikuntza, kirurgia, anestesia, gineko-obstetrizia, erizaintza, laborategia, erradiologia eta beste espezialitate batzuk).
- Zuzeneko osasun-laguntza (protokoloak, proba diagnostikoak, prozedura anestesikoak, obstetrikokoak eta kirurgikoak, zirkuituen hobekuntza, eta beste).
- Ospitaleen kudeaketarako laguntza (pertsonek arloa, fisikoa eta finantzarioa).
- Material, sendagai, ekipamendu eta bestelako sargai batzuen hornidura.
- Osasun-ebakuazioak.

Horrela, lehen osasun-taldea 2022ko martxoan iritsi zen Simão Mendes Ospitale Nazionalera (aurrerantzean, HNSM); bi barne-medikuz eta erizain batez osatua, larrialdietako, barne-medikuntzako eta kirurgiako solairuetan hasi ziren lanean.

Ondoren, 2022ko ekainaren 24an, Ginea Bissauko osasun-sistema publikoa indartzeko lankidetzako hitzarmena sinatu zuten Osasun Sailak, Osakidetzak, eLankidetzak eta AIDA GKEak. Hitzarmenak lau jarduera-ildo nagusi ditu: osasun-prestakuntza jarraitua, osasun-laguntzaren kalitatea hobetzea, ospitalearen kudeaketan laguntzea, eta ebakuntza konplexuetarako pertsonak Euskadira ebaluatzea. Hitzarmenak lau urteko iraupena du (2022-2026), eta beste 4 urtez luza daiteke alderdiek hala adosten badute. Urteko aurrekontua, gutxi gorabehera, milioi eurokoa izango da (eLankidetzak 550.000 euro, Osakidetzak 223.000 –langileak– eta Osasun Sailak 238.000 –osasun-arloko esku-hartzeak–).

Azpimarratu behar da Ginea Bissauko ospitale handiena dela HNSM, eta erreferentziazko ospitalea dela herrialde osoan. Guztira 720 ohe ditu, eta zortzi zerbitzu osasun-asistentziarako (Larrialdiak, Pediatria, Kirurgia Orokorra, Ginekologia eta Obstetrizia, Traumatologia, Medikuntza, Zainketa Intentsiboetako Unitatea eta Oftalmologia), zerbitzu osagarri bat (Farmazia), bi diagnostiko-zerbitzu (Laborategia eta Erradiologia), eta tratamendu ambulatorko zentro bat.

Hitzarmena hasi zenetik, atzerriratutako langile kooperanteak izan ditu HNSMk, gehiago nahiz gutxiago, larrialdietako, medikuntzako, kirurgiako, anesthesiako eta laborategiko zerbitzuetan, hango profesionalen prestakuntza jarraitua eskaini eta asistentziaren kalitatea hobetzen laguntzeko.

Larrialdietan, Medikuntzan, Kirurgian, Bloke Kirurgikoan eta Laborategian egindako ekintzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: protokoloak egitea; hiru prestakuntza-plan egituratu diseinatzea, egitea eta abian jartzea (Kirurgia, Medikuntza –plantan nahiz Larrialdietan– eta Anestesia); kasu klinikoak prestatzeko eta eztabaidatzeko saioak egitea; zerbitzuen arteko interkontsultak indartzea; baterako bisita-paseak ezartzea; kirurgiako ikuskapen eta plangintza egiteko laguntza ematea; sendagaien zirkuitua eta ekipamendua antolatzea une oro eskuragai daudela bermatzeko, hala jarduera kliniko programatuan nola larrialdietan; analisi-probak eskatzeko orriak abian jartzea eta monitorizatzea; larrialdiko analitikei erantzuteko gaitasuna hobetzea, etab.

Gaur-gaurkoz, oraindik ziurgabetasunak daude herrialdearen eta HNSMren egoeran, baina azken hiru urteetan aurrerapen esanguratsuak egin ditu osasun-programak. Azpimarratzekoa da, batez ere, osasun-programak sustatutako ezagutza sanitarioaren truke edo transferentzia. Kirurgia, Anestesia, Medikuntza eta Erizaintzako espezialitateetan iraupen luzeko prestakuntza- eta gaitasun-ibilbideak jarri dira martxan horretarako, hitzarmenpeko zerbitzuetako osasun-langileek gaixotasun nagusiak artatzeko gaitasuna eta autonomia hobetu ditzaten. Prestakuntza horietako parte-hartzaileak 89 dira gutxi gorabehera: 56 emakume eta 33 gizon. Erizaintzako prestakuntzan, 29 erizainek (26 emakume eta 3 gizon) prestakuntza amaitzea lortu dute eta dagoeneko ziurtatuta daude; gaur egun, 30 parte-hartzaile daude prestakuntza egiten, 22 emakume eta 8 gizon. Medikuntzako/Larrialdietako prestakuntzan 15 mediku ari dira parte hartzen: 5 emakumezko eta 10 gizonetzko. Haietatik hamarrek hobetzea eta autonomia- edo gaitasun-maila bat gehiago egiaztatzea lortu dute. Kirurgiako prestakuntzan bederatzi mediku daude, guztiak ere gizonak, eta haietatik seik autonomia- edo gaitasun-maila bat gehitu dute. Anestesisten prestakuntzan, berriz, gizonetzko hiru medikuk eta emakumezko beste hiruk hartu dute parte, eta haietatik lau maila hobetu dute jada.

Osasun-programak hainbat erronka ditu: besteak beste, bermatu behar da Osakidetzako osasun-langileen fluxu jarraitu bat dagoela osasun-programan parte hartzeko; Osakidetzako norbait izendatu behar da nazioarteko osasun-lankidetzaren koordinatzaile izateko, aholkularitza teknikoaren bidez osasun-programa kualifikatzen eta zehaztasun zientifikoz hornitzen lagunduko duena; osasun-programan zeharka txertatu behar da genero-ikuspegia, etab.

**PROIEKTUA: UNRWaren Lanbide Heziketako Programa eraldatzea****1. PROIEKTUAREN AURREKARIAK**

Gobernu Kontseiluak, 2024ko apirilaren 30ean egindako bileran, 500.000 euroko zuzeneko dirulaguntza eman zion UNRWaren Espainiako Batzorde Elkarteari, 2024-2026 aldian bere Lanbide Heziketako Programa eraldatzeko, Jordaniako Lanbide Heziketako 2 ikastetxetatik hasita.

Proiektuaren jatorrian, Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren eta Lankidetzaren eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren (aurrerantzean eLankidetzaren) arteko elkarlana datza. Elkarlan horren esparruan, 2023ko urtarrean, UNRWaren Lanbide Heziketako Programako 3 kideko delegazio batek Euskadi bisitatu zuen. Bisitaren helburua Lanbide Heziketako euskal ereduaren berri jakitea zen, ezaguna baita kalitateko curriculumaz izateagatik, lan-merkatutarako adierazgarria izateagatik, joerak aurreikusteko gai izateagatik, berrikuntzagarri eta teknologiarik.

Bisita horren ondoren, 2023ko martxoan, Ekialde Hurbileran misioa egin zuten Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzako eta eLankidetzako zuzendari eta arduradun batzuek. Bisita hartan, proposamen hau egiteko behar ziren elementuak identifikatu ziren. 2023ko urriaren 7an Gazako Zerrendan piztutako gerraren ondorioz, tartean ziren alderdiek berriz ebaluatu zuten proposamena bideragarria al zen, eta honela egokitzea erabaki zuten: bisitatutako Jordaniako Lanbide Heziketako 2 zentroetan zentratuko zen esku-hartzea, baztertu egingo zen Gazako Zerrendako esku-hartzea, eta UNRWak lanbide-heziketaren arloan egiten duen lana sendotzeko ahaleginak areagotuko ziren, hauskortasuna eta ezegonkortasun geopolitikoa ezaugarri dituen egoera batean.

**2. HELBURUAK**

Helburu orokorra palestinar errefuxiatuek hezkuntzarako eta lanerako eskubidea dutela bermatzea da. Horretarako, 4 emaitza zehaztu dira: 1) UNRWaren Jordaniako lanbide-heziketako 2 ikastetxeetan dagoen teknologia eguneratzea, 2) UNRWaren Jordaniako lanbide-heziketako ikastetxeak lan-merkatutara hobeto egokitzea eta haien erantzuteko gaitasuna hobetzea, 3) zuzendaritza-taldean, irakasleen eta ikasleen gaitasunak indartzea Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antolatutako prestakuntza espezifikoen bidez, eta 4) UNRWaren Lanbide Heziketako Estrategia eguneratzea.

**3. AURREIKUSTEN DIREN EKINTZAK**

Lehen emaitzaren barruan, jarduera hau eramango da aurrera: Jordaniako Lanbide Heziketako 2 ikastetxe ekipamenduz hornitzea. Bigarren emaitzaren barruan, jarduera hau egingo da: ikastetxe horietarako ikasketa-planak eguneratzea eta curriculumak diseinatzea. Hirugarren emaitzaren barruan, jarduera hau ezarriko da: prestakuntza espezifikoa ematea parte hartzen duten lanbide-heziketako 2 ikastetxeetako zuzendaritza-taldeein, irakasleei eta ikasleei. Laugarren emaitzaren barruan, jarduera hau egingo da: UNRWaren Lanbide Heziketako Estrategia berria berrikusi eta eguneratzea.

**4. HARTZAILEAK**

Zuzeneko hartzaileak Jordaniako UNRWaren lanbide-heziketako irakasleak eta arduradunak dira (9 pertsona). Euskadin, lanbide-heziketako 9 espezialistak proiektuan zuzenean parte hartzea aurreikusten da. Hartzaile orokorrak, edo zeharkako hartzaileak, Jordaniako 2 ikastetxetako lanbide-heziketako irakasle eta ikasle guztiak dira.

**5. ALDIA**

2024ko maiatzaren 1etik 2026ko apirilaren 30era (24 hilabete).

Berrerabiltzeko prestatzeko zentro gisa daraman jardueran, Elkartenetek aurrera egin nahi du informatikako TEEHen berrerabilera, Euskadiko berrerabiltzeko prestatzeko lehen zentro homologatua sortuz euskal erakundeei zerbitzu emateko, oro har, eta, hasiera batean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Osakidetzari bereziki.

2022an, beste komunitateetan zeuden BPZen lanerako modua aztertu ondoren, Euskadik bere eredia behar zuela ondorioztatu genuen, eta hondakin-gaien araberako BPZ deszentralizatu batek gaur egungo nahiz etorkizuneko beharrei erantzuna eman diezaieke, beste erakunde batzuek informatikako TEEHak ez beste hondakin batzuk kudeatzen egiten duten lana errespetatuz.

Proiektua gauzatzeko hainbat modu aztertu ditugu, eta, horretarako, askotariko erakundeekin lankidetzan aritu gara: Ihobe, REAS-EUSKAD, estatuko berreskuratze-entitateak eta hainbat administrazio publiko. Ildo horretan, badugu esperientzia proiektu pilotu honen oinarrian dagoen BPZren egitekoa betetzeko.

Gogoratu behar da orain arte ezer gutxi egin dela informatikako TEEHen kudeaketari dagokionez, eta ez direla betetzen ari 110/2015 Errege Dekretuan etxeko eta laneko TEEHak biltzeko ezarritako gutxieneko helburuak. Horregatik guztiagatik, elkarrekin lan egin behar dugu Euskadi arlo horretan erreferentzia eta lan onaren eredu izan dadin. Elkartenet-ek eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin garatutako Euskadi mailako BPZ batek nabarmen handituko lituzke lurraldeko informatikako TEEHen berrerabilpen-tasak, eta erreferentziazko zentro bihurtuko litzateke munduko beste leku batzuetan antzeko proiektu bat garatu nahi dutenentzat.

Era berean, behar diren protokoloak ezartzen badira TEEHak modu ordenatuan biltzeko, besteak beste, horiek jatorrian sailkatu eta zuzenean birziklatu aurretik berrerabilera lehenesteko lan egin dadin, Eusko Jaurlaritzaren 2030 Agendan ezarritako helburuak betetzea ahalbidetuko da. Halaber, protokolo egokiak ezarri behar dira material informatiko berria erostean kontuan har daitezkeen material hori etorkizunean errazago berrerabiltzeko behar diren espezifikazioak, hala aise gainditu ahal izango baitira proposatutako helburuak, eta Europa mailan eredu eta erreferente bihurtu. Gainera, proiektuak eraldaketa soziala behar duten eremuak dinamizatuko lituzke, berrerabiltzeko prozesatu diren informatika-ekipoak emanez, eten digitala gainditzeko. Horrenbestez, inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatuko lituzke.

Elkartenet-en eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak aktiboa eta estua proposatzen dugu informatikako BPZren proiektu pilotua aurrera eraman eta, epe ertainean, behin betiko proiektu batean burutzeko. Lehen fase batean, Hezkuntza Sailarekin eta Osakidetzarekin elkarlanean aritu nahiko genuke; proiektuak zer-nolako bilakaera duen, Eusko Jaurlaritzak osora zabaldu ahal izango litzateke.

Era berean, aliantza hori hedatu eta udalekin, aldundiekin eta beste erakunde berreskuratzaile batzuekin lankidetzan aritu nahi dugu gailu elektronikoaren berrerabilera sustatzeko eta, hala, gizartearen, ekonomiaren nahiz ingurumenaren ongizateari ekarpena egin.

Bestalde, beren ekipo informatiko zaharrituen balio-bizitza luzatu nahi duten enprekin aliantzak egin nahi ditugu. Horrela, lan-ingurunearen berezko zereginak ez ezik, beste batzuk ere bete ditzaketen kalitate handiko ekipoak lortuko ditugu. Lankidetzak publiko-privatuak ere lagunduko luke alderdi horretan, ez baita gauza bera Elkartenet gisa hurbiltzea enpresetara, edo Eusko Jaurlaritzak bultzatutako BPZ gisa hurbiltzea.

Gure BPZ aurrerapauso handia izango litzateke honako eremu hauetan:

- **Hondakin elektronikoak murriztea:** Tresna elektriko eta elektronikoak berregokitzu eta berrerabiliz, zabortegetan amaitzen den TEEH kopuru handiak dakarren karbono-aztarna murriztuko dugu eta, horrenbestez, baita ingurumen-inpaktua ere.
- **Ekonomia zirkularra sustatzea:** BPZk eredu ekonomiko jasangarriagoa eta eraginkorragoa sustatuko du, tresna elektriko eta elektronikoaren berrerabilpenarekin eta bizi-zikloaren luzapenean oinarrituta.
- **Gizarte-enplegua sortzea:** Etorkizuneko eta behin betiko BPZk lanpostu berriak sortuko ditu, eta, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak bete ditzaketenez, haien laneratzea erraztuko litzateke. (Eta balio erantsia sortu, osagaiak balorizatzeko desmuntatu eta bereiziz).
- **Kostu txikiko teknologia eskuratu ahal izatea:** Berregokitutako ekipoak erakundeei eskainiko zaizkie lehenik eta behin, eta beste batzuk dohaintzan eman edo salduko dira, arrazoizko prezioetan. Hala, pertsona eta kolektibo guztiek errazago eskuratu ahal izango dute teknologia, haien erosahalmena edozein dela ere, eta eten digitala murriztuko da.
- **Hezkuntza eta kontzientziaketa:** Elkartenet-ek dibulgazio-lanean jarraituko du, gazteak hondakin elektronikoaren eraginaz eta produktuak berrerabiltzearen garrantziaz sentsibilizatzeko tailerrak eta hezkuntza-kanpainak garatuz.

**PROIEKTUA: Emakume-elkarteak, komunitateak eta toki-erakunde publikoak hondakinen kudeaketa jasangarriko aldaketa-eragile Malicoundan (Senegal)**



| Iraupena | 2025 | 2026 |
|----------|------|------|
|----------|------|------|

### 1. PROIEKTUAREN AURREKARIAK

Gobernu Kontseiluak, 2024ko abenduaren 17an egindako bileran, 307.221,00 euroko zuzeneko dirulaguntza eman zien Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional (NE-SI) elkarteari eta Euleuk entitateari, Malicoundan (Senegal) proiektu pilotu bat egiteko, emakume-elkarteak, komunitateak eta toki-erakunde publikoak aldaketa-eragile bihurtzeko hondakinen kudeaketa jasangarrian.

Proiektuaren jatorrian, eLankidetzaren Lankidetzaren Euskal Agentziak (aurrerantzean eLankidetzaren) eta Ihobe SA-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak (aurrerantzean Ihobe) 2023ko azaroaren 13an sinatutako Jarduera Protokolo Orokorra datza. Protokoloaren bidez, bi erakundeen arteko lankidetzaren esparrua finkatu eta zehaztu nahi da. Orobat, identifikatu nahi da zein diren bien intereseko gaiak lankidetzaren eta ingurumenaren aldetik eta, gai horietako bakoitzarentzat, zer ildotan jardun litekeen lankidetzaren teknikoaren ekimen, ekintza, proiektu eta programa bateratuak gauzatzeko, Hegoaldeko herrialdeetako biztanleek behar tekniko eta estrategikoei erantzunez, xede hauek lortzeko:

- (i) aurrera egitea pertsona guztiek ingurumen osasungarria eta segurua dutela bermatzeko, klima-aldaketa murrizteko, biodibertsitatea kontserbatzeko eta ekosistemak zaintzeko bidean;
- (ii) lhoberen eginkizuna indartzea, ingurumen-plangintzako eta klima-aldaketa arindu eta hartara egokitzeko politiken bultzatzaile gisa, Euskadin nahiz Hegoaldeko herrialdeetan, ikuspegi hirukoitz batetik: giza eskubideak, tokikotasuna eta globaltasuna, eta desberdintasunen aurkako borroka;
- (iii) haren politika eta jarduketak garapenerako lankidetzaren helburuekin eta Garapen Jasangarriaren Helburuekin koherenteago bihurtzea.

Ekimen honek, erakundeen arteko koordinazioari ez ezik, beste bi alderdiri ere erantzuten die: Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planean Afrikari emandako lehentasun geografikoari, eta Hegoaldeko herrialdeetan ekimen pilotuak lagundu beharri, lehenetsitako ikuspegi zeharkako batean (ingurumena/klima) sakondu eta esperientzia metatu ahal izateko.

Senegalen, NE-SI eta Euleuk erakundeen partzuegoak gauzatuko du hondakinak komunitatean kudeatzeko eta ingurumenean hezteko proiektu pilotu hori. Haiekin batera, FADECek eta AJSek osatutako toki-erakundeen partzuegoak ere hartuko du parte. Ezarpen-prozesuan, lhobek eta eLankidetzak, laguntza teknikoa eman, eta ezartzen den gobernantza-sisteman parte hartuko dute.

### 2. HELBURUAK

Proiektu honen helburua da Malicoundako komunan hondakin solidoen kudeaketa inplikaturik dauden emakume-elkarteak eta eragileak ahalizatea, ingurumen osasungarria izateko eskubidea defendatzeko, kudeaketa-prozesu komunitarioa indartzeko. Azken batean, komunako ingurumen-egoeraren diagnostiko bat egitea da kontua. Hartara, askotariko eragileen gaitasunak indartzeko prozesu bat ezarri ahal izango da, ingurumen osasungarria izateko eskubidea defendatzeko osoko estrategia bat inplementa dezaten. Horretarako, 4 emaitza lortu nahi dira:

- 1. emaitza: hondakinen kudeaketari buruzko diagnostiko integrala egin da Malicoundako komunan.
- 2. emaitza: hondakinen kudeaketan (garbiketa eta bilketa) esku hartzen duten erakunde eta eragileen gaitasunak indartu dira, hondakinen kudeaketa integral eta jasangarriari dagokionez.
- 3. emaitza: Malicoundako komunan hondakinen kudeaketa komunitarioarako estrategia bat garatu da.
- 4. emaitza: ingurumen osasungarria izateko giza eskubideari buruz sensibilizatzeko estrategia, hondakinen kudeaketan esku hartzen duten hainbat eragilerek eta eragile biderkatzaileekin ezarria.

### 3. AURREIKUSTEN DIREN EKINTZAK

- Hainbat alderdi bilduko dituen analisi bat egingo da: gizarte zibil antolatua, arau- eta instituzio-esparrua, eta hondakinak biltzeko guneen kokalekua eta tipologia. Diagnostiko horri esker, hondakinak komunan kudeatzeko hainbat hautabide prestatu ahal izango dira.
- Hondakinen, osasunaren eta higienezko gaitasunak indartzeko estrategia bat diseinatuko da, baita antolamendu-gaitasunak ere, egituratzeko/hitzartzeko prozesu bati ekin ahal izateko.
- Hondakinak kudeatzeko zerbitzuak (garbiketa eta bilketa), lehendik zeuden bilketa-guneak eta arau- eta instituzio-esparrua indartuko dira, hondakinak berreskuratze eta balorizatzeko etorkizuneko estrategia baten oinarriak finkatu ahal izateko.
- Estrategia bat prestatuko da, lehentasuneko talde gisa hezkuntzaren arloa, osasungintzarena, instituzioak, lehen sektorea eta abar bilduko dituena.

### 4. HARTZAILEAK

Zuzeneko hartzaileak Malicoundako komunako erakunde komunitarioak (bereziki, emakume-elkarteak), toki-erakunde publikoak eta, oro har, komunitatea dira.

### 5. ALDIA

Iraupena 24 hilabetekoa izango da, 2024ko abenduaren 15etik 2026ko abenduaren 14ra.

PROIEKTUA: **AKUAL - Uraren eta saneamenduaren arloko erakunde arteko lankidetzaprograma Erdialdeko Amerikaren eta Euskadiren artean**



| Iraupena | 2025 | 2026 | 2027 |
|----------|------|------|------|
|----------|------|------|------|

AKUAL uraren eta saneamenduaren arloko lankidetzaprograma bat da, Erdialdeko Amerikako eta Euskadiko maila anitzeko hainbat erakunderen artean (tokikoa, probintziakoa eta eskualdekoa). Eragile hauek parte hartzen dute:

- Lankidetzako euskal erakundeak: eLankidetzaprograma-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Euskal Fonda-Lankidetzarako Euskal Toki Erakundeen Elkar-tea.
- Uraren euskal erakundeak: URA-Uraren Euskal Agentzia, Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA), Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (BBUP), Gipuzkoako Urak-Gipuzkoako Ur Kontsortzioa (azken horrek programaren lehen urteetan baino ez zuen parte hartu).
- Erdialdeko Amerikako uraren erakundeak: Administración Nacional de Acueductos y Alcantarillados de El Salvador (ANDA), Instituto Costarricense de Acueductos y Alcantarillados (AyA) eta Foro Centroamericano y República Dominicana de Agua Potable y Saneamiento (FOCARD-APS).
- Sartzeko prozesuan: Nafarroako Gobernua (Lankidetzaprograma Zuzendaritza) eta Navarra de Infraestructuras Locales S.A. (NILSA).
- Gainera, El Salvadorreko udalerrak gehitu behar dira, zeinetan garatuko den AKUALen azpiegituraren osagaia.

AKUAL programaren helburu nagusia da ura, saneamendua eta higieena izateko giza eskubidea sustatzen laguntzea, genero-ekitatez, 6. GJHa betetzeko. Horretarako, (1) azpiegitura sanitario bat garatuko da El Salvadorreko komunitateetan ur-zerbitzuak eta saneamendua modu jasangarrian betetzen direla bermatzeko (2) FOCARD-APSeko kide diren herrialdeetako ur- eta saneamendu-zerbitzuen kudeaketa-gaitasunak eta jasangarritasuna indartuko dira.

Proiektuak 17. GJHa betetzen ere laguntzen du. Horretarako, Erdialdeko Amerikaren eta Euskadiren arteko lankidetzaprograma tekniko espezializatua eta ezagutzaren kudeaketa sustatzen dira, ur- eta saneamendu-zerbitzuak eraginkortasun eta jasangarritasun handigoz emateko.

#### Ekimen aitzindaria

AKUAL lankidetzaprograma-ekimenak elementu berritzaileak biltzen ditu, hala nola: (1) Euskadiko uraren eta lankidetzaren arloko eragileen arteko erakundearteko koordinazioa; (2) hiru aldeko lankidetzaprograma teknikoa eta jakintzaren mugikortasuna Euskadi-El Salvador-Costa Rica-Erdialdeko Amerika artean, eta (3) Hegoalde-Hegoalde lankidetzaprograma El Salvadorren eta Costa Ricaren artean.

2018tik, I. eta II. faseetan, askotariko erakunde eta eragileen arteko koordinazioa sustatu du AKUALek, garapenerako lankidetzaprograma egiteko beste modu batzuk aztertzeke, erantzunkidetasunaren ikuspegitik. Horretarako, ezagutza-truke horizontala, elkarrengandik ikastea eta elkarren onura sustatzen dira.

#### AKUALen lehen bi edizioetan lortutakoak (2018-2021 eta 2021-2024)

ANDAK El Salvadorko Anamorós, Yucuaiquín eta Jcoró udalerrietako etxebizitzetan ura izateko giza eskubidea bermatzeko azpiegitura garatu zuen.

ANDA eta AyA erakundeek kudeaketa tekniko, operatibo eta administratibo-finantzarioko gaitasunak indartu ziren; horretarako, programako prestakuntza- eta truke-jardueretan parte hartu zuten El Salvadorreko, Costa Ricako eta Latinoamerikako herrialdeetako uraren kudeaketa eta uraren nahiz saneamenduaren arloko zerbitzu-prestazioetan aritzen diren arduradunak nahiz aktiboak. Prestakuntzaren ardatza ur-baliabideen eta uraren eta saneamenduaren arloko zerbitzuen plangintza eta kudeaketa jasangarria izan zen.

Laguntza teknikoa eman zen FOCARD-APSen agenda estrategikoa eraikitzeke Erdialdeko Amerikako Integrazio Sistemaren esparruan (SICA, edateko uraren eta saneamenduaren sektoreko eskualdeko erakunde zuzentzaileek osatua) eta sektorearentzat eskualde-mailako tresnak egiteko.

Euskadiko ur-erakundeetako kudeatzaile eta teknikariekiko esperientzia-trukea sustatu zen, zerbitzuen kudeaketa indartzeko. Ondorioz, plangintza hidrikoaren eta ur- eta saneamendu-zerbitzuen kudeaketaren arloko 6 hobekuntza-proposamen eta jardunbide egoki baino gehiago prestatu ziren.

#### AKUAL III (2024-2027): aurreikusitako emaitzak

Hirugarren edizio honetan, ur- eta saneamendu-azpiegitura eraikitzen jarraituko da, orainoan, El Salvadorreko udalerrak hauetan: San Miguel mendebaldea (San Jorge barrutia), San Miguel departamenduan; Usulután mendebaldea (El Triunfo hiriarren barrutia), Usulután departamenduan; eta La Unión hegoaldea (San Alejo barrutia), La Unión departamenduan. Horrez gain, jarraipena emango zaie lankidetzaprograma teknikoko eta erakundeak sendotzeko prozesuei, ANDA, AyA eta FOCARD-APS (Edateko Uraren eta Saneamenduaren Erdialdeko Amerikako eta Dominikar Errepublikako Foroa) erakundeekin batera.

Gainera, bi osagai berri sartu dira: bata, **genero-ikuspegia indartu eta zeharkako bihurtzeko**, bai ur-operadoreen barne-mailan, bai operadore horiek emandako zerbitzuetan; eta, bestea, programaren **komunikazioaren alderdia indartzeko**.

#### Aurrekontua

Hona hemen programaren 9 urteetan (2018-2027) izandako aurrekontua eta hirugarren ediziorako aurreikusten dena:

- 1. edizioa: 1.785.682,74 € (zuzeneko kostuak guztira) 1.883.691,85 € (I. edizioaren kostua guztira).
- 2. edizioa: 2.124.508,00 € (zuzeneko kostuak guztira) 2.217.081,72 € (II. edizioaren kostua guztira).
- 3. edizioa: 2.392.828,16 € (aurreikusitako zuzeneko kostuak) 2.538.961,96 € (III. ediziorako aurreikusitako kostua guztira).



PROYECTO: **Sevillako 2025eko goi-bilerarako bidean:  
Nazio Batuen Konferentzia  
garapenerako finantzaketari buruz**



|          |      |
|----------|------|
| Iraupena | 2025 |
|----------|------|

Nazio Batuek Espainia aukeratu dute Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko IV. Konferentzia egiteko. Sevillan izango da, 2025eko ekainaren 30etik uztailaren 3ra bitartean. Topaketaren helburua da nazioarteko komunitateari bultzada ematea, behar diren politikak ezarri eta finantza-baliabideak mobiliza daitezzen, mundu osoan 2030 Agendaren eta garapen jasangarri-rako helburuen konpromisoak betetzeko.

Garapenerako Finantzaketari buruzko IV. Nazioarteko Konferentzia izango da hau, Monterrey (2002), Doha (2008) eta Addis Abeba (2015) hirietan egindakoen ondotik. Espainiak espazio inklusiboa izan dadila nahi du: herrialde guztiak eser daitezela mahaian, eta eragile interesdun guztiek parte har dezatela, kontsulta-prozesu ireki, integratzaile eta garden batez.

Konferentzian, eguneratu eta zabaldu egingo da finantzaketari buruzko agenda, zeinak funtsezko gaiak biltzen dituen; esaterako, zerga-politikak, legez kontrako fluxuei eta zerga-ihesari aurka egiteko nazioarteko lankidetzak, Garapenerako Laguntza Ofiziala, finantzaketa pribatua, merkataritza, zorraren jasangarritasuna, zientzia eta teknologia, eta nazioarteko finantza-sistemaren gobernantza erreforma.

Konferentzia funtsezkoa izango da Nazio Batuen, nazioarteko finantza-erakundeen, garapen-bankuen eta arlo horretako gainerako eragile adierazgarrien garapen-agendak lerrotzeko.

Bestalde, 2025eko apirilaren 1etik 4ra, Sevillan (Espainia), **Tokiko Garapen Ekonomikoaren Munduko Foroaren** seigarren edizioa egingo da. Foroaren helburu nagusia tokiko garapen ekonomikoaren ikuspegia sustatzea da. Eztabaida politikoan aurre-rapausoak egin eta elkarre globalak indartu nahi ditu, tokiko, nazioarteko eta nazioarteko ekintza zehatzak lortzeko.

Foroak lehentasun globalak landuko ditu, besteak beste, gai hauetan: trantsizio hirukoitza, justizia soziala, lurraldeko enplegurako prestakuntza, kudeaketa publikoa, aliantza publiko-pribatuak eta sektore pribatuaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren rola, enplegua eta lan egokia, lurraldetik "zaintzen" duen ekonomia berri baten ikuspegia, eta maila anitzeko aliantzak, politika globalak, nazionalak eta deszentralizatuak (eskualdekoak-tokikoak).

Euskadiren izenean, foro horretan eta Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko Konferentzian parte hartzeko asmoa du Eusko Jaurlaritzak.

